

Zu hemen zaude. goiena



OÑATIKO BASERRI-BIDEAK KONPONTZEN

Oñatiko Udalak milioi bat euro bideratuko ditu, lau urtean,
herriko zortzi auzoetan kaminoak konpontzeko / 29

Langile bat lanean, martitzenean, Oñatiko Errekalde-Torretxebarri bidean. XABIER URZELAI

"Maskarak erantzita, zama handia kenduko dugu gainetik"

Bus gidariendako eta garraio publikoko bidaiariendako ez da derrigorrezkoa maskara erabiltzea, eguaztenetik / 4



Galder Arrillaga, Avanza-Lurraldebusko gidaria, eguaztenean Arrasaten. MIKEL ZUMALDE

Boxeo jaialdia antolatu du Arrasate Box taldeko Ixa Rodriguezek hilaren 25erako, Uarkapen / 32

Bergarako Harria musika taldeak estreinako diskoa aurkeztuko du gaur, Seminarixoan / 25

SINADURAK

 PATXI OLABARRIA IRIZAR / 8	 ITSASO ERRETOLATZA / 9
 MARIA IZAGA / 14	 MIKEL ARROIABE / 16
 ARANTZA MIGUEL / 20	 ANDER ETXEBERRIA / 40



Inauteriak: esnatu da hartza, has dadila festa!

Garazi Hach Enbarek-i elkarrizketa

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA Otsailaren 15ean Haur Minbiziaren Nazioarteko Eguna da. Aspanogik kaleratutako datuen arabera, Donostiako Unibertsitate Ospitalean ia 29 haur minbizi kasu berri artatzen dira urtean. Egun horren harira, Hodgkin-en linfoma gainditu duen 18 urteko Itsaso Villarren testigantza jaso du GOIENAK.

Nola atzeman zizuten minbizia?

2021eko uztailean, 16 urte nituela, lepoaldea ukitu nuen eta ikusi nuen koskor bat neukala. Garai hartan, pandemiatik atera berri geunden eta, lehenengo, telefonozko hitzordua izan nuen medikuarekin. Gero, aurrez aurre hartu ninduen medikuak eta, badaezpada, analitikak egin nituen. Ondoren, eskanerra egin zidaten eta Hodgkin-en linfoma izan zitekeela esan zidaten; sistema linfatikoan eragiten du. Biopsia egin zidaten eta horrekin ikusi genuen hala zela.

Hodgkin-en linfoma zela entzun eta zein izan zen zure erreakzioa?

Gogoratzen naiz eskanerra egin ondoren, kirurgia egin aurretik, medikuek minbiziaren izena esan zutenean galdetu zidatela

"Hau tokatu zait eta aurrera egingo dut"; hori pentsatu nuen"

ITSASO VILLAR HODGKIN-EN LINFOMA GAINDITU DU

2021eko irailean, 16 urte zituela, diagnostikatu zioten minbizia bergararrari; lehengo pertsona bera ez dela eta bizimodua ikusteko era aldatu zaizkiola aitortu du

ea ba al nekien zer zen. Nire erantzuna ezezkia izan zen, baina suposatzen nuen zerbait ona ez zela. Minbizia zela esan zidaten eta...

Minbizia atzemandu, tratamendua.

Kimioterapia hartu beharko nuela ziurra zen, baina ez zekiten erradioterapia beharko ote nuen. Sei hilabetez kimioa hartu nuen eta ikusi zuten gorputzak ondo erantzun zuela; beraz, nahikoa izan zen horrekin. Iazko martxoan amaitu nuen.

Kimioaren albo-ondorioak...

Gorputz bakoitzari ezberdin eragiten dio. Ilea jausten da, kortikoideak hartzeagatik asko puzten zara, insomnia, botagalea... Horrelako gauzak.

Ikusten zireneko albo-ondorioak bai, baina minbizia duzula esaten dizuten ueña ere gogorra izango da.

Oroitzapena daukat hasiera gogorra izan zela, baina oso ondo aurre egin diodan sententzia daukat. Hasieratik onartu nuen. Askotan, ohikoa da "zergatik

gertatu zait niri?" galdetzea. Nik hau pentsatzen nuen: "Hau tokatu zait eta aurrera egingo dut". Tratamendua gogortzen doa, baina nahiko ondo hartu nuen oroitzapena daukat.

Etxekoen eta lagunaren babesa ere sekulakoa izango zen.

Bai, noski. Normala den moduan, hasieran, medikuengana gurasoekin joan nintzen. Bi neba daukat eta haiei ere lehen egunean kontatu genien. Gertuko lagunekin ere segituan egin nuen

berba. Gainera, ikasturte hasiera zen eta lehen egunean ez, baina berehala gelan kontatu nuen.

Minbizia gainditu zenuela esan zizutenean...

Sekulako poza hartu nuen. Bazueta pentsatzen da tratamendua amaituta dena bukatu dela, baina normaltasunerako prozesu hori luzea da. Tratamendua amaitu eta hurrengo egunean ez zara ondo egongo. Poliki-poliki egin behar den prozesua da.

Orain, hiru hilean behin egiten dizute osasun-azterketa; urduri joaten zara?

Hasieran, agian, bai. Beti daukazu berriro gertatuko den beldur hori, baina uste dut lasaigo joaten naizela. Hiru hilean behin joaten naiz; suposatzen dut laster sei hilabetera pasako dela eta gero urtebetera egiten jarraituko dudala.

Nola aldatu zen zure bizitza minbizia zenuela jakin zenuenean?

Eskolara joateari utzi nion eta etxez etxeko irakasleak etortzen ziren. Lagunekin harremana mantendu nuen, baina egunero ikusi beharrean, astean behin ikusten nituen. Pandemia ze-

Izaskun Larrañagak jasoko du 2023ko Aspegi saria

Larrañagaren hamabost urte baino gehiagoko lan esperientzia nabarmendu dute sarien antolatzaileek

I.A.A. BERGARA

Gipuzkoako emakume profesionalen eta enpresarien elkarteak da Aspegi eta Izaskun Larrañaga bergararrak jasoko du 2023ko Aspegi saria, hilaren 23an. Gустura agertu da sari honekin, eta, azaldu duenez, saria momentu "goxo" batean heldu da, azken hiru urteak "konplikatuak" izan direlako koronabirusagatik: "Ohorea da; esan nahi du taldean gauzak ondo egiten ari garela".

Lacor Taldeko kontseilari delegatua da Larrañaga, eta Aspegi sarien antolatzaileek nabarmendu dute 15 urte baino gehiagoko lan esperientzia duela; hala nola estrategia lanak egin dituela merkataritzaren, marketingaren eta salmentaren arloan.

Emakume izateagatik "inolako oztoporik" ez duela izan aitortu du; dagoen tokira duen prestakuntza dela-eta heldu dela, "ia



Izaskun Larrañaga. GOIENA

egunero" egindako formakuntzagatik.

Leire Etxetxikia ere sarituko dute; DHL Parcel Iberia enpresaren Espainiako eta Portugalgo Eragiketen zuzendari nagusia da, eta zuzendaritza eta profesional saria emango diote.



DEBAGOIENEN GREMIOAK



ARROZTEGIAK
AZKARATE ARROZTEGIA
BERGARA
Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
blogak.goiena.net/azkarate

LOREZAINZA
MAKAI KOOP. ELKARTEA
ARETXABALETA
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

ITURGINTZA
EGIA ITURGINTZA
ARRASATE
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

URKO MANTENIMIENTO SL
ARETXABALETA
Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.

la-eta, maskaren kontua zaindu behar nuen eta leku itxietan egotea ez zen komeni. Sozialki daukazun dena geratu egiten da. Eskubaloian jokatzeko nuen eta ezin nuen hori egin.

Itzuli zara aurreko bizitzara?

Gutxi gorabehera, uste dut baietz, baina kontuan hartu behar da lehengo pertsona bera ez naizela. Hori mito hutsa dela uste duzu, baina egia da. Mentalitatea asko aldatzen zaizu, baina bizitza ikusteko modua ere.

Zertan aldatu da Itsaso?

Beti izan naiz neska positiboa. Esango nuke lehen niretzat arazoak zirenak txiki bihurtu direla. Esaterako, azterketa garaian nago eta ez nago urduri. Orain arazoak beste batzuk dira. Tratamenduan nengoenean zenbait une bizitzeko aukerarik ez dut izan, baina orain daukat aukera.

Minbizia zenuenean, elkarte batera jo zenuten?

Aspanogirekin egon naiz. Hasiatik lagundu ziguten bertako gizarte langileak eta psikologoak. Aurreko irailean, adibidez, Aspanogiko gazte batzuk elkartu ginen Donostian egun-pasa egiteko. Bestalde, Estatu

Jarduerak otsailaren 15era begira

Haur Minbiziaren Nazioarteko Eguna, hilak 15, eta haur minbiziaren kausa ezagutzera emateko, Aspanogik –adingabe minbizidunen familien Gipuzkoako elkarte– X. Elkartasun Ipar Martxa edo *nordic walking*-a antolatu du domeka honetarako Donostian. Elkarteak 25 urte beteko ditu aurten, eta, horregatik, ekimenaren leloa *25 urtez piraten alde martxan* izango da. Goizeko hamaiketan emango zaio hasiera martxari, baina aurrez, Zurriolako hondartzan mosaiko bat egingo dute, Nazioarteko Eguna eta Aspanogiren urteurrena irudikatuz.

www.herrikrosa.eus webgunean eman behar da izena eta bost euro balio du. Hala ere, elkartetik adierazi dute martxan parte hartu ezin dutenek baina ekimen honetan kolaboratu nahi dutenek ere elkartasun dortsala hartu dezaketela, 10 euroren truke.



Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Aspanogiko ordezkariak, aurkezpenean. GFA

Elkarteak adierazi duenez, elkartasun ekintza honekin Gipuzkoako herritarrak kontzientziarazi nahi dituzte haur minbiziak ez duela adinik, sexurik, erlijiorik edota talde sozialik kontuan hartzen.

Halaber, Porrotx pailazoa izan dute bidelagun, eta iaz, hark emandako gereziondoa landatu zuten Donostiako Ospitaletik gertu. Horregatik, aurten ere, otsailaren 15ean, Haur Minbiziaren Nazioarteko

Egunean, ekitaldi txiki bat egingo dutela aurreratu du Aspanogik.

Mende laurden lanean

1996an, lau familiak Aspanovas elkarte sortu zuten, adingabe minbizidunen eta haien familien bizi-maila hobea lortzeko helburuarekin, eta 1998an ekin zioten lan sozial horri. Gaixotasunaren prozesu osoan zehar eta ondoren euskarria eta konpainia ematen saiatzen dira.

mailan Aladina Fundazioa dago eta udan eskaintzen dituen udal-ekueetan egon nintzen, Dynamon Camp-en. Minbizia pasa dugunak eta gaixotasun kronikoa dutenak joan ginen.

Esperientziak partekatzeko aukera izango zenuten...

Bakoitzak ezberdin bizi du, baina antzeko egoeratik pasa direnekin egoten zara. Nire lagunekin egin dezaket berba, baina badakit %100ean ez nautela ulertuko. Ez ez dutelako ulertzen, baizik eta ez direlako nire egoera berean egon.

Hainbat elkartzet hitz egin dugu; halako taldeen laguntza garrantzitsua izango da, ezta?

Bai, noski. Horrelako zerbait tokatzen zaizunean, askotan, ez dakizu zer den eta horrelako elkarteek sekulako laguntza ematen dute, eta ez bakarrik laguntza psikologikoa; baita dituzun eskubideetan ere. Esate baterako, bajaren bat hartu behar duzunean. Zuk ez daukazu informazio hori helarazten dizute eta, hain zuzen, garrantzitsuak dira horrelako eragileak galduta zauden momentuan laguntzeko.

Eman daiteke izena Goienak eta MUK antolatu duten III. Komunikazio Campusean

Uztailaren 3tik 7ra egingo da eta bideo-podcast bat sortu eta sareetan zabaldu beharko dute gazteek; 125 euro balio du eta ekainaren 19ra arte eman daiteke izena

I.A.A. DEBAGOIENA

Dagoeneko izena eman daiteke Goiena Komunikazio Taldeak eta Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazio graduak antolatutako III. Komunikazio Campusean. Uztailaren 3tik 7ra izango da, astelehenetik ostiralera, goizez, 09:00etatik 13:30era. MUK Aretxabaletan duen Komunikazio Campusean egingo da eta DBH-4ko nahiz batxilergoko lehen mailako gazteei zuzenduta dago.

Edizio honetan, bideo-podcast saio bat sortu eta sareetan zabaldu beharko dute gazteek. Saioak zuzenduko dituzte Ainhoa Vitoria komunikatzaile eta Gazteako irrati esatariak; Goiena Komunikazio Taldeko Xabier Urzelaik, *mojo* edo eskuko telefono adimendunekin ekoiztutako ikus-entzunezkoen edukietan adituak; eta MUKo irakasle Unai



Monika Belastegi Goienako presidentea eta Unai Portilla MUKo irakaslea. I.B.

Portillak, podcastetan, *streaming*-etan eta ikus-entzunezkoan adituak.

Izen-ematea ekainaren 19ra arte egingo da zabalik. Prezioa 125 euro da eta plazak mugatuak dira. www.labur.eus/komunika-

ziocampus2023 webgunean eman behar da izena. Informazio gehiago: 600 02 27 20 zenbakian, komunikaziocampus@mondragon.edu helbidean eta www.goiena.eus/bereziak/komunikazio-campus-2023 webgunean.

ARANZADI IKASTOLA

T. DE ARANZADI IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEAREN OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Gure kooperatibaren balitzuaren Estatutuen 25. artikuluan ezarritakoaren arabera, Arrezkaritza Kontseiluak T. DE ARANZADI IKASTOLA, KOOP. ELK. ren Ohiko Batzar Nagusira dei egiten du. Batzarra 2023ko otsailaren 22an egingo da, **arratsaldeko bost erdietan** lehen delaldian eta, hala balegokio, **seietan** bigarren delaldian, sei eta erdietan hirugarren delaldian, Bergara herriko Herrilagunak kaleko **Aranzadi Ikastolan**.

GAI-ZERRENDA

1. Akta onartzeko kideak izendatzea.
2. Aurreko bilkurako aktaren onarpen-bostena irakurtzea.
3. 2021/22ko ikasturteko memoria aurkeztea.
4. 2022/23ko ikasturteko egitasmoa aurkeztea.
5. 2021/22ko ikasturteko kontuen kudeaketa aztertu eta hala balegokio, onestea.
6. Galdutako irabazien banaketa azaltzea eta, hala balegokio, onestea.
7. Arrezkaritza Kontseiluko kide berriak hautatzea.
8. Kuoten inguruko informazioa ematea.
9. Galde-erantzunak.

Bazkideek gai-zerrendan dauden gaien inguruko dokumentazioa aurrez aztertzeko aukera dute, Aranzadi Ikastolan bertan.

Bergaran, 2023ko otsailaren 8an

Lehendakaria
Maider Garitano Pagaldai

Garraio publikoan ere aurpegiak berriz bistara

Eguaztenean sartu zen indarrean Espainiako Ministroen Kontseiluaren agindu berri: aurrerantzean, maskararen erabilera ez da nahitaezkoa izango garraio publikoan. Erabiltzaile eta gidari gehienek pozik hartu dute orain arteko neurria arindu izana

L. Zeberio Lekuona DEBAGOIENA

Urtarrilaren 30ean bete ziren hiru urte Osasunaren Mundu Erakundeak COVID-19aren agerrialdia dela eta nazioarteko osasun larrialdia ezarri zuenetik. Hemen 2020ko uztailean arautu zen maskararen derrigortasuna leku itxietan eta ordutik hona neurri hori indarrean izan da garraio publikoan eta zentro soziosanitarioetan.

Eguaztenean aldatu zen neurria garraio publikoari dagokionez. Nahitaezotasuna bertan behera gelditu da, baita ere, optiketan, audiometria-zentroetan eta ortopedietan. Ez horrela osasun zentroetan, farmazietan, hortz-kliniketan eta mota horretako zentro soziosanitarioetan.

Eskualdeko autobus gidari eta erabiltzaile gehienek pozik hartu dute neurri aldaketa garraio publikoan. Eguaztena ezker maskara gutxi ikusten dira, nahiz eta oraindik ere badauden.

Autobus-gidariak, pozik

Cuadrabus enpresako autobus-gidaria da Aniotz Birunbrales Ganboa Bergarako herribus zerbitzuan. "Jende gehiena pozik sumatzen dut. Hedabideetan agertu zenetik neurria arinduko

zela komentario eta galdera asko jaso ditugu. Jendeak jakin nahi zuen noiz", azaltzen du.

Avanza-Lurraldebusko gidaria eta ELAko afiliatua da Galder Arrillaga. "Ez naiz osasun arloko aditua, baina psikologikoki, behintzat, egokia eta beharrezkoa zela deritzot", azaldu du. Bat dator Birunbrales: "Ez naiz osasungintzako eta ez dakit onerako edo txarrerako den, baina justua iruditzen zait; izan ere, leku gehienetan kenduta dago eta gu, orain arte, medikuak bezala ibili gara maskararekin. Garraio publikoan mantentzea tabernetan, diskoteketan eta kontzertuetan gabe gabiltzanean

"PSIKOLOGIKOKI, BEHINTZAT, EGOKIA ETA BEHARREZKOA ZEN ALDAKETA"

GALDER ARRILLAGA

"NAHI DUENA LIBRE DA MASKARA ERABILTZEN JARRAITZEKO"

ANIOTZ BIRUNBRALES GANBOA

ez zen oso normala. Erabiltzaileek ere horrela esaten ziguten".

Urte gogorak

Ez dira urte errazak izan. Norberak hainbeste lanordutan maskara eraman beharra izateari gehitu zaio erabiltzaileei kontu hartu eta *polizia* lanak egin behar izatea, nahiz eta bai Birunbralesek bai Arrillagak dioten jendeak, orokorrean, errespetatu egin duela araua. "Gehienek bete dute eta eskertzekoa da", esan du Arrillagak. "Hemen, zorionez, ez dut arazo larririk eduki", berriz, Birunbralesek. "Luze egin da, hori bai".

Pandemia hasieratik erabili behar izan dute maskara. "Zaila baino gehiago neketsua izan dela esango nuke. Lehenengo egunetan zama puntu bat, eta mila egun ondoren aspergarria ere bai", adierazi du Arrillagak.

Hainbeste denboran mila anekdota dituzte kontatzeko: maskara behin eta berriz ahaztuta etortzen ziren erabiltzaileak, jantzi nahi ez zutenak... "Badaezpada, nik beti eraman ditut maskarak aldean, inor kanpoan gelditu ez zedin", esan du Birunbralesek. Badirudi ibilbide luzeagoko zerbitzuetan arazo handiagoak izan dituztela. "Niretzat gogorra izan da. Era guz-



Bergarako herribus zerbitzuko autobus gidari Aniotz Birunbrales Ganboa. L.Z.L.



Avanza-Lurraldebusko gidari Galder Arrillaga, Zalduspeko geralekuan. M. ZUMALDE

tietako arazoak izan ditugu: EPI eskasia, irainak, mehatxuak, enfrentamenduak... Egunerokotasunean bizitzen duguna, baina maila gorenean", adierazi du Avanza-Lurraldebusko gidariak. Kolektibo gisa sentitzen duten segurtasun eta babes falta salatu ditu, besteak beste, Foru Aldundiaren aldetik. Birunbralesek, berriz, bereziki gogoan du protokoloak behin eta berriz

aldatzen ziren garaia: "Denbora gutxi izaten zen neurri berriak komunikatzeko, ulertzeko... Denok irten gara ukituta kontu honekin. Hori horrela da".

Garai berriak datoz eta biek uste dute sumatuko dutela aldaketa. "Zama handia kenduko dugu gainetik eta bidaiariekin harremana hobetu egingo dela esango nuke", amaitu du Arrillagak.



Abere bat hiltegiara heltzeko unean. ARTEMAN

Hazkundera izan du Zubillagako hiltegi eta zatitze zerbitzuak

Arduradunek azaldu dute berregituratze urtea izan dela eta pandemia aurreko erritmora itzuli dela erakundeak

L.Z.L. OÑATI

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta hazkundera izan du Zubillaga-Oñati Hiltegi eta Zatitze Zerbitzuak 2022an. Ekitaldiko ekoizpenari dagokionez, 1.708.114 kg/kanal izan da, 2021koa baino %4

handiagoa. Ekoizpen honetatik 60 tona ekoizpen ekologikora bideratu dira eta %36 Euskal Okela zigitupean ekoiztu da. Guztira, 1.074 ustiatagiri eman dio zerbitzua Zubillaga-Oñatik eta, ekoizpenaren jatorriari da-

gokionez, %48 bizkaitarra izan da, %26 gipuzkoarra, %8 arabarra eta %8 nafarra. Zatitze zerbitzuari dagokionez, berriz, 383.046 kg/kanal zatitu eta prestatu dira.

Horrekin batera, inbertsioak egin dituzte instalazioetan: kamerak instalatu dituzte prozesu osoa monitorizatzeko eta 180 orduko *Animaliak hiltzea, prestatzea eta zatikatzea* ikastaroa eskaini dute, sektorearen etorkizuna bermatuko duten profesional berriak artatzeko.



ikastola

Otsailak 13 - 24 > Aurre
matrikulazioa





ZABALIK

PATXI OLABARRIA IRIZAR

Bizitzako betebeharrak

Zuhaitz bat landatzea, haur bat izatea eta liburu bat idaztea omen dira bizitzan egin beharrekoak. Lehenengo biak eginak nituen, eta orain hirugarrena betetzear nago, aste batzuk barru argia ikusiko baitu idazten bukatu berri dudana liburua.

Sekula ez nuen pentsatuko liburu bat idatziko nuenik, baina hala nahi izan du patuak. Guztia duela 14 urte hasi zen, Kultura zinegotzi nintzela, Antzuolako armarrarian genituen kanoiak kentzeko Nabarralderen eskaera iritsi zenean. Orduan, armarriko kanoiaren hariari tiraka hasi, eta armarrari osoa eta alardea hobeto ezagutzeko aukera eman dit ibilbide luze honek.

Sorpresaz betetako ibilbidea izan da, eta orain arte zeuden zenbait uste eta misterio argitzeko aukera. Bide batez, balio izango du gure herriaren, bailararen zein

Euskal Herriaren historia ezezagun hori plazaratzeko.

NIAREN ETA GUAREN ARTEKO OREKA BEHARREZKOA DA, BAINA NITASUNA INDARTSUAGO DAGO

Esan gabe doa liburua idazteari dedikazio handia eskaini behar izan diodala, batez ere, azken bi urteotan, eta hori ondo dakite etxekoek. Liburua

idatzi, haurrak izan eta zuhaitzak landatzea baino, liburua zabaldu, haurrak hezi eta zuhaitzak zaintzea zailagoa baita.


Azkenaldian asko hitz egiten den zaintzan dago gakoa, baina badut kezka norberaren eta etxeko lau hormen barruko zaintzara mugatzen ari ez ote garen. Ez dut esango norberaren zaintza garrantzitsua ez denik, baina ezin dugu herriaren zaintza deskuidatu.

Niaren eta guaren arteko oreka beharrezkoa da. Baina, zoritxarrez, nitasuna indartsuago dago; ikusi besterik ez dago gimnasioak eta autolaguntza liburua nolako arrakasta izaten ari diren. Gutasuna, berriz, ez dago modan. Ikusi bestela nola dauden gure herriko talde eta elkarteak.

Zuhaitza landatu, haurra izan eta liburua idazteaz gain, *norberanismo*rik gabeko nitasunari ere on egiten dion laugarren betebehar bat gehituko nuke: gutasuna praktikatu.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Prailleaitz, Lezetxiki

IÑAKI PETXARROMAN

'BERRIA.EUS'-EN ARGITARATUA
[HTTPS://LABUR.EUS/qqgix](https://labur.eus/qqgix)

Eraikuntzaren negozioa ez da ondo moldatzen naturaren eta arkeologiaren babesarekin.

Badira hamaika adibide. Olaztiko harrobiak Koskobiloko aztarnategi arkeologikoa hauts bihurtu du, 1940ko hamarkadaz geroztik.

Pentsa zitekeen garai hartako kontzientziazio apalagoatik gertatuko zela, baina, sei hamarkada geroago, Iruñean, Gazteluko plazako aztarnak deuseztatu ziren aparkaleku baten

obren onbeharrez, hiriko garaiko alkatearen egoskorkeria lagun. Prailleaitzko labar pinturak eta historiaurreko beste hainbat harribitxik Sasiolako harrobiaren eztekin bizi behar izan dute, Jaurlearitzako harrobiaren jarduera eteteari uko egin ziolako, argudiatuz ezin ziola aurre egin enpresari horretarako ordaindu beharko zitzaion kalte ordainari. Hondeamakinak itsuak dira.

Azken adibidea Lezetxikin izan da.

Leizeko aztarnategi garrantzitsutik gertuko galeria batean AHTak

egindako txikizioa espeleologoaren argazkiek jaso dute.

Garraio ministro Raquel Sanchezek dio aztarnategian ez dela inolako kalterik egin.

Kontua da non jartzen den babestu behar den eremuaren muga?

Udalatxan bertan akuifero garrantzitsuak lehortu zituzten duela hamabost bat urte.

Arrasatek bere ur hornitzaileetako bat galdu zuen, baina orduan ere kaltea gutxiesten saiatu ziren.

Natura eta ondarea garapeneren albo kalteak baitira.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEAwww.goiena.eus**Argitaratzailea**

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzardea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014**ISSN:** 2174-369X**Tirada:** 18.500 ale**Difusioa:** 18.723 ale**Inprimategia:**

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

GUTUNAK

Bidean Heziketa Zentroa, gogotsu**AGURNE JULDAIN ALCALDE**SAREA FUNDAZIOAREN IZENEAN
ARRASATE

Bidean Heziketa Zentroak 2023. urtea gogotsu hasi du. Hilabete osoan Arizmendiko Almen guneko batxilergoko ikasleekin eta Oreka bizikleta-dendarekin batera elkarlanean izan gara, bai Almenen bai Bideanen.

Almenetik ikasleak Bideanera bisitan etorri zaizkigu bi egunetan eta Bideanetik Almenera joan gara beste egun batez.

Bizikleta konpontzeko eta berritzeko proiektuan parte hartu ahal izan dugu eta Bideanen geneuzkan hiru bizikleta berri eta berrerrabiltzeko proiektua egin dugu.

Nola ez, Almeneko ikasleekin hiru egunetan zehar elkarrekin egoteko aukera izan dugu eta momentu oso politik eta dibertigarriak bizi izan ditugu.

Orain, Bideanetik eguna jarri behar dugu Oreka bizikleta-dendara joan eta bisita egiteko. Nola ez, eskerrak emateko beraien eskuzabaltasunagatik, hain beharrezkoak ditugun hiru bizikleta hauek konpontzen laguntzeagatik.

Bidean Heziketa Zentrotik eskerrik asko bai Orekarai bai Almeni ere! Lanean jarraituko dugu elkarlanak jarrai dezan!

Sarri egokitu zaigu, zoritxarrez gehiegitan...**SAIOA ALTZUA GALPARSORO ETA****AMAIA ARRIETA GONZALEZ**
EUSKAL PRESO POLITIKO OHIAK
ARRASATE

Sarri egokitu zaigu, zoritxarrez gehiegitan, komisaldegitik iritsi den kidea jasotzea. Bai, jasotzea.

Batzuetan, lurretik jasotzea. Inkomunikazioak irauten zuen egun, ordu eta minutuak zain pasatzen genituen *gurera* etor zitekeen kidearen zain. Ez da batere erraza tortura jasaten ari den kidea itxarotzea. Edozein izanik ere kalabozo horietako zaindarien *jantzien* kolorea, jakin bagenekien apurtutako pertsona baten zain geundela. Ez zen izango etxetik irten zen pertsona bera eta, ziurrenik, ez zen sekula gehiago izango.

Sarri egokitu zaigu, zoritxarrez gehiegitan, kartzelara iritsi berri den kidea artatzea. Oraindik adrenalina odoletik ezin kanporatu eta bere gorputzetik at zirudiena, infernua pasa ostean espetxea babesleku modura ikusi zuena, emozionalki blokeatua zegoena, beldurrak jota dardarka zetorrena, barrena husteko premia bizia zuena, hitzik egin gabe egunak eman zituena, jasatako mehatxuen ondorioz etxeokoa bizirik zeuden jakin nahi zuena edo komisaldegiko egunez gain beste hainbat egun isolatuta jarraitu zuena, ubelduren

ebidentziak inork ikus ez zitzaizkan.

Sarri egokitu zaigu, zoritxarrez gehiegitan, gure kide iritsi berrien testigantza latzak entzutea, zaintzea eta goxatzea. Isiltasunean, inpotentzia, haserre, triste, minez. Ahizpatasunetik, apurtuta zegoen pertsona hura osatzen saiatzea.

Sarri egokitu zaigu, zoritxarrez gehiegitan, urteak pasata ere, egun haiek utzitako arrastoa ikusi behar izatea. Gure kide, lagun eta ahizpen gorputzeko min sendaezinekin topo egitea, kulpak, beldurrak, zauri emozionalak eta lo egiteko arazoak bizirik dirautela ikustea.

Sarri egokitu zaigu, zoritxarrez gehiegitan, bizi izan dugun hori, ikusi dugun hori, batzuek nola ukatzen duten ikustea, entzutea, irakurtzea. Torturazailak eta agintariak goraiatuak nola diren ikustea. Nazioarteko ebazpenei muzin nola egiten dieten jakitea.

Sarri egokitu zaigu, zoritxarrez gehiegitan, otsailaren 13an Torturaren Aurkako Eguna *ospatu* behar izatea estali nahi den basakeria salatzeke, bistaratzeko eta ezagutarazteke; oraindik ere torturazailak eta torturaren agintari koldarrek egindakoa aitortu ez dutelako, erreparatu ez dutelako; gure Herriak memoria zati gordin hau ere ezagutu beharko lukeelako.

Europar Batasunaren balioen krisia**OLAIA ALONSO**

ARETXABALETA

2023ko otsailaren 6ko gauean, 7,8 graduko lurrikara batek Turkia eta Siria kaltetu zituen, eta ordu batzuk geroagoko lurrikarek are suntsipen handiagoa eragin zuten. Komunikabideak berehala hasi ziren gertatutakoaren irudiak partekatzen: birrindutako etxebizitzak, azpian harrapatutako pertsonen eta desagertutako familiarren zain zeudenen irudiak. Hildakoen kopuruak gora egin du etengabe, eta OMEk dioenez: "Zoritxarrez, gauza bera ikusten dugu lurrikara guztietan, hildako edo zauritutako pertsonen hasierako kopuruak nabarmen egingo du gora aste honetan zehar".

Egoera horren aurrean, Europar Batasunak ez du zalantzarik izan Turkiarekin eta Siriarekin elkarlanean aritzeko giza hondamendiaren eta hondamendi sismikoaren aurkako borrokan. EBk berehala erantzun du, bilaketa- eta salbamendu-taldeak eskainiz eta Copernicus satelite-sistema aktibatuz, larrialdiko kartografia-zerbitzuak emateko helburuarekin.

Hala ere, estatukideen arteko elkartasun-printzipio hori ez da hain nabarmena gure mugetara gerratik ihes egiten duten siriarrek heltzen direnean. Siriako gerra jadanik hedabideetan apenas

azaleratzen ez den arren, milaka pertsonak beren herrialdeak atzean uzten jarraitzen dute, nazioarteko zuzenbideak jasotzen duen babesa eskaintzen dien estatu batera iritsi nahian. Hala ere, EBk pertsona horiei sarrera erraztu beharrean, *beroan egindako itzulketak* eta halako praktikak eramaten ditu aurrera, bere erantzukizuna kanpora ateraz, Turkiarekin 2016an egindako akordioaren antzera, Europar Batasunaren sorrera ekarri zuten balioak zalantzan utzita. Akordio horren bidez, *non-refoulement* printzipioaren urraketa zurrizteaz gain, Turkiak hirugarren herrialde seguru gisa duen presuntzioa ere hartzen da oinarri, EBk berak aldez aurretik ezarritako irizpideetako bat ere betetzen ez badu ere. 2016an errefuxiatu siriarren etorrera masiboaren ondorioz sinatutako akordio hori, beste hitzmate batzuen artean, 6.000 milioi euroren truke egin zen, EBk Turkiari emango liokeen dirua pertsona hauen eskubideak urratuko liritekeela jakinda ere, haien bizitzak arriskuan jartzeraino.

EBk, akordio honekin eta beste batzuekin, prezioa jarri die milaka bizitzari. Beraz, ez gaude errefuxiatuen krisi baten aurrean, EBko balioen krisi baten aurrean baizik. Ikusi beharko da zein jarrera hartzen duen Europar Batasunak Turkiak eta Siriak lehen orrialdeko berria izateari uzten diotenean.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA



AGAKO eta Lezetxiki izan dira eztabaidagai nagusi

Eguaztenean egin zuten otsaileko osoko bilkura eta, gai-zerrendan ez egon arren, AGAKOk eta Lezetxikik hartu zuten protagonismo handiena; horrez gain, euskararen aurkako eraso judiziala salatzeke mozioa onartu egin zuten, EH Bilduk aurkeztutakoa

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE AGAKOk hainbat kide osoko bilkurara joan ziren, herritar batzuen babesarekin. Hezetasunarekin, garbitasunarekin eta igogailuarekin dituzten arazoak direla eta azalpenak eskatu zituzten Udal Gobernuari. Izan ere, salatu dutenez, hark ez du prestutasunik eskaera horiei erantzuteko.

Maria Ubarretxena alkateak, ordea, azaldu zuen AGAKOk kideekin berriro elkartzeko atek zabalik dituztela. "Udalak badauka hitzarmen bat gaztetxearekin, eskubide eta betebeharrak batzuk jasotzen dituena. Gu prest gaude hitzarmen hori berriro aztertzeke, puntuz puntu begiratzeko ea betetzen diren, eta zerbait aldatu, gehitu edo kendu behar bada, hala egiteko".

EH Bilduko bozeramaile Mainer Morrasek, ordea, adierazi zuen eragileek prentsara jo behar izaten dutela Udal Gobernuak kasu egiteko eta, halaber, gazteekiko konfiantza falta bat duela Gobernuak. "Eskatzen ari direna da Udalak derrigor eman beharrek: segurtasun neurri batzuk, garbitasuna eta mugikortasun zailtasunak dituztenedako igogailu zerbitzua bermatuta egotea. Gure herriko gazteak, autogestioaren baitan, harreman normalizatua izan beharko lukete Gobernuarekin eta argi dago ez daukatela, bestela ez bailirateke osoko bilkurara etorriko".

Elkarrekin Podemoseko Eva Abuinek babesa adierazi zien AGAKOk kideei eta nabarmendu zuen gazteak bigarren mailako herritartzat dituela Gobernuak.

Arrizabalaga osoko bilkuran

Alvaro Arrizabalaga arkeologoak ere hartu zuen berba saioan, Lezetxikin gertatutakoaz haren iritzia emateko, alkateak hala eskatuta. Azaldu zuenez, horre-



Zutik jarrita egin zuten minutuko isilunea. E.A.B.

UDAL GOBERNUA PREST AZALDU DA AGAKO-REKIN DUTEN HITZARMENA PUNTUZ PUNTU AZTERTZEKO

lako azpiegitura guztietan kontrol arkeologikoak egiten dira, enpresa baten bidez, eta ez du uste salbuespena izango denik hau: "Eskatu beharko da txostena galeria horri emandako tratamendu arkeologikoa nolakoa izan den ikusteko. Gai honetan bi elementu positibo daude. Garrantzitsuena da ongi ezagutzen dugun esparru arkeologiko horretan ez dutela ezer ukitu eta ez duela ematen kaltetuko duenik, kalkulatu baitugu 400-500 metroko aldea dagoela. Bigarrenik, pozik gelditu naiz Lezetxikiren alde herritarrek erreazionatzen dutela ikusita".

Mozioa, onartuta

Era berean, euskararen aurkako eraso judizialak salatzeke mozioa aurkeztu zuen EH Bildu udal taldeak eta onartu egin zuen udalbatzak, EAJren eta Podemos

Arrasateren babesarekin. Sozialistek aurka bozkatu zuten.

Minutuko isilunea

Alderdi sozialistak hala eskatuta, minutuko isilunea egin zuten atzoko saioan, indarkeria matxistaren biktimen alde. Johana Sanchez Berdintasun zinegotziak hartu zuen berba: "Iaz, 2022an, 49 emakume erail zituzten haien bikotekideek [Espainian] eta aurreko dagoeneko hamar dira. Beraz, talde politiko guztiok uste dugu beharrezkoa dela egoera honi buelta ematea, horrela jarraituz gero gaizki goazelako. Lanean jarraitu behar dugu hau aldatzeko".

Monterronen etorkizunaz

Morrasek Monterron jauregiaren etorkizunaz galdetu zion Udal Gobernuari. Izan ere, haren asmoa da Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren egoitza izatea etorkizunean, eta diziplina askotariko eraikin bihurtzea. Morrasek gehitu zuen EH Bilduk gurako lukeela Monterron eraikin publikoak izatea, "herritik herriarendako proiektu bat, arrasatearrek erabiliko luketena, eta ez kanpokoek".

Mainer Morras izango da EH Bilduren alkategaia maiatzean

Arrasateko EH Bilduren zerrendaburua hautatzeko prozesua amaituta, bilkideek Mainer Morras Azpiatzuren hautagaitza berretsi dute maiatzeko udal hauteskundeetara. Halaber, lantalde osoaren diseinu eta harreman lanetan ari direla azaldu dute, "erlaldaketa, erakuntza, elkarlana eta ezkerreko politikak oinarri hartuta".



Mainer Morras. EH BILDU

Hondarribia kaleko eraikina erreferente bilakatzea gura dute

Gizarte bazterkerian dauden pertsonen zuzendutako 'Lan R Bai' programaren erabiltzaileek egokitzeko dute

E.A.B. ARRASATE

Arrasateko Udalak *Lan R Bai* programa indartu egin du. Hondarribia kalean daukaten eraikina erreferentziatzeko gura dute, eta, horretarako, hainbat egokitzapen egingo dituzte 2023an eta 2024an. Gainera, programaren erabiltzaileak izango dira lan horiek egingo dituztenak, programaren helburua baita erabiltzaileak formatzea eta lan-esparrura bideratzea.

Gizarte bazterkerian dauden pertsonen zuzendutako programa da *Lan R Bai*, 2019an sortu zenetik, 18-25 urte arteko gazteak gizarteratzeko helburua duena. Kalekka Elkartek dinamizatzen du eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Debagoieneko Mankomunitatearen babesa dauka. Egun, 60 erabiltzaile inguru dituzte, bi profiletakoak. "Bate-tik, heziketa arina behar dutenak eta Udalaren eskumenekoak

direnak; bestetik, Aldundiaren eskumenekoak, heziketa espezializatuagoa jasotzen dutenak", dio Maitane Muñozek, Garapen Komunitarioko zinegotziak.

Lehenik, oinarrizko lanak

Azken urteetan hainbat egokitzapen egin ditu Udalak, 110.000 euroko aurrekontuarekin, "irigarritasuna eta segurtasuna bermatzeko", bereziki. Gainera, ezarritako, esan moduan, erabiltzaileek egingo dituzte datozen bi urteetan. "Hoberen dagoen zatiarekin hasiko gara, margotzen eta elektrizitate arloko oinarrizko gauza batzuekin, eta baratze bat ere egingo dugu. Hori, 2023an. Datorren urtean, berriz, beheko zatia egokitzeko dugu, lan teknikoagoa eskatzen duelako eta profesionalen laguntza beharko dugulako", azaldu du Leire Garcia, Kalekka Elkarteko hezitzaileak.



Leire Garcia, Javier Jimenez eta Maitane Muñoz, eraikinaren kanpoaldean. E.A.B.



Otalora Lizentziaduna kaleko errepideko zirkulazioa; ezkerrean, auto bat aparkatzen. H.L.

"TAOk nabarmen hobetu du mugikortasuna"

Ibilgailu motordunak aparkatzeko ordenantza onartu eta urtebetera, zerbitzuari buruzko datuak argitaratu ditu Udal Gobernuak. Alkateak balorazio positiboa egin du: "Hiri-ingurunea erakargarriagoa da orain, herritarrentzako berreskuratu baitugu"

Hasier Larrea ARRASATE

Aparkaleku eredua aldatzea "apustu ausarta" izan zela adierazi dute asteon Maria Ubarretxena alkateak eta Ander Garay Ogasun zinegotziak, lehen erdigunetik "ibilgailu asko" mugitzen zirela-eta, aparkalekua bilatzeko garaian "fluxu handia" sortzen zutela kontuan hartuta. Berezi-ki hiru izan dira TAO ezartzean bete nahi zituzten helburuak: "Erdigunea herritarrentzako berreskuratzea, harremanak gauzatzeko gunea eskaintzea eta, aldi berean, erdigunera bertaratzeko ohiturak eraldatzea, bidegorriaren, garraio publikoaren edota igogailuen erabilera areagotuz".

Bilakaera zein izan den ikusita, "oinezkoari lehenetasuna eman diotela, aparkatzea errazagoa dela eta ingurumen ikuspuntutik iaz baino hirigune jasangarriagoa dugula" ondorioztatu dute. Azken argudio horri lotutako datuak, hau da, kutsadura-mailaren bilakaerari buruzkoak, "aurrerago" kalera-tuko dituzte.

Argitara eman dutena TAOren mantentze-kostuaren eta zerbitzuagatik jasotako diru-sarreraren arteko aldea da. Udalak 476.504,72 euroko kontratua sinatu zuen Gertek enpresarekin, eta hura arduratu da zerbitzuaren mantentzea kudeatzeaz. Erabiltzaileek, izan egoiliarren txartelen-

gatik -3.407 banatu dira, denera-, makinetan ordaindutakoagatik edo isunengatik, 383.581,11 euroko ekarpena egin dute. "Aurreikuspenak bete egin dira, 93.000 euroko defizita izan baitugu. Izan ere, legeak ez du baimentzen halako zerbitzuengatik superabitik lortzea, Udalak kobratzen duen tasetako bat delako; beraz, gehienez, gastuak estaltzeko lain jaso dezakegu", azaldu du Garayk.

"Sistema bizia"

2021eko abenduan jarri zuen Arrasateko Udalak abian TAO sistema, prozesu parte-hartzaile bat medio. Lehen bi hilabeteetako probaldiaren ostean, otsailaren

4an sartu zen indarrean. Ordutik, Udalak "gertutik" jarraitu du herritarrek zerbitzua zelan erabili duten eta aparkalekuetan ze doikuntza komeni zen egitea.

Hala, TAOren abuztuko etenaldia baliatu zuen Udalak herritarren ekarpenak eta udal teknikariek lehenetsitako egokitzapen-beharrak ezartzeko. Irailetik aurrera, gune urdin eta gorrian bi orduz doan aparkatzea baimendu zuten, gune berdeko prezioak jaitsi, TAO sisteman kale berriak sartu, mugikortasun urriko aparkalekuak doako bihurtu, Arrasateko gremioentzat txartel berria sortu eta etxebizitzetan hirugarren txartel bat eskatzeko aukera eman, besteak beste. Egokitzapen gehiago egitea ez dute baztertzen, "herritarren beharrak asebetetzeko".

93.000 euroko defizita

Gertek enpresarekin kontratua sinatzerakoan 80.000 euroko galera aurreikusi zuten urtebetean. 13.000 euro gehiagokoa izan da, azkenean.

Mantentze-kostua

• 476.504,72 euro.

Makinetatik jasotakoa

• 233.480,13 euro

Egoiliarren txartelak

• 107.995 euro.

Isunekin bildutakoa

• 42.105,2 euro



NIRE USTEZ

ITSASO ERRETOLATZA

Esku nagusia

Antzinatik gaude banatuta bitan, gorputzaren atalak lez ardatzetik erdibanatuta, bitan pentsamoldea eta klasifikazioa, onak eta txarrak, zuria eta beltza, karea ala hondarra... Esate baterako, eskuak.

Politikan eskuina da kontserbadorea, edo, bestela esanda, ezer aldatuko ez lukeena, klaseak bere horretan mantentzearen aldekoa. Eta ezkerria, aldiz, aldaketaren aldekoa, progresistatza jotzen da.

Eta gure buruak nola klasifikatzen ditu bere inkontzientean?

Bada, eskuina -erdaraz, behinik behin- zuzena, zuzenbidearekin lotuta, ondo dagoena, gehiengoak idazteko erabili ohi duguna, bidea zuzen egiten dakiena, eskubideak dituen, tentea. Ona ei da eskuina izatea!

Eta hara hor ezkerriari buruz gure buruak dioskua, ezohikoa, utzia -ingelesez-, siniestroia -italieraz-, bestea, txarra...

Hargatik pentsatuko du eskuin botereak berezkoa duela agintzeko dohaina, autobidean eskuinetik aurreratzen duenak modura, jende xehea ez dela kudeatzeko gai ustez eta aldaketak zailduz.

Irulegiko garaian zein zentzu izango luke eskuin eskuak?

Zatoz gu ezagutzera

**Eskola txikiak,
familia giroan**

**Deitu hitzordua
hartzeko.**

**Arrasateko
HAURRESKOLAK**



MUSAKOLA haurre eskola
Elkano 8 • Tel.: 943 79 13 03

BEDOÑABE haurre eskola
Alfontso VIII 1 • Tel.: 943 79 76 86

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



Antoniñan, Basolan programako langileak, Bastida Akademiako irakasleak eta Edurne Unamuno –Enplegu zinegotzia–. H.L.

Langabe izatetik espazio naturalak zaintzera

Basolan enplegu formakuntzako plan pilotua abiatu du, lehenengoz, Arrasateko Udalak. Hamar langabek baso-mantentzearen arloko prestakuntza jaso dute, datozen hamar hilabeteetan %65eko lan-jarduna betetzeko; Antoniña txukuntzen dihardute orain

Hasier Larrea ARRASATE

Lan-esparruan sartzeko oztipo handiak dituzten kolektiboetako langabeen prestakuntza hobetuz jartzen du arreta Basolan enplegu formakuntzako planak. "Kontua ez da soilik egoera kaltebera guztiak detektatzea eta babesa ematea. Enplegarriak diren kasuan, gizarte eta lan-bizitzari berriro lotzeko aukerak ere eskaini nahi dizkiegu; etorkizunean halako proiektuak garatzen jarraitzea da gure asmoa", azaldu du Edurne Unamunok, Udaleko Enplegu zinegotziak.

Proiektua sustatzeko, Eusko Jaurlaritzak Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuarekin egin dute lan, hark kudeatzen baitu europar Next Generation fondoen finantzaketa, Espainiako Gobernuaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren baitan. Hartara, Lanbidek 236.512 euroko ekarpena egin du -%77- eta Arrasateko Udalak 69.106 eurokoa -%23-. Beraz, orotara, 305.618

euroko aurrekontua du Basolan egitasmoak.

Bi hilabeteko prestakuntza

Urriaren 26an abiatu zuten proiektua, Arrasaten bizi diren eta Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrerera (BGDS) edota Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) jasotzen duten hamar herritarren parte hartzearekin.

Bi hilabeteko formakuntza jaso zuten Bastida Akademia zentroan, *Mendiak kontserbatzeko eta hobetzeko jarduera osagarriak* izeneko ikasgaia barneratuta. Prozesu horretan lehen mailako profesionaltasun-ziurtagiriko edukietan zentratu dira, baina "zeharkako formakuntza ere jaso dute, lanean aritzearekin eta lana

EKONOMIKOKI ETA SOZIALKI KALTEBERAK DIREN PERTSONAK GIZARTERATZEA DA PLANAREN HELBURUA

bilatzen laguntzeko orientazioarekin lotutakoa", Unamunok zehaztu duenez.

Urrira arte lanean

Fase hori gaudituta, ikasitakoa praktikan jartzeari ekin zioten duela zenbait aste. Horretarako, *Alternantziako formakuntza* kontratua luzatu zien Udalak, eta, horren arabera, urriaren 25era arte %65eko jardunean egingo dute lan. Udal jabetzako baso, erreka eta natura-guneen mantentzeaz arduratuko dira, Udaleko Landa-lurreko teknikariarekin koordinatuta.

Lehenengo esperientzia Zigarrolako begiratokian izan zuten, bertako lur eremuko sasitzak garbitzen. Gaur egun, auzo berean dihardute, Antoniñako espazioa txukuntzen ari baitira. Erreka eta lursail gehiagotan ere ibiliko dira aurrerantzean, naturaguneak itxuraldatzen, horietara hurbiltzea erakargarriago izan dadin. Eta onura pertsonalak ere jasoko dituzte, noski.



Oxel Apraiz eta Anuska Ezkurra, Musakolako baltokian. TXOMIN MADINA

Zigarrolako baltokia eremu irisgarri eta atsegina izango da

Datozen egunetan, lurak berdinduta, mahai, banku eta panelak jarrita eta ikurrina berrituta egongo dira

H.L. ARRASATE

Arrasatearrek 2021-2022ko arrekontu parte-hartzaileetan egindako eskaririk bozkatuena izan zen Zigarrolako begiratokia irisgarri eta atsegina egiteko proiektua. Udalak 11.500 euro –BEZ gabe– jarri ditu aisia-gune bilakatzeko; lanak K1 Ekopaisaia SLL enpresari esleitu dizkio eta joan den astelehenean ekin zion egitekoari. Behatokiaren inguruan lurak berdintzen dihardu, mahai eta bankuz osatutako bi eremu jartzen, ibilgailu motordunik ez igotzeko itxitura bat egiten bidearen hasieran, udal naturabide-sarearekin lotzeko bost seinale kokatzen, baranda eta panel informatiboak jartzen eta jada egokituta dauden bankua, masta eta ikurrina berritzen. Aurreratu dutenez, datorren asterako bukatzea espero dute.

Elkarlanarekin "pozik"

Anuska Ezkurra Udal Gobernuko bozeramaileak azpimarratu du Musakolako auzo-alkatearekin, eragileekin eta herritarrekin batera egin dutela lan: "Eskatu ziguten obra handirik ez egiteko, nahiago zutela ahalik eta esku hartze txikiena egitea, mendia eta natura errespetatuta. Funtsean, eremu naturala sortzea". Helburu hori lortzeko, tope batzuk jarriko dituzte bidearen azpialdean, oinezkoak bakarrik igo daitezkeen: "Etor gaitzen guztiok, etxeko txiki eta nagusienak barne, Arrasateko lur-eremu honetaz gozatzeraz".

Oxel Apraiz Musakolako auzo-alkatea irribarretsu azaldu da: "Zigarrolakoa den zerbait konpontzea lortzen dugun bakoitzean bezala; eta mendiko zerbait bada, arrazoi handiagorekin". Auzotarrak lasaiagoa daudela gaineratu du, "eremua ondo utziko dutelako eta esku onetan egongo delako, jakinda Udala arduratuko dela mantentzeaz".

Izan ere, gogoratu behar da Musakolako lagun talde batek eman ziola tontortxo horri begiratoki izaera duela urte batzuk eta ordutik konponketak ere euren egin dituztela.

Hemendik aurrera bisitari gehiago jasoko ditu, beraz, Kurtzetxikiko magalean, zehazki, autobideko obrei lotutako betetze batean, kokatuta dagoen Zigarrolako baltokiak: "Igo dila jendea, zahar eta gazte, Arrasateko bidez gozatzeraz!".



ARRASATE HERRI ESKOLA:

zuzendaria@arrasatehe.eus

HAUR HEZKUNTZA (2-5 urte)

BEDOÑABE

Alfonso VIII 1
Tel.: 943 79 20 69

MUSAKOLA

Elkano 10
Tel.: 943 79 04 49

LEHEN HEZKUNTZA (6-12 urte)

ERGUIN

Uribarri Auzoa 36
Tel.: 943 79 77 74

ARRASATE BHI:

zuzendaria@arrasatebhi.net

DBH (12-16 urte)

Elkano 24
Tel.: 943 89 94 78

BATXILERGOA (16-18 urte)

Santa Teresa 25
Tel.: 943 89 94 78

Bideoa ikusgai:



GOXOTASUNEZ ERAIKITAKO KALITATEZKO ESKOLA

→ MATRIKULAZIOA:
OTSAILAREN
13TIK 24RA

ORDUTEGIA:
09:00 - 18:00



Guztion eskola,
guztion artean

"Garaipen honek taldeari konfiantza emango dio"

IRENE DOLARA ARRASATE-EIBAR ERRUGBI TALDEKO JOKALARIA

Etxekoek ligako lehenengo garaipena eskuratu zuten domekan Gaztediren kontra (20-10); geratzen diren hiru partiduetarako bultzada emango diela uste du kapitainak

Xabier Urzelai Atxa ARRASATE

Zortzi jardunalditan partidurik irabazi ezinka ibili eta gero, joan den domekan iritsi zen esperotako garaipena. Vithas Gaztediren kontra Gamarran jokatuakoa joaneko partiduan 30-10 galdu zuten, eta oraingoan, Arrasate-Eibar taldekoek errebantxa hartu dute. Taldeko kapitainetako batekin izan da GOIENA, Irene Dolararekin (Arrasate, 1997).

Iritsi da ligako lehen garaipena.

Bazen garaia! Kar-kar.

Hain justu, etxean jokatu duzuen azken partidua irabazi duzue.

Pena apur batekin geratu nintzen, hain zuzen, partidua domekan jokatu genuelako eta ezin izan genuelako nahi moduan ospatu. Zapatuan izan balitz... Kar-kar. Egia da hirugarren denbora polita egin genuela, baina, lan kontuak tarteko, domeka zelako... ez zen gauza bera izan.

Klubak deialdi berezia egin zuen partidura begira...

Harmailetan oso giro polita egon zen, bai. Eta harmailtako animo-oihu horiek iristen dira zelairaino, bultzada ematen dute. Gainera, harmailtako asko klubeko kideak izaten dira, beteranoak, senior mailako gizon-nezkoak... Batzuetan, aholkuak ere ematen dituzte eta lagunga-

rriak izaten dira. Jatekoak ere jarri zituzten harmailtan; giro ona egon zen.

Zer aldatu da aurreko partiduetatik domekako garaipenera?

Lehenengo garaipena orain iritsi da, baina lehenago ere egin ditugu partidu onak. Gogoan dut, esaterako, Gaztedikoen kontra Gamarran partidu ona egin genuela. Hor ikusi genuen liga honetan lehiatzeko gaitasuna badugula, *klik* moduko bat egin genuen. Egia da ondoren partidu txarrak ere izan ditugula, moralki behean egon garela.

Garaipenak bultzada emango dizue?

Esango nuke baietz, taldeari honek konfiantza emango dio.

Hernaniren zelaian duzue hitzordua asteburuan; atzeko postuetan dagoen kontrario zuzenetako bat da.

Talde gogorra da, nekarazi egiten zaituen horietakoa. Saillkapenean atzealdean daude, baina... **Liga amaiera gogorra izango duzue.**

Bai. Begira, Bilboko Unibertsitatearen kontra ere partidu ona egin genuela esango nuke, baina talde ona da, bai, eta Bera Beraren kontra ere jokatu behar dugu oraindik. Horiek bai, horiek beste maila bateko taldea direla erakutsi zuten joaneko partiduan [0-71 galdu zuten]. Taldekide gazteak zituzten, baina baita esperientzia handia zuten beteranoak ere.



Domekako partiduen une batean, jokalariek mele baterako prestatzen. GOIENA



Irene Dolara, domekako partiduen ostean. GOIENA

Aurten Eibarko jokalariekin osatu duzue taldea; zer moduz?

Oso ondo. Aste barruan eguaztenetan elkarrekin entrenatzen gara eta ostegunetan ahalegintzen gara Unbera entrenatzera joaten. Egun horretan Ohorezko Mailako taldearekin batera entrenatzen gara eta egun horietan asko ikasten dugu. Esango nuke oso positiboa dela aurten Eibarrekin lortu dugun hitzarmena.

Taldean zenbat zarete?

Eibarkoekin batera 23 jokalarit inguru izango gara eta Arrasateko taldekoak, erdia. Eta klubean gaude arrasatearrak, baina baita aretxabalarak, bergararrak, oñatiarrak...

Zuk zeuk ez daramatzazu horrenbeste urte...

Ez, pandemian hasi nintzen errugbian jokatzeko. Bestela ere ezin zitekeen gauza handirik egin, eta kirola egiteko eta jende artean egoteko gogoia nuelako eman nuen izena. Klubetik deialdia egin zuten, emakumezkoen taldea sortu gura zutela,

eta anaiari esan nion nik ere parte hartu nahi nuela; halaxe hasi nintzen. Anaiak [Jokin Dolara] urteak daramatza gizonen senior taldean, baina, egia esaten badizut, lehen ez neukan zaletasun handirik. Eta orain, begira...

Horrenbestez, egonkortzen dabilen proiektua da zuena.

Uste dut baietz. Egia da ikasketak edo lan kontuak tarteko jokalarit bakoitzak ahal duena egiten duela, baina hor jarraitzen dugu. Eta taldeko ateak zabal-zabalik ditugu. Pentsa, ni 23 urterekin hasi banaiz errugbian... Astelehenean (19:30) eta asteazkenean (18:30) Mojategin izaten gara; horrenbestez, errugbian hasi nahi duenak Mojategira joan baino ez du.

"AURRETIK ERE EGIN IZAN DITUGU NEURKETA ONAK, BAINA ORDUA ZEN IRABAZTEKO"

Saioako karatekak ondo ibili dira Gipuzkoakoan

Gipuzkoako karate txapelketak jokatu zituzten joan den asteburuan Aretxabaletako Ibarra kiroldegian eta Saioa taldetik, guztira, zortzi karateka lehiatu ziren. Bada, Xavier Varteniuc -kadetea-, Iosu Madinabeitia -seniorra- eta Carlos Sanchez -beteranoa- nabarmendu ziren gehien: urrea jantzita itzuli ziren etxera.

Jardunaldi bikoitza du Mugarri Ingou eskubaloit taldeak

Azaroan atzeratu zuten partidu bat tarteko, Mugarri Ingou hitzordu bikoitza izango du asteburuan. Gaur, egubakoitza, Arrasatekoek Ormaiztegin jokatu dute (19:45) eta domekan, 12:00etan, Leizarango taldearen bisita izango dute Iturripen. Aukera ona dute saillkapenean apur bat gorago dauden bi taldeengana gerturatze.

Ardoi taldea hartuko du MU saskibaloit taldeak, domekan

Igoera faseko postuetan dagoen MUK atzealdean dagoen Megacalzado Ardoi taldearen bisita izango du domekan Iturripen (18:30). Arrasatearrek joan den astean 70-75 irabazi zuten Pas Pielagoson kontra eta azken bederatzi jardunaldietatik zortzi irabazi dituzte. Oraingoan, Getxo eta LBC Cocinas bakarrik daude aurretik.

Kanpanzar ART-k unibertsitariok hartuko ditu zapatuan

Saillkapenean kontrario zuzen diren Kanpanzar ART eta Bilboko Unibertsitatea errugbi taldeek elkarren kontra jokatu dute bihar Mojategin (16:30). Urte berria hastearekin batera hasi duten fasean bilbotarrak aurretik daude, baina bi puntuko alde baino ez dute. Fase berri honek hamar jardunaldi ditu guztira.

Euskal Herriko Mus Txapelketako partidak Iratin

Bihar, zapatua, Euskal Herriko Mus Txapelketako partidak jokatu dituzte Irati Topalekuan. Izena emateko, bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu. Hain zuzen ere, gogoratu behar da herri mailako kanporaketak jokatu dituztela otsailaren 26ra arte eta herrialdeko kanporaketak, berriz, martxoaren 11n izango direla.



Mertxe Madinabeitia, Maria Pilar Etxebeste eta Miren Gastañares, iazko Arrasate Blues jaialdian jasotako aitortza. E. AZURMENDI

Lehen pentagramako lehenengo notak gogora

Arrasate Musikalek jarraipena emango die 50. urteurreneko ekitaldiei datorren eguaztenean, musika eskolaren hastapenak gogora ekarrira. 1972an irakasten eta ikasten hasi ziren bederatzi lagunek berba egingo dute Kulturaten, 18:30ean

Hasier Larrea ARRASATE

Gipuzkoako lehen musika akademia izan zen Arrasate Musikal. Mankomunitatea eta Udaltzaingoaren egoitza dauden eraikinean eman zituzten lehen eskolak Piano ikasketen titulua zeukaten bederatzi maistrak. Horietako hiru dira Mertxe Madinabeitia, Maria Pilar Etxebeste eta Miren Gastañares. Euren

aurpegia ezaguna egingo zaie bati baino gehiagori, uztailen omenaldia jaso baitzuten Arrasate Blues jaialdiaren partetik, urte askoan herriko ehunka laguni musika irakasteagatik.

Bada, berriro irtengo dira jendaurrera otsailaren 15ean; kasu horretan, duela mende Erdiko kontuak partekatze. Kulturateko areto nagusiko oholtzak

baimentzen badu, orduko beste lau irakasleekin eta bi ikasleekin batera mintzatuko dira.

Udal Bandaren etenetik

Gogoan dute nola eskaini zieten irakasle lan egiteko aukera. Banda Munizipaleko musikariak joan zitzaizkien galdezka, eta taldea etenda zegoenez musikari berriak formatzeko gogoan

zutela aipatu zieten. "Batzuk ezkontuta geundenez, ez genuen ordainpeko lanik egiten, eta gustatu egin zitzaigun proposamena; musika irakasten jakin gabe eman genuen baiezkoa; solfeoarekin hasi ginen, eta ondoren sartu ziren pianoa, biolina, gitarra eta halako tresnak", azaldu du Etxebestek.

Irakasleei taloien bidez ordaintzen zieten eta lehen hamabost urteetan Gizarte Segurantzaren alta eman gabe aritu ziren. "1987 inguruan, irakasle gazteagoak sartu zirenean, Gizarte Segurantzaren sartzeagatik borrokatu ginen denok. ELAra afiliatu ginen eta abokatu batek paperak egin eta bidea erakutsi zigun; orduan jaso genuen lehenengo kontratua eta, goizez eta arratsaldean lan egin ordez, 15:00etatik 21:00ak arteko ordutegi finkoa ezarri ziguten", azaldu du Gastañaresek.

Azken orduan izaten ziren eskoletara helduak ere joaten zirela nabarmendu du: "Ohikoa zen aita eta semea talde berean egotea; nik pianoa jotzen nien, denek batera abesteko".

Oroitzapen onak

Lehen urteetan solfeoko azterketak Donostiako Kontserbatorioan egin behar izaten zituzten, baina, "ikasle asko" joaten zirenez, Kontserbatorioko irakasleak hasi ziren Arrasatera etortzen. "Eta, azkeneko, guri utzi zituzten ikasleak etsaminatzen; hala, baimena geneukan oinarritzko graduako titulua banatzeko", aipatu du Etxebestek.

Eskubide horretaz eta beste abantaila ugariz gozatu zuten 70eko eta 80ko hamarkaden artean. "Luis Sagasta presidentek ezagutzen zituen europar musikari ordezkariek, eta goi-mailako piano-jotzaileak ekarri ahal

izan zituen Gurea eta Amaia antzokietara. Arrasate Musikaleko bazkideei beherapena egiten ziguten kontzertuen sarretan", dio Gastañaresek.

Madinabeitiak "maitasun handia" jaso izan du ikasleen aldetik: "Sarri oparitu zizkidaten bonboi-kaxak eta antzekoak; behin, 75ean, 47.000 pezetako portzelanazko figurak ekarri zizkidaten Napolitik!".

Orkestrarekin bidaiak

Ikasleen testigantzak ere entzun ahal dira solasaldian; egungo presidente den Luis Usatorrenak, esaterako. 8 urte ingururekin eman zuen izena. Solfeo eskola eta azterketak nahiko gogorrak zirela esan du, baina, biolina ikasten hasi zenean, orkestrarako atea zabaltu zitzaizkion: "Ikasturte bukaerako kontzertua izaten zen orkestraren hastapenetako ekitaldi nagusia. Oso orkestra gazte gutxi zeudenez, inguruko herrietan eta kanpoko hirietan ere aritu ginen emanaldiak egiten; adibidez, Madrilgo Kontserbatorioaren 150. urtemugako ospakizunetan jo genuen. Uda batean, orkestrak irabazitako diruarekin ikas bidaia egin genuen Europan zehar; 18 urte neuzkan eta Parisen, Londresen eta Edinburgon egon ginen musika klasikoko kontzertuak entzuten".

Bistan da musika eskolaren bidez bizi izandakoek ematen dutela berriktaldi interesgarri baterako.

IRAKASLEEK SARRI JASOTZEN ZITUZTEN OPARIAK ETA IKASLEEK BIDAIK EGITEN ZITUZTEN

Kapazitismoaren aurkako borroka jardungo dute bihar

Morbor eta AGAKO kolektiboek Itxi Guerra ekintzaile antikapazitista gonbidatu dute gaztetxera, 2021ean argitaratu zuen *Lucha contra el capacitismo* liburuaren edukiez berba egiteko. Hitzaldia bihar izango da, zapatua, 12:30ean hasita.

Sistema kapazitista pertsona desgaituak desgaitu izate hutsagatik diskriminatzen, bortxatzen

eta hiltzen dituen delatzaileak du Itxi Guerra: "Sistema kapitalistak sortzen du kapazitismoa, pertsonak euren lan-indarraren bidez etekinak ekoizteko gaitasunaren arabera pentsatzen dituelako". Guerra zapalkuntza hori espeziismoarekin, patriarkatuarekin eta kartzelako sistemarekin lotzen ditu eta aztertzen du indarkeria horiek ze modutan erreproduzitzen diren, baita nola amaitu daitezkeen anarkismoa eta samurtasuna praktikan jarrita.

Muturreko metalaren jarraitzaileek hitzordua dute gaur

Billboko bi taldek –Conflict Noise eta HEX– eta Soutomaiorko (Galizia) Balmog taldeak kontzertua emango dute gaur, barikua, 21:30ean hasita, gaztetxean. Metal estiloaren adarrak lantzen dituzten bandak dira hirurak, Balmog-ek black metala lantzen baitu, Conflict Noise-k thrash eta death metala eta HEXek, death eta doom metala.

Arratiako rock-and-rollaz gozatuko dute Koolturen egunean

Pandemia aurretik Eskean Kristö izenez ezaguna zen boskotea hastapenetako estilo zuzen, gordin eta ganberroenera itzuli da, Kristonak izenpean. Iaz kalera-tutako *aHOBETEhORTZ* diskoan argi erakusten dute hori, eta zuzenekoetako betiko jarrera ez dute aldatu. Eta sinisten ez duena bertaratu dadila gaztetxera hilaren 16an, 22:00etan.

'Vuelta al país de Elkano' xehatuko du Ander Izagirrek

Kazetari eta idazle donostiarrak duela 500 urteko nabigatzaileen eta gaur egungo lanbide askotako pertsonen istorioak kontatzen ditu iaz argitaratutako liburuan. Gaztelaraz egingo du hitzaldia, Kulturaten, egunean, hilak 16, 19:00etan. Entzuleek ikusiko dute, besteak beste, nolako antzekotasunak dauden bi garaien artean.



lako Inauterietan, Katrinaz mozorrotutako kuadrilla. GOIENA

Mozorro lehiaketa egingo dute berriro ere

Otsailaren 18an, zapatua, ospatuko dituzte Inauteriak Aramaion. Herri bazkaria egingo dute aurten, eskolako jangelan, eta dagoeneko txartelak salgai daude udaletxean. Otsailaren 14ra arteko epea egongo da txartelak erosteko

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Inauteri giroa nabari da herriko kaleetan: gertu daude Inauteriak eta kuadrillak hasi dira mozorroak prestatzen. Izan ere, aurreten berriro ere egingo dute kuadrillen arteko mozorro lehiaketa. "Kuadrillak saiatzeko dira mozorroa prestatzen eta mozorro landuak eta politikak egiten dituzte", dio Kultura zinegotzi Ana Martiarenak.

Bada, prestatu bakarrik ez, erakutsi ere egin beharko dute zapatuko desfilean. Bazkalondoren izango da, 17:30ean, frontoitik plazara egingo duten kalejiran.

Izen-ematea zabalik da

Mozorro lehiaketan parte hartu gura dutenek izena eman beharko dute; horretarako, kultura etxean dauden orriak bete beharko dira eta udaletxean edo liburutegian entregatu. Mozorroak kategoriak sarituko dituzte. Taldeen kasuan, batetik, haurren kategoria egongo da: 90 euro

irabaziko ditu lehenengo talde sarituak eta 50 euro bigarren talde sarituak. Taldeek, gutxienez, lau lagunekoak izan beharko dute. Bigarren kategoria 14 urtetik gorakoena izango da: lehenengo saria 90 eurokoa izango da eta bigarrena 50 eurokoa. Taldekako sariez gain, beste sari bat ere egongo da: originaltasunaren saria. Taldeka edo bakarrik emango den sari bakarra izango da: mozorro originalenak 50 euro irabaziko ditu.

Txokolate-jana eta musika

Mozorro lehiaketa eta txokolate-jana plazan izango dira, 18:00etan. Ondoren, disko-festa egingo dute. Musika jartzen izango da Hazi Hezkuntza ani-

LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO, IZENA EMAN BEHAR DA UDALETXEAN EDO LIBURUTEGIAN

mazio soziokulturaleko enpresa. Musika, jolasa, dantza eta mugimendua uztartzen dituzte euren ikuskizunetan, gaztetxoek ondo pasa dezaten. Otsailaren 18an eguraldi txarra egingo balu, ekitaldiak frontoian izango lirateke.

Inauterietako herri bazkaria eskolako jantokian izango da, 14:30ean. Txartelak martitzenera arte eros daitezke, udaletxean, 17 eurotan nagusiek eta 10 eurotan 10 urtetik beherakoek. "Ez dakigu zenbat jende etorriko den. Azken urteetan ez denez egin, kuadrilla batzuek bazkaria elkartearen egiteko ohitura hartu dute", dio Martiarenak.

Martitzenean, txikiak

Martitzen arratsaldean Aramaio Herri Eskolakoak irtegarri dira kalera. Kalejira egingo dute, gai konkretu bati buruz mozorrotuta. Bestalde, arratsaldean, ludotekan maskara eta makillaje tailerrak izango dituzte gaztetxoek Hazi Hezkuntzakoekin.



NIRE USTEZ

MARIA IZAGA

'Stories'-ak

Testu hau orain dela bi hilabete idatzi nuen. Psikologari *stories*-ak ezkututzen dizkiot. Bai, egia da. Lehenengo galdera beharbada izan beharko litzake ea zergatik daukadan nire psikologoaren instagrama. Bigarrena zergatik jarraitzen dugun elkar. Ez daukat erantzunik ez baterako ez besterako. Baina egiten dut. Gurasoei txikitzen gaiztakeriak ezkututzen dizkiegun bezala, errieta bat ekiditeko nahian edo. Ez pentsa guztiak ezkututzen dizkiodanik eh, ez. Obsesio edo mania arraroren bat erakusten dutenak bakarrik, hurrengo zitan gai bezala atera ez daitezene eta horrela beste kaxoi bat zabaldu ez dadin. Horma-armairu elegantea geratzen ari zaidalako kaxoiz beteta.

Oso pozik agertzen naizenak ere ezkututzen dizkiot, beharbada beldurra ematen didalako ondo nagoela ikustek eta bere laguntza behar ez dudala esateak. Psikologoari *stories*-ak ezkututzen dizkiot, sekretu zikinak izango balira bezala. Berari ezkututzen dizkiot nik ez ikusteko.

"Megaproiektuen aurrean" erantzutea aldarrikatu dute

Aramaio Bizirik taldeak zabalduetako informazioaren arabera, zazpi aerosorgailu jarri nahi dituzte Aramaion

A.E.G. ARAMAIO

Statkraft enpresak Aramaion egin gura duen Itsaraz proiektuaz hausnartzeko eta horrelako proiektuen inguruko informazioa zalantzan jartzeko mezua zabaldu du Aramaio Bizirik taldeak. "Mundua deskarbonizatzearen izenean berriztagarrien megaproiektuak nonahi sortzen ari dira inolako kontrolik gabe, inolako planik gabe, beste erremediorik ez balego bezala. Baina hori horrela da?", diote oharrean. Aramaion eta Gatzagan sortu nahi dituzten proiektuen

aurrean "erantzuna eman beharra" nabarmendu dute, eta "berriztagarriak bai, baina horrela ez!" mezua gehitu.

Proiektua garapen fasean dago. "Eskatu dute haize neurgailu dorrea jartzea, eta hori tramite administratiboan dago; bestalde, txosten urbanistikoa eskatu dute, ebakuazio linea ateratzeko", dio alkateak. Aramaio Bizirik-ek zabaldu duen informazioaren arabera, zazpi aerosorgailu jarri nahi dituzte Aramaion: Asensiomendi, Danborralde eta Durakogain inguruan.



URIBARRIKO AUZOTARRAK

Santa Ageda ospatzen

Santa Ageda bezperan koplak kantari ibili ziren herrigunean eta auzoetan. Herriko hainbat eragilek antolatuta, 50 bat lagun batu ziren kantuan egiteko; bi taldetan banatuta ibili ziren. Bestalde, Uribarriko auzotarrak ere ibili ziren Santa Ageda eskean auzoan zehar; nagusi, gazte eta ume elkartu ziren koplak abesteko eta eguna giro onean pasatzeko.

"Txuleta izan da berezi egin gaituena"

EDURNE ISAZELAIA ETA DIONISIO ELORZA DUKIENA JATETXEO JABEAK

32 urteren ondoren, Dukiena jatetxea itxi egingo dute udan; izan ere, hura kudeatzen aritu diren Dionisio Elorzak eta Edurne Isazelaiak erretiroa hartuko dute

Mikel Zumalde Etxabe ARAMAIO

Hamaika bizipen eta milaka istorioren aterpe izan da 32 urtean Aramaioko Azkoaga auzoko Dukiena jatetxea. Azken txanpan sartuak daude; izan ere, udan erretiroa hartuko dute jatetxeko jabeak diren Edurne Isazelaiak (Arrasate, 1961) eta Dionisio Elorzak (Aramaiio, 1958). Leku historikoa izan da, erreferentziatzeko toki bat, eta, errelebo faltarengatik, uda inguruan ateak itxiko ditu establezimenduak. Jabeak "pozik" daude egindako lanarengatik eta eskerak eman nahi izan dizkiete jatetxetik urte hauetan guztietan pasatu diren guztiei. Hunkituta eta harrotasun puntu batekin, Elorzak eta Isazelaiak bizitzako etapa bati amaiera emango diote horrela.

32 urte; azkar esaten da. Nola baloratzen duzue ibilbidea?

Edurne Isazelaia: Urte asko izan dira eta egoera asko bizitzea tokatu zaigu, baina egiten dugun balorazioa ona da.

Dionisio Elorza: Denetarik egon da; momentu oso onak beste momentu eskas batzuekin uztartu ditugu. Garagartzako Fagor itxi zutenean eta Abiadura Handiko Trenaren inguruko obrak egiteko bide nagusia itxi zutenean, adibidez, asko igarri



Edurne Isazelaia eta Dionisio Elorza, Dukiena jatetxean. IRINA ALVAREZ

genuen bezeroen jaitsiera. Kostatu zitzaigun gertakari haien ondoren berriro bezeroak berreskuratzea.

Kolpe gogorra izan zen hura.

D.E.: Bai. 32 urte hauetan, momentu eskasena garai hartan izan zen. Apurtu egin gintuen, Abiadura Handiko Trena egiteko bide nagusia itxi egin zuten eta horren orde bide alternatibo eskas bat jarri zuten hona etortzeko. Jendeak hori ikusita etortzeari utzi zion, merezi ez zuelako. Momentu gogorak izan ziren, bai.

Dukiena jatetxea bapo bazkaltzeko edo afaltzeko lekua izan da beti; zerk egiten zaituzte berezi?

E.I.: Dudarik barik, txuleta izan da berezi egin gaituena. Horrez gainera, baina, etxean egindako frijituak eta etxeko gazta-tarta izan dira, nagusiki, gure espezialitateak.

Gazta-tartaren errezeta bere horretan mantendu da 32 urte hauetan.

D.E.: Hala da. Gazta-tarta etxean egindakoa da eta errezeta ez da aldatu 32 urte hauetan. Beste tarta batzuen errezeta ere ez

dugu aldatu ibilbide luze honetan.

Bezeroen aldetik zer jaso duzue? Esker ona eta maitasuna?

E.I.: Bai, eta gainera, beti. Momentu txarrik ez da egon bezeroen aldetik. Betidanik jarrera ona izan dute jatetxean eta ondo onartu gaituzte. Alde horretatik, oso eskertuta gaude bezeroekin. **Ibilbide luze honetan anekdota asko egongo ziren, seguru; badago ezer kontatzeko?**

D.E.: Garai batean, Baskoniako jokalariek etortzen ziren bazkaltzera domeka eguerdietan; gehienak, txuleta jatera. Velimir Perasovic etortzen zen sarri; oso pertsona jatorra eta berezia. Valentzian entrenatzen ari zenean ere etortzen zen.

Urte hauetan ikusi ditugu auzoetan hainbat jatetxe itxi direla; pena da, ezta?

E.I.: Pena da, bai, baina adinak ez du barkatzen. Jatetxeetako jabeek, gutxi gorabehera, antzeko adina dugu. Normala da ixtea, ez dago erreleborik. Gazteek ez dute nahi; izan ere, ordu asko sartu behar dira, lan asko egin behar da eta ulertzekoa da inork ez nahi izatea horrelako lekutara joatea lanera. Jatera bai, baina lanera inork ez du nahi.

Nola jaso dute auzoan albistea?

D.E.: Penaz. Auzoek horrelako leku bat behar dute, eta pena da, guztiontzat.

Hala ere, norbait animatzen bada Dukiena jatetxea kudeatzera, zuek prest egongo zinatekete erraztasunak ematera?

E.I.: Noski. Gure bizitza hau izan da eta gu oso pozik egongo ginateke norbaitek jatetxea hartuko balu eta aurrera aterako balu. Gu prest egongo ginateke laguntzeko.

Aurkeztu da inor jatetxea kudeatzeko borondatearekin?

E.I.: Gutxi batzuek erakutsi dute interesa eta kontaktuak izan ditugu pertsona batzuekin, baina oraindik ez ditugu proposamen formalak jaso. Jatetxearen goialdean bizi gara eta esku onetan utzi nahi dugu lokala.

Jatetxearen goiko partean bizitzak eragina izango du hurrengo jabeak aukeratzeko orduan.

D.O.: Noski. Ez dugu jatetxea edonoren esku utzi nahi.

Aurreratu dezakezue noiz itxiko den konkretuki?

E.I.: Oraindik ez dugu erabaki zehatz-mehatz. Segurua da uda aldean izango dela, baina oraindik ez dakigu maiatzean, ekainean edo uztailean izango den. Aurrerago erabakiko dugu.

Penarekin zoazte, ezta?

D.O.: Sentsazio kontrajarriak ditugu. Alde batetik, pena ematen digu ixteak, baina, beste alde batetik, nekea ere handia da. Lan asko egin dugu 32 urte hauetan eta, alde horretatik, nekaz gaude.

Bukatzeo, ez dakit ezer gehitu nahi duzuen.

E.I.: Nik, gehienbat, eskerrak eman nahi dizkiet Aramaioko herriari eta gazteei. Gazteek jarrera oso ona izan dute.

Seinalatuta egon den kolektibo bat aipatu duzu; gazteena.

E.I.: Guk geuk eskerrak eman nahi dizkiegu. Pandemia garaian egon ziren seinalatuak, bai. Baina pandemia igaro eta gero, oso jarrera ona izan dute jatetxean eta ohiko bezero bihurtu dira, gainera.

"GAZTA-TARTA ETXEAN EGINDAKOA DA ETA ERREZETA EZ DA ALDATU 32 URTE HAUETAN"

Gaur, kanporaketa erabakigarria jokatu da Zabolako elkartearen

Arabako Kuadrilla Arteko Bertsolari Txapelketako azken kanporaketa jokatu dute Aramaioko bi taldeek

Mikel Zumalde Etxabe ARAMAIO

Gaur, otsailaren 10a, Arabako Kuadrilla Arteko Bertsolari Txapelketako beste kanporaketa bat jokatu da eta bertan arituko dira Aramaioko Ibarra-ko Periferiak eta Tratamendu-

rik Gabeak taldeak. Lehenengo saioa galduta, gaur lortzen duten puntuazioa erabakigarria izango da hurrengo fasera pasatzen diren edo ez ikusteko. Lehiatzen lehena Ibarra-ko Periferiak taldea izango da eta

parean izango du Arabako Errioxako Txandrio. 22.30ean jokatuko da beste kanporaketa eta Tratamendurik Gabeak Aiaral-eko Altubepekoak taldeari egin beharko dio aurre.

Joan den asteko emaitzak

Otsailaren 4an, Aramaioko derbian, Izena Pentsau Bida nagusitu egin zitzaion Tratamendurik Gabeak taldeari. Egundakoa, Gasteizen aritu ziren bertsoan Ibarra-ko Periferia taldekoak.



Tratamendurik Gabeak taldea bertsotan joan den zapatuko kanporaketan. X.I.

Badator Txapel Txin Aratusteak girotzera

Mozorro festarako atzerako kontaktari ekingo diote zapatuan herritarrek, Txapel Txin Eguna ospatuta; musikak eta kalejirek girotuko dute egun hori eta berritasun bat ere badago: pregoia eguerdi partean egingo du pertsonaia ezagunak

Mirari Altube ARETXABALETA

Otsailaren 19a gero eta gertuago dago eta aretxabaletarrek bihar, zapatua, hasiko dute Aratuste-domekarako atzerako kontakteta. Txapel Txin pertsonaia ezaguna "gogotsu" etorriko da mozorro jaiaren berri ematera. Hori aurkezteko elkartu ziren astelehenean Udaleko Kultura Saileko ordezkari Ainhoa Cabero zinegotzia eta Inma Miguel teknikaria, Atxabaltako Karnabalen Lagunak eta txistulari taldeko eta Leizarra musika eskolako kideak, Txapel Txinekin batera. Jaietako kartela ere erakutsi zuten; lehiaketara aurkeztutako 41 lanen artean Luis Angel Argote gasteiztarak irabazi du.

Berritasun garrantzitsuarekin datorrela zapatuko festa iragarri zuen Karnabalen Lagunak taldeko Ibai Zangituk: "Jaia goizean hastea erabaki dugu, eta, horregatik, pregoia iluntzean beharrean 13:00etan emango da". Txapel Txinek izango du horren ardura, urtero legez, eta horrek herritar guztiak animatu zituen jaiaren parte hartzera, txapela jantzita.

Aratuste "normalak"

Aratuste "normalak" datozelako aurten pozik agertu zen Cabero: "Jaia erdizka bizi izan genuen iaz. Desfilea bai, baina beste



Kultura Saileko ordezkariak hainbat eragilerekin, Txapel Txin erdian dela. M. ZUMALDE

osagai batzuk falta izan ziren; adibidez, herri bazkariak. Horiek mila lagun bilduko dituzte berriro frontoian eta kiroldegian".

Leizarra musika eskolako ikasleek emango diete hasiera jaiari, Egubakoitz Argal eguna ospatuta. Ibarra kiroldegian egingo dute ikuskizuna eta ehun bat dantzarik hartuko dute parte, eskolako txistulari bandak eta gaiteroek lagunduta.

Aratuste-zapatuan ere izango da ekitaldirik. Bola-taldeak txapelketa antolatuko du, bolatokian; 16:30ean gatzetxoaren txanda izan-

go da eta gauean, 22:30ean, helduena.

Egun handia, baina, domeka da eta kuadrillek mozorroa erakutsiko dute orduan, desfilean parte hartuta; Txino dantzaren ondoren izango da hori. Arratsalde parte, ostera, Gesaltza txarangak, DJ Kia-k eta Santa Ageda neska-mutilek girotuko dute. Nerabeek aisialdiaz "modu osasungarrian" gozatzeko aukera ere izango dute; Bixi proiektuaren baitan *Laser tag* jokoa eta zombien gaian girotutako *escape room*-a eskainiko dizkiete.

Aratusteetako egitaraua

Txapel Txin Eguna

- **12:00** Kalejira, erraldoi eta gaiteroekin.
- **13:00** Txapel Txinen kalejira eta pregoia.
- **19:00** Elektrotxorongo elektrotxaranga.
- **20:30** Kontzertua Bixentak taldearekin, Mitarten.

Egubakoitz Argala

- **18:00** Ikuskizuna kiroldegian, musika eskolaren eskutik.

Aratuste-zapatua

- **16:30** Bola-txapelketa gatzetxoendako.
- **22:30** Bola-txapelketa helduendako.

Aratuste-domeka

- **10:00** Diana txistulariekin.
- **11:45** Txino dantza.
- **12:00** Desfilea.
- **13:00** Gesaltza txarangarekin kalejira.
- **16:30** *Laser tag*-a eta *escape room*-a nerabeentzat.
- **17:30** Txarangarekin kalejira.
- **18:00** DJ-Klren emanaldia, plazan.
- **18:45** Mozorro lehiaketaren sari banaketa.
- **19:00** Santa Ageda neska-mutilen dantza saioa.
- **19:30** DJ-Klren emanaldia, plazan.



NIRE USTEZ

MIKEL ARROIABERE

Ingurura begiratu gabe

James Wandersee eta Elisabeth Schussler botanikariek *landare itsutasunaren* kontzeptua atera zuten duela hogeitau urte. Haien arabera, hiri eta herrietako biztanleok landareekiko interesa galdu dugu; ikusi ikusten ditugu, baina ez gara gai espezieak izendatzeko. Landareekin bakarrik ez, animaliekin ere gertatzen ari da hori. Kaletxorien populazioa erdira jaitsi da azken berrogei urteetan eta, gure kaleetako ohiko biztanleak diren arren, ez gara horretaz konturatu.

Izarrekin ere antzeko zerbait gertatzen da. Izarrak hor goian daude, baina herrietako argiek estali egiten dituzte eta, ikusten ez direnez, jadanik inork ez du gora begiratzen.

Tunel baten sartuta gaude, antza, eta garrantzitsuena beste aldera lehenbailehen iristea da, ingurura begiratu gabe. Bizi erritmo honek gure inguruaren ezagutzan nabarmen eragin du eta ezagutzen ez dena zaintzea zaila da.

Ez naiz ni lezioak eman zalea; bakoitzak bere lehentasunak ditu, argi dago. Baina konturatu gabe aberastasun handia galtzen ari gara, eta hori pena da.

INPLANTOLOGIAKO ESPEZIALISTAK 3D TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55

Garikoitz Iturbe izango da EH Bilduren alkategaia

Hautagaiak eta zinegotzi izateko konpromisoa hartu dutenek "herrian lan egiteko beste modu bat" irudikatzen dute eta etapa berriari ekiteko "gogotsu" agertu dira

Mirari Altube ARETXABAETA

Maiatzaren 28ko udal hauteskundeeti begira osatuko duen zerrendaren buruaren berri eman du EH Bilduk; Garikoitz Iturbe Etxebarria izango da.

Delineatzailea eta ingeniari teknikoa da Iturbe formakuntzaz, eta zenbait enpresatan lan egingakoa. Txatxilipurdi elkarteko kide ere izan da hainbat urtetan. Gaur egun, Lanbide Heziketako irakaslea da eta metodologia berrien arduraduna Aretxabaleta Lanbide Eskolan. Herrian hainbat ekintzatan parte hartu izan duela eta eragile izan dela adierazi dute EH Bildutik: "Beti izan du sinisten duen horretan eragiteko gogoia eta hala egin du, umiltasunez."



Iturbe, zinegotzi taldea osatzeko proposatuko diren hainbat herritarrekin. EH BILDU

Alkategaia eta zinegotzi izateko konpromisoa hartutakoek "herrian lan egiteko beste modu bat" irudikatzen dute erronka berria, "herrigintzan aritzea ardatz" hartuta: "Gertutasunetik

herritarrek entzun, protagonista egin eta elkarrekin bidea egiten ahaleginduko gara, herritik, herriarekin eta herriarentzat". Eta gaineratu dute "arduraz eta gogotsu" ekingo diotela etapa horri.

Gazteleraizko literatura solasaldia eguaztenean Arkupen

Literatura solasaldiek bi hitzordu dituzte hilabete guztietan liburutegiak antolatuta: bata euskaraz –aste honetan izanda– eta bestea gazteleraiz. Eguaztenean, hilaren 15ean, Jhumpa Lahiri idazlearen *Tierra de costumbre* liburuaren bueltan elkartuko dira, Arkupen (18:00). Monica Leiva kazetariak gidatuko du.

Errendimendu eta Udaberri txapelketak aste bukaeran

Pilotari infantilek egubakoitzean (18:30) ekingo diote Errendimendu Txapelketaren bosgarren jardunaldiari –partidu bakarra– eta kadeteek eta nagusiek zapatuan (18:00) jokatuko dute Udaberri Sariari dagokion kanporaketa. Guztira, sei partidu izango dira Iturrigorri pilotalekuan asteburuan eta lau etxetik kanpo.

Kantari saioa grabatuko dute zapatuan Arkupen

Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Antzuolako umeei osatutako 34 talde elkartuko dira bihar, zapatua, Arkupen (16:30-20:30), zortzigarrenez egingo den Kantari saioa grabatzeko; hainbat talde eta abeslari ezagunen kantuak interpretatuko dituzte. Saioak otsailaren 25etik aurrera egongo dira ikusgai, Goiena telebistan eta *Goiena.eus*-en.

OHARRAK

Odol-ematea

Astelehenean autobusa jarriko dute odola emateko (09:45-13:00) Mondragon Unibertsitateko fakultatean.

Ipuin kontaketa

Onintze Goitizek 3 eta 6 urte bitarteko umeei ipuinak kontatuko dizkie eguaztenean (18:00), liburutegiko Txiki Txokoa.



Pausoka
haur eskola

0-3
urte

Etorri eta ezagutu!

Izen-emate epea: Otsailaren 13tik 24ra
Hitzordua hartzeko deitu.

943 77 03 77
pausoka.he@gmail.com
www.pausoka.eu

 619 44 95 97

Belorrieta 8 • 20550 Aretxabaleta

zeuria
zeuena
geuria



Senegalera bidaltzeko laguntzak ez du etenik

Afrikako herrialde ezaguneko Mbam eskualdean proiektu bat du abian Yaakar elkarteak; hainbat erakunderen eta herriko ikastetxeen laguntza jaso du horretarako eta datorren egunerako Kurtzebarri BHIko ikasleek jaialditxoa antolatu dute

Mirari Altube ARETXABALETA

Senegalgo Mbam eskualdean erditze ondorengo gela eraikitzen dabilta azken hilabeteetan. Bergarako, Eskoriatzako eta Aretxabaleako udalek Yaakar elkarteari emandako dirulaguntzei esker dihardute lanean. "Materiala erosi ahal izan da horrekin eta lanak dagoeneko hasita daude. Une honetan erdia inguru dutela eginda esan genezake", adierazi du elkar-teko presidente Amalia Ormaetxeak. Behin hori bukatutakoan, aurretik eginda duten osasun etxea osatuta geratuko da, amatasun gela ere egokitu zuten-eta hor.

Osasun etxe hori eta bertako eskola hornitzeko materiala bidali zuten Yaakarko kideek iazko urri inguruan. Debagoieneko Ospitaleak, Laboral Kutxak eta hainbat ikastetxek dohaintzan emandako materiala jaso zuten, eta edukiontzi batean bidali. Oraindik, baina, badute bidalketa horrek eragindako zor txiki bat; hori ordaintzen laguntzeko, Kurtzebarri BHIko ikasleek ekitaldi bat antolatu dute datorren egunerako, otsailaren 16rako.

Salmenta-postuak plazan

Jaialdia Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen ekimena izan da eta "gogotsu" dabilta

antolatzen, Ormaetxearen esanetan: "Ilusio handia dute eta gu pozik gaude erakutsi duten interesagatik". Bertsoekin eta dantzeekin osatutako ekitalditxo bat egingo dute, batetik, Lehen Hezkuntzako eraikinean, 18:00etan; eta, bestetik, salmenta eta mokadu postuak eta tonbola jarriko dituzte Herriko Plazan.

Ikastetxe guztietan izan dira proiektua aurkezten eta pozik agertu da egin dieten harrerarekin: "Lanbide Eskolan, Arizmendin eta Mondragon Unibertsitatean ere ezin hobeto hartu gaituzte; azken horiek, gainera, proiektu bat egingo dute guretako".

Hezkuntza Legea hizpide

Hezkuntza Legea zertan datzan eta zelan garatuko den azaltzeko gonbidatu zuen EAJK Hezkuntza sailburu Jokin Bildarratz. "Sistema osoari" gerturatuko zaion legea azken fasean dago eta nabarmendu zituen ekitatea eta bikaintasuna: "Doakotasuna, gazte guztiek dutelako hezkuntzarako eskubidea eta pedagogiaren eraldaketa kalitateari begira".



IÑIGO BARRENA

Zaintzaileen lanari aitortza

Zaintzaileek egiten duten lanari balioa eman gura izan diote ekitaldi batekin Aretxabaleta Lanbide Eskolan. Hitzaldia, ikasleen bizipenen kontaketa, musika eta bertsoak izan zituzten, "giro goxoan". 40 bat lagunek hartu zuten parte eta han izan ziren ALEko zuzendari Joseba Beristain eta Udaleko Gizartegintza Saileko zinegotzi Karmele Uribarri.



ARETXABALETA LANBIDE ESKOLA



Bihotzez ikasi

KURTZEBARRI ESKOLA haur eta lehen hezkuntza (2-12 urte)

OTSAILAK 11 GOIZEZ, BISITA GIDATUAK TALDE TXIKIETAN

HITZORDUA ESKATZEKO DEITU: 943 89 91 46
zuzendaritza@kurtzebarri.eus

*Banakako bisitak otsailaren 13tik 24ra

ZATOZ GU EZAGUTZERA!

MATRIKULAZIO EPEA
Otsailaren 13tik 24ra







Eskoriatzako ikastetxeetako haurrak Ibarraundi kanpoan atsedean hartzen, kantuan aritu ostean, Urdelardero Egunean. I.B.

Herrian zehar kantatzera, ziria janariz beteta dutela

Aurten, berritasun moduan, Arizmendi ikastolako Jose Arana guneko eta Luis Ezeiza Herri Eskolako haurrak batera irtengo dira adinaren arabera, herriko eremu ezberdinetara, 'Urdelardero' kantua abestera eta horren trukean gozokiak eskatzera

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Goiza pasatzeko ziria janariz beteta dutela eta baserriar jantzita, herriko kaleetan zehar arituko dira Eskoriatzako gatzetxoak otsailaren 16an, goizean, kantuan. Lehen Hezkuntzako ikasleak eta lehenengo eta bigarren mailetakook irtengo dira lehenbizi, 10:00etan; eta 10:30ean, berriz, Haur Hezkuntzakoak aterako dira, 3, 4 eta 5 urtekoak.

Adinaren arabera banatuta

Aratusteetako Eguen Gizenean ohitura da Eskoriatzan Urdelardero Eguna ospatzea. Orain arte, ikastetxe bakoitzak bere aldetik ospatu du; taldeetan banatuta, herriko hainbat txokotan aritu izan dira kantuan eta gozokiak eskatzen, baina aurten adinaren arabera banatuta arituko dira bi ikastetxeetako umeak elkarrekin. "Aurten lortu dugu bi ikastetxeetako haurrek batera ospatzea Urdelardero. Orain arte, bakoitza bere aldetik aritzen

zen, eta gero, Fernando Eskoriatza plazan elkartzen ginen. Aurten, berriz, adinaren arabera banatuta arituko dira, Eskoriatzako haur moduan, eta hori poztekoa da", adierazi du Maitane Gomez de Segurak, Luis Ezeizako irakasleak.

3 urteko haurrak Huhezi unibertsitate eta Dorleta auzo inguruan arituko dira; 4 urtekoak, Olaeta inguruan; 5 urtekoak, Santa Ana eta Olazar aldean; Lehen Hezkuntzako lehenengo mailako haurrak, aldiz, Jose Aranan nagusien egoitzan hasiko dira, eta gero, Manuel Muñoz kirolegiaren eremura eta Intxaurtxueta aldera joango dira; eta, azkenik, Lehen Hezkuntzako bigarren mailako haurrak

**11:30EAN, FERNANDO
ESKORIATZA PLAZAN,
TXISTOR-JANA IZANGO
DA BATZEN DIREN
HAUR GUZTIENTZAT**

Udal Bibliotekatik pasatu eta San Pedro eta Intxaurtxueta auzoetan arituko dira. Haur talde bakoitza bere eremuan aritu ostean, Fernando Eskoriatza plazan elkartuko dira, 11:30ean.

Txistor beganoa aukeran

Txistor-jana izango da Fernando Eskoriatza plazan haur guztientzat, nahiz eta zirian eramaten dutena janda zein gozokiekin tripa beteta, asko gose barik egongo diren. Hala, aurten txistor beganoa ere izango da, txerrikirik jan ezin duten horiek ere lasai jan dezaten.

Arratsaldeko ekintzak

Arratsaldean ere jarraituko dute Urdelardero Eguneko ekintzek. 17:00etan, Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoen *Petitxou* ikuskizuna izango da, Zaldibar antzokian. 18:00etan, Inauterietako dantza izango da, plazan, eta ondoren, txokolatea hartzeko aukera izango da.



IMANOL BELOKI

Espaloia konpontzeko lanetan

Antontxu bidea hasten den eremuan –Txalaparta tabernaren eta Huhezi unibertsitateko aparkalekuaren alboan– espaloia konpontzen aritu dira asteon. Bertan zeuden pitzadurak konpontzeko espaloia berria jartzen ari dira eta, bide batez errepidea gurutzatzen duen zebra-bidea ondo jarri eta berriz margotuko dute.

Arizmendik ez du udal zerbitzu gisa kudeatuko 0-3 urte artekoa

Eskaintza publiko moduan partzuergoarena izango da eta Arizmendik bere zerbitzu propioa garatu dezake

I.B. ESKORIATZA

Asteon, ezohiko osoko bilkura egin dute udalbatzako kideek gai bakarra tratatzeko. Hain zuzen ere, Haur Eskola 0-3 urte, Haur Hezkuntzarako lehenengo zikloa– udal zerbitzuaren jarduera amaitzea izan zen hartu beharreko erabakia. Aho batez onartu zuten.

"2000. urtean Eskoriatzako Udalak 0-3 urte bitarteko haurren udal zerbitzua eskaintzeko aukera ezarri zuen eta zerbitzu horretara beti aurkeztu da Arizmendi eta eurek kudeatu dute

gaur arte. Orain, 2023-2024ko ikasturtera begira adierazi digute udal zerbitzu moduan kudeatzen ez duela jarraituko", adierazi zuen Joserra Zubizarretak, Eskoriatzako alkateak.

Zubizarretak hauxe gaineratu zuen: "0-3 udal zerbitzurik ez da egongo, Partzuergoak eskaintako zerbitzu publikoa dugulako herrian. Hala ere, Arizmendik bere proiektu propioa garatu dezake; kontua da ez dutela Eskoriatzako Udalaren zerbitzua gisa kudeatuko; euren kabuz garatutakoa eskainiko dute".

OHARRAK

Martxoaren 8ra begira, bilera

Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldeak antolatuta, Emakumeen Nazioarteko Eguna prestatzeko batzar irekia egingo dute domeka honetan, 17:30ean, kultura etxean.

Hitzaldia: 'Pobrezia energetikoa'

Aretxabaletako eta Eskoriatzako Goienerko adituen eskutik, otsailaren 14an, Ibarraundin, 18:30ean.

'Telmorekin' sagardotegira irteera

Apirilaren 22an joango dira Iparragirre sagardotegira eta interesdunek *Telmonaiz* Instagram kontura idatzi dezakete. Izena emateko azken eguna otsailaren 15a da.



Aresko Saskibaloi Eskolako zenbait kide, asteen, Manuel Muñoz kiroldegian. IMANOL BELOKI

Emakumeen Martxarako izen-ematea zabalik da

Emakumei eta kirolari balioa emateko, Aresko Emakumeen Martxa izango da martxoaren 12an. Aurtengoa bosgarren edizioa izango da eta izena emateko sei euro ordaindu beharko dira; horretarako azken eguna otsailaren 12a da, domeka

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Aresko Emakumeen Martxaren eguna zehaztu dute Eskoriatza Kirol Elkarteak eta UDAko ki-deek. Martxoaren 12an izango da eta aste honetan eman dituzte bost urte beteko dituen egitasmoaren gaineko nondik norakoak. *Emakumeok bidea erakiz* lelopean egingo dute oinezko martxa eta Aretxabaletatik Eskoriatzarako bidea egitea tokatzen da aurten. Horrekin batera, aurreko edizioetan moduan, bi emakume omenduko dituzte: bata martxa hasieran eta bestea martxa amaieran. Hala ere, omenduak nortzuk izango diren aurrerago adieraziko dutela adierazi dute; oraingoz, izen-emate epea ireki dute.

Izena eman, eta kamiseta opari "Argitaratu dugu aurtengo kartela eta izena emateko aukera domekara arte dago zabalik. Sei euro balio du izen-emateak eta inskripzioarekin batera egunerako kamiseta bat jasoko dute

animatzen direnek. Aretxabaletatik Eskoriatzara egingo dugu aurtengo martxa eta herri baitoitzean emakume bat omenduko dugu: bata hasieran eta bestea amaieran. Bosgarren edizio honetako omenduak ez ditugu zehaztu oraindik, baina laster emango dugu horien berri", adierazi du Amets Sanzek, Aresko Saskibaloi Eskolako entrenatzaileak.

Izen-emateak Aretxabaletako Ibarra kiroldegian edo Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegian egin daitezke eta bertan zehaztu beharko da jaso nahi den kamisetaren neurria. "Kamisetak orain eskatu arren, martxoaren 12ko egitasmoan erabiltzeko izango dira, eta, beraz,

ARESKO EMAKUMEEN MARTXA ARETXABALETATIK ESKORIATZARA EGINGO DA AURTEN

egun horretan banatuko ditugu. Helburu nagusia, bestalde, emakumea eta kirola bateratzea da, emakumei balioa ematea, Aretxabaleta zein Eskoriatzako kaleak betetzea eta uholde moorea sortzea".

Aretxabaletatik Eskoriatzara Emakumeen Martxa Aretxabaletako plazan hasiko dute eta bertan omenaldia jasoko du kirolari lotuta egon den Aretxabaletako emakume batek. Gero, Eskoriatzara ibilaldia egingo dute, oinez, eta anoa-postua egongo da ibilbidearen erdialdean. Animaziorik ere ez da faltako, eta martxa Fernando Eskoriatza plazan amaituko dute. Bertan Eskoriatzako emakume batek jasoko du omenaldia.

Beste edizio batzuetan omenaldi ostean ez da bestelako ekintzarik egin, baina aurten, talde feministekin elkarlanean ez dute baztertzen ekintzaren bat egitea eta, hala, egitasmoa borobiltzea.



Noam Rouiller, Hugo Solorzano eta Kepa Maidagan, podiumean. KEPA MAIDAGAN

Maidagan hirugarren izan da Freeride World Tour Txapelketan

16 urtez azpiko txapelketan lehiatuta, Kepa Maidagan eskoriatzarrak hirugarren postua lortu zuen Baqueiran

I.B. ESKORIATZA

Munduko freeride txapelketa nagusia jokatu zen joan den aste bukaeran, Baqueiran. Eskiatzaile gazteak 500 puntu lortu zituen jaitsieran eta, haren jariora, teknika eta hartutako arriskua ebaluatu ostean, podiumera igo zen. Haren aurretik Hugo Solorzano baqueirarra eta Noam Rouiller suitzarra gelditu ziren.

Helburua ondo jaitea eta ez erortzea zela adierazi du Maidaganek, eta pozik dago. "Eguraldin kaskarra egin zuen asteburuan zehar. Egubakoitzean elurra eta lainoak izan ziren eta

zapatuan gauza bera. Azkenean, igandea oskarbi iratzartu zen eta jaitsiera lehen aldiz ikusi ahal izan genuen. Ondoren, zorionez, dena ondo joan zen. Nire helburua lehen 5-10 postuen artean gelditzea zen eta, azkenean, podiuma lortu nuen", adierazi du eskiatzaile gazteak.

Hurrengo urratsa

Datorren urtera begira, 16 urtez azpikoetan lehiatzeari utzi eta nagusiekin lehiatuko da: "Zailagoa izango den arren, lanean jarraituko dut, eta podium gehiagoren bila".



NIRE USTEZ

ARANTZA MIGUEL

Pobrezia energetikoaren aurka

Datorren astea Pobrezia Energetikoaren Aurkako Astea da. Aukera ona ezarrita dugun eredu energetikoa ezagutzeko. Hemen batzuek etekin lotsagabeak dituzte, guztion artean ordaintzen ditugunak, eta beste batzuek ezin justifikatuzko kalteak jasaten dituzte. FACUAk adierazi du sektore arrakastatsua dela eta justifikaziorik gabeko tarifa altuak aplikatzen dituela, eta Nazio Batuen Erakundeak, Energiaren Nazioarteko Agentziak eta Europako Batzordeak salatu dute energien gehiegizko jokabide hori, familia langileen kalterako dela. Etxeko ekonomiak okertzen duela adieraziz. Okerrena pobrezia energetikoa da. Oinarrizko eskubidea eskuratu ezin duten pertsonak bizitza duina izateko kanpo geratzen dira. Etxeko goxotasunean jan ezin duten haurrak, dutxa bat ezin dutenak hartu edo ezin dituztenak etxeko lanak egin... Politikariek onura horiek mugatu behar dituzte, gizarte-arrakalak saihesteko. Etorriko dira ipuinak. Sinetsiko al dituzu? Utziko al diezu modu horretan tratatzen? Mugi zaitetz pobrezia energetikoaren eta horri eusten dion ereduaren aurka.



1979ko kintada.



1989ko kintada.



1990eko kintada



1992ko kintada.



2000ko kintada.



2001eko kintada.



2005eko kintada; aurtengo Santa Ageda neska-mutilak talde argazkian. ARGAZKIAK: ESKORIAMATZAKO KINTADAK

Kinttaden Egun borobila, herri bazkariarekin estreinakoz

Kiroldegian herri bazkaria egin zuten bederatzi kintadak, baina beste hainbat kintadak ere izan zuten bazkaria

Imanol Beloki Unamuno ESKORIAMATZA Kinttaden Egunak ez du hutsik egin aurten ere. Hamaika urte pasatu dira ekintza parte-hartzaile hori martxan jarri zutenetik, eta adin askotariko eskoriatzarrak batu, bazkaria egin eta gero herriko tabernetan giroa izateko egitasmoak sugarrak piztu ditu oraingoan ere. Giro aparta izan da eta jendetza ibili da.

Estreinakoz herri bazkaria izan da Manuel Muñoz kiroldegian, Itzartu Gazte Taldeak eta Eingeinke egitasmoak antolatuta. Bederatzi kintada izan ziren bertan bazkaltzen –280 lagun–; tartean, aurtengo Santa Ageda neska-mutilak. Jana aparta izan zen, txotx egiteko aukera eta bapo bazkaldu ostean musika eta dantza. Hala ere, bertan batu ziren kintadez gain, bazkaltzen

ematen duten herriko taberna guztietan izan ziren kintaden bazkariak; Gure Ametsa jate-txera eta Maulandara herrigunetik irtenda joan ziren hainbat lagun, baita Aretxabaletako jatetxeren batera ere, kasuren batean. Gauzak horrela, ondo errotuta dagoen jaiegun horretarako Eskoriatzan bazkaltzeko leku gutxi daudela argi geratu da, baina herriko gazteek egoerari buelta ematen asmatu dute, eta mugarri bat sortu.

Amaitu da Kinttaden Eguna, baina Santa Ageda neska-mutilak azken hitzordua izango dute domeka honetan, 19:00etan, Fernando Eskoriatza plazan. Izan ere, dantzak egingo dituzte.



Aratusteetako herri-bazkarirako txartelak Labidean daude salgai. IMANOL BELOKI

Aratuste-zapatuko bazkarirako txartelak erosteko azken egunak

Otsailaren 18an ospatuko dituzte Aratusteak; jolasak, herri bazkaria eta DJa musika jartzen izango dituzte

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Leintz Gatzagan Aratusteak ospatzeko ekintza nagusia herri bazkaria izango da, azken urteotan moduan. Mozorroak jantzi eta, aurten berritasun gisa, kultura etxean elkarrekin bapo bazkaltzeko hitzordua izango dute otsailaren 18an, 14:30ean. Hala, herri bazkarira joateko interesa dutenek erosi ditzakete dagoeneko txartelak, Labidea denda-tabernan.

Herri bazkaria Leintz Gatzagako Udalak antolatu du eta, jakinarazi dutenez, horiek erosteko azken eguna domeka izango da; helduek 14 euro ordaindu beharko dituzte eta haurrek, berriz, 7 euro.

Egunari hasiera emateko, haurrei zuzendutako jolasak izango dituzte herriko gaztetxoek, Gurel Guraso Elkartearen eskutik. 11:00etan egingo dituzte, San Migel plazan. Gero, bazkaria

izango dute kultura etxean, eta, amaitzean, 17:30ean, zenbait urtetan bazkalostea girotzeko izan duten Dj Humberto izango da, beste behin, herritarrek girotzen.

Humberto DJa, klasikoa

Aratuste-zapatuko herri bazkarian batzen direnek, doinu dantzagarriekin ondo pasatzeko aukera izango dute. Humberto DJa izango da musika jartzen, eta, euskal abestien gain, bestelako kantuek ere entzun ahal izango dira. Beti bezala, gaztetxoek eurek nahi dituzten abestiak eskatu ahal izango dituzte eta Humbertok haien eskariak beteko ditu, baita gainontzeko herritarrek eskatzen dituztenak ere.

Musika entzutearekin batera, dantzarako tartea ere izango da; gatzagarrik ez dira lotsatuko, ez horixe.

'Hegoko iparra' kantua Shot! estudioan grabatuko dute

Zapatu honetan batuko dira Arrasateko Shot! estudioan Gatz Bidearen gainean sortutako *Hegoko iparra* abestia grabatzeko. 10:00etan hasi eta 18:00ak bitartean bertan egongo dira, eta honako hau izango da ordena: bateria eta baxua grabatuko dituzte lehenbizi; gitarra, pianoa eta buzukia gero; ondoren, biolina, txeloa eta fagota sartuko

dituzte; eta, tronpa eta bonbardinoa grabatu ostean, ahotsak eta haurren koruak grabatuko dituzte grabaketa amaieran.

Aitor Zilardegi izan da Eskoriatza eta Gatzaga lotzen dituen bidearen abestia konposatu duena eta bailarako hainbat musikarirekin egin dute kantua; tartean, lau gatzagarrekin. Pieza sortu aurretik zuten asmoa bideoklipa egiteko, eta, beraz, kantua estudioan grabatu ostean hori izango da hurrengo urratsa: irudiekin jantzea.



Beñat Irasuegi, Elena Herrarte, Nagore Ipiña, Ander Zangitu, Gorka Artola eta Maddi Aspiazu, Ehunduren bulegoaren atarian. J.B.

Ehundu: hariei tiraka segi nahi dute, sarea osatzeko

2021eko iraila ezkerro egindako bidearekin pozik daude Ehundu eraldaketa sozialerako ekimena osatzen duten eragileak eta orain arteko proiektuei eutsi eta berriak sortzeko hitzarmena berri dute; Udalak 50.000 euro bideratuko ditu egitaspora 2023an

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA 2021eko irailean sinatu zuten Ehundu eraldaketa soziala martxan jartzeko hitzarmena, diotenez, herritar talde baten kezkatatik abiatuta eta herritarren beharrei erantzun kolektiboa emateko espazio bat behar zela ikusita. Bergarako Udala, Debagoiena 2030, Mondragon Unibertsitateko Huhezi-Lanki eta

Olatukoop dira Ehunduren bidelagunak, Foru Aldundiaren babesarekin. Izan ere, lankidetzaren marko hau Diputazioaren Etorkizuna Eraikiz programaren barruan kokatzen da. Modu honetan, lankidetzaren publiko-komunitarioan oinarritutako proiektuak sustatzen jarraituko dute Ehundu barruko eragileek, "herritarren beharrak asetzeko

asmoz". Udalak 50.000 euro bideratuko ditu egitaspora 2023an.

Martxan diren proiektuak

Urte eta erdiko epean gauzatu diren proiektuak zerrendatu ditu Ehunduren bulegoan diharduen Ander Zangituk: "Harien bitartez sare bat eraikitzen hasiak gara. Energia burujabetzaren bidean Berener kooperatiba sortu dugu;

Elikadura Mahaitik burujabetza bide-orriaren sentsibilizazioan dihardugu; azokako proiektuan eta nekazaritza proiektuan ere bagabiltza; teknologian burujabe izateko urratsak egiten ari da Zibergara taldea; hezkuntzak Herri Hezitzaileak herrira etorri behar duten familiei enbaxadore lanak egiteko sare bat dugu; eta kulturatik agenda bateratua sortu dugu".

Bestalde, Ehunduk bulego fisikoa izatearen garrantziaz dihardu Zangituk; 2022ko urriaren 27an ireki zuten bulegoa: "Herritarren eta Udalaren arteko topagune bat da. Bertatik, herrian sortutako proiektuak bideratuko eta sustatuko dira; orain bertan Debagoieneko SOS Arrazakeria taldearekin batera migratzaileendako aholkularitza eskaintzen da; baita energia arloan ere, Berenerren bidez".

Pozik orain arteko bidearekin

Orain arte egindako bidearekin pozik, hitzarmena berritzeko testuingurua badagoela ikusi eta eguazten arratsaldean Ehunduk Mizpildi kalean duen bulegoan irudikatu zuten hitzarmenaren berritzea. Askotariko arloetan aritu dira lanean, Ehunduko presidente Maddi Aspiazuren arabera: "Gaurko eta biharko korapiloei aurre egiteko arlo ezberdinetan lanean aritu dira herritarrek: kultura, hezkuntza, energia, elikadura eta teknologia, besteak beste".

Gorka Artola alkatearen arabera, herritarren lekukoa hartu zuten Ehundu sortzeko: "Gure herriak sendo eta luze irauteko egitura kontsolidatuak behar ditu, lurraldeko beharrei eta erronkei lurraldetik erantzun zuzen egitura komunitario eta kooperatiboak behar ditugu.

Ikusten ari gara, beste hainbat proiektutan bezala, elkarlanak eta lan egiteko modu partekatuek aberastu egiten dituela proiektuak eta herritarrengana gerturatzeko gaituztela".

Sustapena eta aholkularitza

Debagoiena 2030 ekimenaren egiteko nagusia da Debagoienean garatzen diharduten eraldaketa prozesua Ehunduren bulegoarekin konektatzea, Elena Herrarte koordinatzaileak gogoratu duenez: "Energiaren arloan eskualde mailako sareak eta proiektu zein prototipoetako esperientziak partekatu eta elkarren osagarritasunak bilatzeko ardurua dugu".

MU-Huhezi-Lanki ikertegia formakuntza prozesuen, lan metodologiaren eta sistematizazio lanaren aholkularitza arduratzen da, besteak beste, eta Nagore Ipiña dekanok adibide batekin azaldu du zein den euren egitekoa: "Elikadura Mahaitik sustatu diren hainbat ekimenetan aholkularitza eman da, eta egitura komunitarioaren eraketan lagundu dugu eta laguntzen jarraituko dugu".

Olatukoop Beñat Irasuegik azaldu duenez, herritarren ahalduzkoaren baitan ekintzailerako kooperatiboa, ekonomia soziala eta tokiko garapena bultzatzeko formakuntzak jorratu dituzte. Aurrerantzean ere, norbanakoei eta proiektu kolektiboak abiarazi nahi dituzten herritarrei bide laguntza emango diete.

LANKIDETZA PUBLIKO-KOMUNITARIOAREN BIDEAN SAKONTZEKO ASMOA AGERTU DUTE BULTZATZAILEEK

Bost jarduera berri Jabekuntza Eskolaren bigarren epealdian

Otsailaren 24an egingo duten 'Feminismoa guztiontzat' ikastaroarekin hasiko dituzte maiatzera arteko saioak

J.B.L. BERGARA

Urritik urtarrilera bitarteko epealdia amaituta, Jabekuntza Eskolak otsailaren 24an emango dio hasiera maiatzera arteko bigarren epealdiari. Izan ere, otsailaren 24rako *Feminismoa*

guztiontzat ikastaroa antolatuko dute eta martxoaren 3an, 10ean, 24an eta 31n ere elkartuko dira, 17:30etik 19:30era, UNEDen. Idoia Eizmendi Aldasorok dinamizatuko du eta euskaraz izango da; tailerraren helburua da femi-

nismoaren oinarritzako kontzeptuak eta proposamenak modu erraz eta ulergarrian lantzea.

Bost jarduera maiatzera arte

Honako beste lau jarduera hauek osatuko dute maiatzera arteko eskaintza: martxoaren 2an (*Ez amatasunak ikuspegi feministik jardunaldiak* izeneko liburaren aurkezpena izango dute; martxoaren 4an, apirilaren 1ean eta maiatzaren 13an *Topalekuak emakume migratuentzat* izeneko saioak izango dituzte; otsailaren

27an, martxoaren 6an, 13an, 20an, 27an eta apirilaren 3an *Emakumeak eta adinkeria. Ez ditzatela zure ametsak ezabatu* izeneko ikastaroa izango dute; eta, maiatzeko, martxoaren 24an eta 31n, apirilaren 21ean eta 28an eta maiatzaren 5ean, 12an eta 19an *Argazkigintza eta emakumeak. Argazkilaritza dokumentala begirada feministetatik* izeneko ikastaroa antolatu dute. Izena eman daiteke udaletxera deituta edo *berdintasuna@bergara.eus* helbide elektronikora ida-

tzita, saio guztietarako. Doakoak dira saio guztiak.

Oso pozik lehen epealdiarekin

Urritik urtarrilera bitartean zazpi jarduera antolatu zituen Udaleko Berdintasun Sailak. Jardueren balorazio oso ona egiten dute antolatzaileek: "Askotariko formatuetako saioak izan dira, partaideek eta saioetako dinamizatzaile eta hizlariak oso ondo baloratu dituztenak". Hori bai, zazpi jardueretatik bat egin gabe gelditu zen.

4.600 euro batu dituzte Movember Gara egitasmoan

Azaroan egin zuten Movember Gara egitasmoaren baitan 4.600 euro inguru batu dituzte prostatako eta barrabiletako minbizien ikerketarako; 2021ean, 480 euro bildu zituzten. Azken urteetan egin duten bezala, CIC Biogunera bideratuko dute dirua.

Azaroan zehar hainbat jardura antolatu zituzten herritarrak gaixotasunaz sentsibilizatu eta ahalik eta azkarren detektatzeko helburuarekin. Horregatik, kirola, musikarekin lotutako ekitaldiak, hitzaldiak, Elorregiko topaketa eta mendi buelta egin zituzten, besteak beste. Horieta guztietatik, "kaleko girotzea" nabarmendu nahi izan dute antolatzaileek; batez ere, bertso-saioa, urteroko spinning-rock saioa eta azaro amaieran egin zuten bazkari girotua. Ekintzez aparte, zozketako txartelak saldu zituzten dirua lortzeko, baita kamiseta berriak kaleratu ere, eta, antolatzaileek jakinarazi dutenez, arrakasta handia izan zuten.

Hainbat jarduera Torturaren Aurkako Eguna dela eta

Otsailaren 13an, Torturaren Aurkako Egunean, bi ekimen antolatu ditu Gure Artera taldeak, *Itziarren seme-alabak Torturari begira* lelopean: alde batetik, *Bi arnas* dokumentalaren emanaldia egingo dute, hilaren 14an, arratsaldeko zazpietan. Ondoren, solasaldia izango da ikus-entzunezkoaren egile Imanol Arzuaga *Kima*-rekin eta atxiloaldian Guardia Zibilak bortxatu egin zuela salatu zuen eta erbestean 15 urte bizi izan den Nekane Txapartegirekin.

Bestalde, Olaso Dorrea Fundazioarekin batera hitzaldia egingo dute Iñigo Elkorok eta Joxe Aldasorok otsailaren 16an, arratsaldeko zazpietan, Olaso Dorrean bertan. Elkorok Torturaren Aurkako taldeko abokatu izandakoa da eta torturaren erabilpen politikoaren bueltan hitz egingo du; Aldasorok, berriz, lana aurkezteaz gain, gaiaren gaineko iritzia eman eta irakurketa laburra egingo du.

Egitarau betearekin datoz Aratusteak

Astebeteko epean askotariko ekintzak antolatu dituzte Aratusteak ospatzeko eta ez dira faltako urtero izaten den torradak nahiz pellak egiteko ikastaroa, sorgin dantza eta ohiko formatua berreskuratzeko duen Aratusteetako kontzertua, besteak beste

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA

Otsailaren 14an hasi eta 21era bitartean era guztietako ekintzak antolatu dituzte Bergaran Aratusteak ospatzeko.

Festa horiei begira egongo den lehenengo ekintza hain ohikoak diren torradak eta pellak egiteko ikastaroa izango da, hilaren 14an, Gure Ametsa elkartearen, Gorka Lobatoren eskutik. Otsailaren 16an, arratsaldeko zazpietan hasita, berriz, ohitura zaharrei jarraituz, sorgin dantza egingo dute Bergarako Musika eta Dantza Eskolako dantzari, txistulari eta trikitilariek. Eurekin batera aterako da kalera hartza domadoreekin eta herriko kaleetan barrena ibiliko dira.

Aratusteetako ohiko kontzertua Bergarako Musika Bandaren eta Orkestraren Aratusteetako kontzertuak ohiko formatua berreskuratzeko du; izan ere, 2021ean ez zen egin eta iaz koronabirusaren aurkako neurriek baldintzatu egin zuten. Emanaldia hilaren 17an izango da, 22:30ean, Udal Pilotalekuan. Sarrerak salgai daude, zortzi eurotan, Seminarixoko leihatilan eta www.seminarixoa.eus webgunean.

Bitan banatu dute emanaldia: lehen zatian, *Ihaurietako dan-*



Bergarako Musika Eskolako ikasleak sorgin dantza egiten, iaz. GOIENA

tzak, Alvamar overtura eta *Dance Party* joko ditu bandak; ostean, antzerkiaren txanda izango da, eta *Izarren gaua* izeneko lehiaketa da gaia. Bertan arituko dira antzezleekin batera Musika Banda, Orkestra, Aritzeta abesbatza, Debako Kulunka dantza-taldea eta zenbait abeslari.

Musika datozen egunetan

Aratusteetako zapatu arratsaldea Tximeletak txarangak alaituko du eta 20:00etan Basajaun taldearen erromeriak San Martin plaza girotuko du. Halaber, Pi-

rritx, Porrotx eta Marimototsen *Urteak bete, abenturak bizi!* ikuskizuna ikusteko aukera izango dute etxeko txikiek, 18:00etan, frontoian. Sarrerek sei euro balio dute eta Seminarixoko txarteldegian eta webgunean eros daitezke.

Domekan, hilak 19, Bergarako erraldoi eta txistulari bandaren kalejira ibiliko da kaleetan zehar.

21ean, Musika Eskolako Gazteen Bandak alaituko ditu kaleak, 16:30etik aurrera; eta 17:30ean, erromeria izango da San Martin plazan Gauargi taldearekin.

Aratusteetako egitaraua, osorik

Otsailak 14, martitzena

- **18:30** Torradak eta pellak egiteko ikastaroa Gure Ametsa elkartearen.

Otsailak 16, eguena

- **19:00** Sorgin dantza kaleetan zehar. Hartza irtengo da domadoreekin.

Otsailak 17, egubakoitza

- **22:30** Bergarako Musika Bandaren eta Bergarako Orkestra Sinfonikoaren Aratusteetako kontzertua.

Otsailak 18, zapatua

- **17:00** Kale-animazioa Tximeletak txarangarekin.
- **18:00** Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Urteak bete, abenturak bizi!* ikuskizuna Udal Pilotalekuan.
- **20:00** Erromeria Basajaun taldearekin San Martin plazan.

Otsailak 19, domeka

- **18:30** Bergarako erraldoi eta txistulari bandaren kalejira.

Otsailak 21, martitzena

- **16:30** Musika Eskolako Gazteen Bandaren kalejira.
- **17:30** Familientzako erromeria Gauargi taldearekin San Martin plazan.

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

Proiektuak · Koltxoiak
Horma-armairuak
Altzariak neurriera
Ateak · Eskailera ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

21
K
KALITATEA
Enpresa Registrada Nº001525

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62



Jardunaldi antifaxistetan parte hartuko duten hizlariak: Taibo, Lopez, Egaña, Sanchez Cedillo eta Etxarte. GOIENA

Faxismoaren "gorpuzte berria" ulertzeko saioak

Kartzela zaharrak eta Angiolillo liburutegiak jardunaldi antifaxistak antolatu dituzte, otsailaren 15ean hasi eta apirilera bitartean. Carlos Taibo, Axier Lopez, Iñaki Egaña, Raul Sanchez Cedillo eta Hedoi Etxarte gonbidatu dituzte hitzaldi bana emateko

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Otsailetik apirilera jardunaldi antifaxistak antolatu dituzte kartzela zaharrak eta Angiolillo liburutegiak. Antolatzaileen arabera, hilabeteak zeramatzen faxismoa gaitzat hartuta jardunaldiok antolatu nahian, faxismoa fenomeno sozial, ideologiko eta politikoa bezala aztertu eta hura borrokatu ahal izateko. Diotenez, 1920ko hamarkadatik 1970eko hamarkada amaiera arte forma politiko esplizitua izan ondoren, gizateriak bizi duen "zibilizazio krisi betean" berriz ere "botere politikoa" eskuratzen ari da faxismoa eta kezkatzen dituen inflexio-puntu baten aurrean daudela diote. Kezka horri erantzuna emateko antolatu dituzte jardunaldiok, "irakurketa partekatu eta eztabaida pizteko". Harago ere badoaz antolatzaileak: "Gaur egun faxismoa -diskurtsoa, eta praktika- non eta nola gorpuzten ari den aztertuko dugu. Mass medietan eta sare sozialetan erre-

sonantzia-kutxa duten eguneroko informazio jariatik zein diskurtso dira faxismoaren arragoan sortuak? Zein diskurtso dira egunerokoa bustitzen dutenak eta faxismoa normalizatzen dutenak? Antolakuntza aldetik fenomeno hau nola gorpuzten den jakin nahi dugulako sakondu nahi dugu gai honetan. Ustekabeak ahalik eta gutxien, eta txikiak izan daitezten".

Era berean, faxismoaren "gorpuzte berriaren aurrean" daudela adierazi dute eta fenomeno honen forma politiko berriak, mezu ideologikoak eta abar aztertze beharra ikusi dute. Hortaz, hainbat sektoretan antolatuak diren herritarrak -gazteak, feministak, langileak,

"ZIBILIZAZIO KRISI BETEAN" BERRIZ ERE "BOTEREA" LORTZEN ARI DEN FAXISMOA AZTERTZEA DA ASMOA

ekologistak eta adinekoak, besteak beste- "irakurketa komuna" egitera animatzen dituzte aurrean duten "mehatxuari" elkarrekin ekiteko.

Bost hitzaldi antolatu dituzte

Bost hitzaldi antolatu dituzte kartzela zaharrean. Lehen saioa hilaren 15ean egingo dute: Carlos Taibo idazleak *Ekofaxismoa. Begirada berri(tu) bat* liburua aurkeztuko du (18:30). Hurrengo hitzaldia hilaren 25ean izango da: Axier Lopezek *Gure Heroiak* liburua aurkeztuko du (18:30).

Martxoan beste bi hitzordu izango dira, baina datak zehazteke daude oraindik. Batetik, *Faxismoa Euskal Herrian. Iragana, oraina* izenburupean hitzaldia egingo du Iñaki Egaña eta, bestetik, *Esta guerra no termina en Ucrania* liburuaren egile Raul Sanchez Cedillo ere etorriko da. Apirilean, amaitzeko, Hedoi Etxartek Clara Zetkinen *Faxismoa. Begirada historikoa* liburua izango du berbagai.



Mikel Lete Txinturreta, Bergarako EAJren alkategaia. BERGARAKO EAJ

Mikel Lete da EAJren alkategaia udal hauteskundeetarako

62 urteko bergararrak "ilusio eta emozio handiz" hartu du jeltzaleen ordezkari izateko ardura: "Ohore handia da"

J.B.L. BERGARA

EAJk Mikel Lete aurkeztu du alkategai udal hauteskundeetarako. 62 urte ditu Letek eta "ilusio eta emozio handiz" hartu du kargua: "Ilusio eta emozio handiz hartzen dut ardura, herritar guztiei entzuteko gogoz eta Bergarak aurrera egin dezan lan egiteko konpromisoarekin". Onena emateko prest agertu da: "Ohore handia da Bergararen alde lan egiteko aukera izatea. Ekimen berriak sustatuz eta herritarren benetako parte-hartzea bultzatuz, modu aktiboan eta helburu bakar batekin: Ber-

gara hobetzea, bergararrekin hartutako konpromisoa betez eta haien beharrei erantzunez".

"Apaltasuna eta kementa"

Leteren "hurbiltasuna, apaltasuna, baikortasuna, akordioak lortzeko gaitasuna eta kementa" nabarmendu ditu EAJk: "Talde-lanean sinesten duen pertsona da. Entzuten dakiena eta Bergara maite duen eta konpromisoa adierazten duen pertsona; herrian gertatzen denaz arduratzen dena. Gainera, ondo ezagutzen ditu bergararrek euren egunerokoa dituzten arazoak".

OHARRAK

Imanol Ituñoren magia ikastaroa martxoan

Jardunek eta Udalak antolatuta, magia ikastaroa emango du Ituñok martxoan. Izena eman daiteke otsailaren 24ra arte: 605 71 24 69 edo jardunkultura@topagunea.eus. Prezioa: 55 euro Jarduneko bazkideentzat eta 60 euro gainerakoentzat.

Koldo Eleizalde lehiaketetako epea zabalik da

Lanak aurkeztu daitezke apirilaren 20ra arte: <https://euskara.bergara.eus/eu/koldo-eleizalde-lehiaketa>.

Aratusteetako kontzerturako sarrerak

Otsailaren 17ko kontzerturako sarrerak salgai daude oraindik, www.seminarixoa.eus atarian.

Kukubaso: bertako zuhaitzen landaketa

Hilaren 25ean Gorlako kantineko aparkalekuan elkartuko dira (10:30). Izen-ematea zabalik dago: kukubasoelkatea@gmail.com.

Argazki erakusketa Aroztegi aretoan

Dark Red Team elkarteak *Meazuri. Argiak eta koloreak. Iraganera bidaia* izeneko erakusketa irekiko du gaur, otsailak 10, Aroztegin. Hilaren 26ra arte egongo da zabalik.

"Aurreikuspenak zeharo gainditu ditu proiektuak"

AITOR ALDANONDO HARRIA TALDEKO KIDEA

Jaioterrian aurkeztuko du Harria musikari ezagunak, ondoan "sekulako taldea" duela. Sarrera asko saldu dituzte gaurko kontzerturako; Seminarixoa izango da, 20:00etan

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA

Musika ibilbide luze bezain arrakastatsua egin ostean, haren proiektu pertsonalena den Harria zuzenean aurkezten dihardu Aitor Aldanondok (Bergara, 1978). Gaur etxean joko du, Seminarixoa (20:00): "Berezia izango da".

Ataunen aurkeztu zenuten Harria, hilaren 4an; zer moduz?

Oro har, ondo. Arazo teknikoren bat izan genuen, Maitanek afo- nia puntu batekin abestu zuen, egiten zuen hotzak eraginda, eta, lehen zuzenekoa izanda, hotz samar hasi ginen, baina gero, asko disfrutatu genuen.

Zure proiektu pertsonalena publiko aurrean lehen aldiz aurkeztea berezia izango zen...

Bai. Txapa Irratirako jo genuen behin kartzela zaharrean, baina *petit comité* izan zen. Ataungoa izan zen publiko zabalari eskainitako lehenengoa eta berezia izan zen, berria; ez genekien ondo funtzionatuko zuen...

Harrera aldetik ezin zarete kezatu.

Inondik inora ere ez. Ez dugu inongo promoziorik egin eta Harria sekulako bidea egiten ari da zuzenekoa eman aurretik. Hainbat komunikabidetatik deitu gaituzte, atzean inongo enpresa diskografikorik izan barik; horrek harritu gaitu. Taldeko kideak ezagunak izan gaitzek gure aurreko proiektuengatik, baina erabateko *underground*-etik etorrita harritzekoa da hartu duen bidea. Oso pozgarria da. Bestalde, inguruko eta ez hain inguruko jendeari asko gustatu zaio diskoa. Harrera ezin hobea izan dugu orain arte; ea zuzenekoak nola doazen orain...

Gaur etxean joko duzue; urduri?

Berezia izango da, Seminarixoa lehen aldiz joko dut kontzertu batean [lagun duen Aitor Borobia aktorearentzat kolaborazio bat egin zuen *Punkowsky* obran]. Lehen, pentsaezina zen, baina orain, posible da baldintza duintan jotzea herriko areto batean.



Harria taldeko gidari Aitor Aldanondo bergararra, asteon. A.A.

"EZ DAKIT NOLA, BAINA SEKULAKO MUSIKARIAK DITUT ONDOAN; TXARRENA NI NAIZ TALDEAN..."

Areto ederra da eta sarrera mordoa saldu dira dagoeneko. Lagunak eta familia bertan egongo dira; tartean, laster 2 urte egingo dituen alabak lehen aldiz ikusiko ditu gurasoak oholta batean. Politia izango da, ziur. Gainera, zutik ikusteko kontzertua izango da eta, Danbakaren antzera, barratxo bat egongo da areto barruan. Kontzertu batean trago bat hartzeko aukera egotea ezinbestekoa da.

Zeintzuk igoko zarete oholtzara?

Harria sortu genuen Guille Sanz [bateria], Ekaitz Aranberri [gitarra], Maitane Azkarate [ahotsa] eta nitaz aparte, gaur Fly Shiteko Asier Elorzak baxua hartuko du, Mondo Infielko Adolfo Alcocerrek gitarra eta Fredy Pelaezek teklatura; teklatur-jotzaile bezala erreferentia da Pelaez Euskal Herrian. Zazpi lagun egongo gara gaur agertokian.

Ondo babestuta zaude, ala?

Sekulako taldea daukat ondoan. Ez dakit nola lortu dudana hala musikariak izatea nire inguruan. Taldeko txarrena naiz ni... **Hil edo bizi tour-eko bigarren geltokia izango da gaurkoa; ze beste geltoki izango dituzue?**

Otsailaren 25ean, Azkoitiko Matadeixen joko dugu; martxoaren 11n, Igorreko Kiñu gaztetxean; apirilaren 1ean, Oñatiko gaztelekuan; apirilaren 23an, Bilboko Itsas Museoko taberna den Nave 9-n; eta ekainaren 9an edo 10ean, Bergarako Ekinez jaialdian. Uztailan eta abuztuan oporrak hartuko ditugu eta irailtik aurrera... ikusiko dugu.

Harria orain ari zarete aurkezten, baina abestiek badituzte urte batzuk...

Gaur egun Harriako abesti direnetako asko aspaldi sortuak dira. Oinarria bazegoen, pandemian abesti berriak gehitu ziren, Aranberri abesti pare bat ere ekarri zituen... Horiek eta azken hilabeteetan sortutakoekin osatu dugu diskoa. Hitzak egitea berria izan da niretzat eta, zaila izan arren, gustura geratu naiz. Aurreikuspenak zeharo gainditu ditu proiektuak; ikusiko dugu haizeak nora garamatzen.



Ikastaroak iragartzeko prentsurrekoa Musika Eskolan astelehenean. EKI LETONA

Ohiko eskaintzaz gain, ikastaro interesgarriak Musika Eskolan

Zortzi tailer antolatu dituzte askotariko adin eta gustuei begira; izena eman daiteke otsailaren 22ra arte

J.B.L. BERGARA

Ohiko eskaintzaz haragoko ikastaroak antolatu dituzte Musika Eskolan aurten ere. Zortzi ikastaro antolatu dituzte Udalarekin eta San Joxeperekin elkarlanean; izena eman daiteke otsailaren 22ra arte: 943-76 57 80 edo 679 15 45 12 edo idadzkaritza@bme.e-telefonica.net.

Terapia eta gozamina

Musika familiar izenekoa Maitte Vicuña musikoterapeutak sortu du. Gordon metodoa erabilita, abestia, dantza eta perkusio txikia ditu oinarri eta 1 eta 4 urte arteko umeendako da; ume bakoitzarekin guraso batekin joan beharko du. Martxoaren 11n, 18an eta 25ean izango dira saioak, 11:00etatik 11:40ra.

Musikaz gozatzen ikastaroa berriro antolatu dute; Orf eta Willemsen metodoak oinarri, gorputza eta ahotsa erabiliko dira musikaz gozatzeko. Leire Ugarte izango da irakaslea eta martxoaren 10ean eta 17an izango dira saioak, 11:15etik 12:15era, San Joxepe erretiratuen etxean. San Joxeperen egoitzan egingo beste ikastaroetako bat *Opera bat: ikusi eta entzun*, *Don Giovanni* izango da; bi saio izango dira, martxoaren 16an eta 23an, 18:00etatik 19:00etara. Valen Moñux izango da hizlaria.

Oinarritzko pandero ikastaroa ere badago, 14 urtetik gorakoentzat. Bi saio egingo dituzte, Mireia Ibaberekin, apirilaren 22an eta 29an, 09:30etik 11:00etara. *Peñaparda* izeneko ikasta-

roan pandero karratua probatuko dute; gero eta gehiago erabiltzen den instrumentua. Hain zuzen, Maixa Lizarribar trikitilari, abeslari eta pandero-jolea izango da irakaslea. Saio bakarra izango da: apirilaren 22an, 11:00etatik 12:30era.

Dantzak eta DJ aditua

Dantzaz eta koreografiak ikasteko ere aukera egongo da, *Plaza dantzak* ikastaroarekin. Aurten ere Natxo Montero izango irakaslea; eskolak martxoaren 4an, 18an eta 25ean izango dira, 10:30etik 12:30era. Ikastaroa amaitzeko, apirilaren 1ean, Eingo taldearekin egingo dute dantza, Seminarioan. Ikastaro berrietako bat izango da *Kontrabaxua jo nahi?* "Instrumentu berezi hori" jotzeko oinarritzko ikastaroa izango da, ez da-eta askorik ikusten azkenaldian, eta Bergarako Bandan eta Orkestran jotzen dute. Pablo Alvarez izango da irakaslea eta ordu erdiko eskola indibidualak izango dira otsailaren 25ean eta martxoaren 4an, 11n eta 18an.

Amaitzeko, gazteenei begira, DJ eta *scratch* ikastaroa ere antolatu dute, Zigor DZ DJarekin; apirilaren 3an izango da, 19:00etatik 20:30era.

IZEN-EMATEA HILAREN 22AN ITXIKO DUTE ETA TAILERRAK MARTXOAN ETA APIRILEAN IZANGO DIRA (943 76 57 80)

Probak egiten dabilta autokarabana-gunean

Lapatza alboan eraiki dute eta zenbat autokarabana sartzen diren aztertzen dabilta, araudia egitearekin batera. Halere, proiektua behin-behinekoa da; bidegorriko lanak amaitzean, alboan den gas depositua kendu eta gunea handitzea da asmoa

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria ANTZUOLA

Hainbat dira herrian aparkatuta egoten diren autokarabanak, baina, aparkalekuan sortu ditzaketen oztopoak-eta direla medio, autokarabanentzako aparkalekua egin dute Lapatza baserriaren pean, GI-632 erre-pidearen bazterrean.

Lanak egin aurretik, ordea, herriko hainbat gune aritu dira aztertzen, baina horren aldeko hautua egin dute, Beñardo Kortabarria alkateak adierazi duenez. "Udalarena da lurra, oinez joateko ere aproposa da hilerri alboan dagoen bidetik, pixka bat txukundu beharko den arren; horrez gain, sartu-irtenak egiteko ere egokia da".

Gaur-gaurkoz, hesiz inguratuta dago gunea eta probak egiten dabilta bertan; besteak beste, zenbat autokarabana sartzen diren jakiteko. Alkatearen arabera, zazpi-zortzi ibilgailurentzako lekua dago eta erabiltzaileek jarraitu beharreko araudia osatzen dabilta. Hala, lurralde batzordean aurkeztuko dute, lehenbizi, eta, ostean, osoko bilkurara eramango dute proposamena; hasiera batean, otsailaren 28kora. Dena den, asmoa da gunea erabili nahi dutenen artean zozketa egitea,



Lapatzako autokarabana-gunea; hesi batekin itxi dute. Atzean, gas depositua. A.R.K.

hasieran, behintzat, denentzako lekurik egongo ez dela ondorioztatuta, eta euretako bakoitzari giltza bana ematea.

Behin-behinekoa da

Izan ere, proiektua behin-behinekoa da; baliteke eremua han-

UDALARENA DA LURRA, "EGOKIA" OINEZ JOATEKO, BAITA SARTU-IRTENAK EGITEKO ERE

ditzea. Gasaren depositua hor baitago, baina Antzuola eta Bergara arteko bidegorriko lanak amaitzean ez da horren beharrik izango eta kendu egingo dute. "Gas naturalaren kanalizazioa egingo da orduan; beraz, depositua kenduta aurreikusten dugu ingurune osoa moldatzea autokarabanentzat".

Kortabarriaren hitzetan, bidegorriko lanei dagokienez, Galartza barrenetik Bergararainoko zatia egitea falta da oraindik eta espero da lanak 2023an egitea.

Musak baditu irabazleak: Ander Aranburu eta Jon Etxezarreta

Miren Iturberen eta Jesus Kortabarriaren aurka aritu dira; Gipuzkoako faserako igarotzeko txartela eskuratu dute

A.R.K. ANTZUOLA

29 bikotek hartu dute parte Antzuolako Mus Txapelketan. Ur-tarrilaren 14an egin zuten lehen kanporaketa, eta, ordutik, beste bi egin dituzte. Hala, zazpi bikote sailkatu ziren azken faserako, eta joan den domekan jokatu zen finala, otsailaren 5ean, Ongi Etorri jatetxean.

Finaleko azken fasean aritu diren bi bikoteez gain, parte hartu dute Markel Letek eta Gorka Etxezarretak, Ion Iturbek eta Mikel Lizarazuk, Asier Unamunok eta Mikel Gabilondok, Anselmo Martinezek eta Serafin Vicentek eta Andoni Rodriguezek eta Jesus Moraisek.

Gipuzkoakorako txartela

Lehenengo eta bigarren postuetan gelditu diren bikoteek Euskal Herriko Mus Txapelketarako sailkapena lortu dute, Gipuz-



Irabazleak, finalean. JESUS KORTABARRIA

koako faserako. Horrez gain, baina, Letek eta Etxezarretak eta Iturbek eta Lizarazuk ere eskuratu dute.

Hala, antolatzaileek eskerrak eman dizkiete laguntzen aritu direnei, sari banaketa ederra egin zela nabarmenduta.

Basoen kudeaketaz jardungo du Basotik fundazioak egunean

Antzuolako EAJk antolatuta, Jon Ander Ostolaza Basotik fundazioko zuzendariak hitzaldia egingo du egunean, hilaren 16an, Gipuzkoako basoen kudeaketaren eredu berri batez hitz egiteko. Olanen etxean izango da, 19:00etan.

Hain justu, Gipuzkoako Foru Aldundiak abiatutako proiektu bat da eta helburua da lurraldeko baso-jabeei aukera ematea lurraren jabetzari eutsiz euren basoak lagatzeko eta zaintza, kudeaketa eta komertzializazioa eskuordetzeko, kontrapartida ekonomiko baten truke. Uste baitute gaur egun jabetza horietako zenbait ez direla errentagarriak, hala nola jabetzaren tamaina txikia delako, belau-naldi erreleborik ez dagoelako eta banda marroiaren gaixotasunak eragina izan duelako intsinis pinuetan.

Era horretan, fundazioak Gipuzkoako baso kudeaketa indartuko duen epe luzerako apustua egin nahi du.

Tomaxen abenturak ezagutzeko aukera Inauterietan

Inauterietan, otsailaren 17an, *Tomaxen abenturak* ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da Torresoroa aretoan. Mutil inozentea baina jatorra, alai eta dibertigarria da, eta alboan izango du Muxi laguna. Hala, bi emanaldi egingo dituzte, 17:00etan eta 18:30ean, eta sarrerak liburutegian jarriko dituzte salgai hilaren 13an, bost eurotan.

OHARRAK

Sorgin dantza

Bihar egingo dute entsegua. 10:30ean izango da, Torresoroan. Txarri dantza ere egingo dute Inauterietan, eta astelehenean izango da azken entsegua, 19:00etan.

Pilota jaialdia

Eskolarteko pilota txapelketak jokatu dira bihar. 16:00etan hasiko dira partiduak, Udal Pilotalekuan.

Kantu-eskean 802 euro

Txistulariekin eta abesbatzarekin elkarlanean, Anelkar elkartean taldeak Santa Ageda eskea antolatu zuen hilaren 4rako. Herriko Plazan hasi zuten batzea, 18:00etan, eta 60 lagun inguru batu ziren. 802 euro eskuratu zituzten, Senegalgo eta Kongoko proiektuetara bideratzeko. Hala, taldeko kideek eskerrak eman dizkiete herritarrei.



ANELKAR ELKARTEA



Kokoak, iaz, San Antonio baserrian. I.A.

Kokoen eskutik helduko da Aratustea bihar

Konpartsa 09:00etan abiatuko da eta zortzi baserritara eramango du festa giroa. Aurreko urtean baino kide eta pertsonaia gehiago izango ditu. 18:00etan izango dira atzera ere herrian, Ustekabe txarangak lagunduta

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Bihar goizean esnatuko da hartza Elgetan. Une horretatik aurrera hasiko da koko-batzea baserri baserri, eta bigarren aldi honetan Ikatzarren, Pagatzen, Olaegin, Seston, Arrotan eta Olatzan izango dira kokoak goizez. Arratsaldean, berriz, Antzuategi Erdikoan eta Otolan egingo dute dantzan eta kantuan. "08:00etan elkartuko gara Ozkarbin. Gosari ederra egingo dugu eta 09:00etan irtengo gara. Goizeko saioa amaituta, 15:00 aldera bazkalduko dugu Ozkarbi elkartean, indarberritu eta arratsaldeko saioari hasiera emateko", azaldu du Goibeko Euskaltzaleen Topaguneko presidente Ainara Iribarrek.

Konpartsa handiagoa

Aurten herritar gehiagok eman dute izena koko-batzean parte hartzeko. Hala, konpartsa handiagoa izango da eta pertsonaia berriak gertatu dituzte: "Azeri-ehiztariak, alarguna, ezkongaiak... Berritasunak badaude, bai, eta pozgarria da hori. Aste erdian heldu ginen aurreko urteko kopuruetara izen-emateari dagokionez. Bazkaltzeko azkoz leku gehiagorik ez daukagu, baina konpartsan ateratzea libre da".

KOKOAK 18:00ETAN ELKARTUKO DIRA HERRITARREKIN SALBADOR KALEKO GOIKO ALDEAN

Iluntzeko saioa, plazan

Baserriz baserri ibili ostean helduko da konpartsa Salbador kalea. "16 urtetik gorakoendako da koko-eskea, baina jakin 18:00etan elkartuko garela herriarekin Salbador kaleko goiko aldean. Zain izango dugu Ustekabe txaranga eta denok batera egingo dugu plazarinoko bidea. Proposamena da denok batera egitea jaitsiera hori eta ondotik etorriko den azken saioa plazan. Etxeko arropa zaharrak jantzi eta etorri arratsalde-iluntze pasa kokoekin egitera", esan du Iribarrek. Prestaketa-lan handia dago koko-batzearen atzean. Partaideek gaur egingo dute azken bilera, gimnasioan, 19:00etan. Dantzak eta koplak erreparasatzeko eta azken egitekoak lotzeko izango da.

Eskolatik erakusketa ikustera

Aste barruan herri eskolako hainbat talde zeramika gelan dagoen erakusketa ikusten izan dira. Hartza, sasi-kartia, burburixuak, masustak, gorrixak... Konpartsako pertsonaien izenak eta koko-batzearen esanahia ezagutzen izan dira. Etorkizuneko kokoak dira eta Goibekotik garrantzi handia ematen diote transmisioari.



Eskolako ikasle eta irakasle taldea martitzenean erakusketan. G.A.

Urrats Bat sarietarako hautatu dute Josu Horrilloren proiektua

Tgoki enpresako kideak hilaren 16an du aurkezpena, lurretan; asmatu duen egokigailuarekin joango da

L.Z.L. ELGETA

Josu Horrilloren egokigailuarekin edozein taula skate-aula bihur daiteke. Hala, erruberrak dituzten ardatz unibertsalak jar daitezke, eta taula zaharrei bizi berria eman edo negurako diren snow-aulak skate-aula bihurtu. Egokigailuak balio du 14-33 zentimetro arteko edozein taularendako; Allen giltza batekin zabaltzen edo estutzen da eta autozentratu egiten da.

2021ean asmatu zuen Horrillok. Tarte honetan, patentatu eta homologatu egin du eta Gaztenpresarekin garatu du enpresa proiektua. Orain, Urrats Bat sarietarako aukeratua izan da, eta hilaren 16an egingo du defentsa. "Sari ekonomikoa baino gehiago interesatzen zait enpresa ezagutzera ematea", esan du Horrillok.

Berraondokoan dago Tgoki. Egokigailua izan zen abiapuntua, baina egurra, plastikoa eta metala lantzeko makinak dituzte eta egiten dituzte trofeoak, errexinazko figurak, etxeko tresnetarako botoiak eta heldulekuak, litofaniak... "Imajinatzen baduzu, nik inprimatu egingo dizut", dio Horrillok, irribarrez.



Josu Horrillo, Elgetako Tgoki tailerlean asmatutako egokigailua eskuan duela. LARRAITZ ZEBERIO LEKUONA

EH Bilduren alkategaia, Ibon Unzetabarrenetxea

Ibon Unzetabarrenetxea izango da EH Bilduren alkategaia maiatzaren 28ko udal hauteskundeean. Eguaztenean egin zuen herri batzarra Elgetako EH Bilduk. Bertan, agintaldiaren balorazio positiboa egin zuten. "Egindakoak arloz arlo jorratu ditugu eta datozen urteetarako erronka nagusiak landu ditugu", azaldu dute. "Bestetik, ofizialki aurkeztu dugu EH Bilduren alkategaia izango den Ibon Unzetabarrenetxea Gallego. Beste hautagairik ez zenez aurkeztu, otsailaren 2tik 4ra izan genuen aukera EH Bilduko kideok Ibonen hautagaitza berresteko". Erabakia aho batez hartu dela jakinarazi dute EH Bildutik.

'Bibliobero' zikloa egunotan udal liburutegian

Bueltan da *Bibliobero* ziklo erotikoa. Liburutegiak prestatua, astelehena ezker erabilgarri dago askotariko argitalpenak batzen dituen interesgunea. Hilaren 24ra arte mantenduko dute. Zikloaren gainerako ekintzei dagokionez, atzo egin zuten eztabaidagune feministaren topaketa eta sexualitatea izan zuten ardatz. Gaur, barikua, *Oihu goxuak* izeneko ipuin erotikoen kontaketa egingo du Bego Alazan kontalariak, 22:30ean.

Mahibar&Co sexologia zerbitzuko Ainara Brusauk egingo du hitzaldia otsailaren 23an, 18:30ean. Gaia izango da: *Sexualitateak ba al du iraungitze adinik?*

Beteta datoz aurtengo Ingurumen Jardunaldiak

Gorotzari buruzko erakusketa zabalduko dute astelehenean kultura etxean eta horrek emango die hasiera hilabete iraungo duten Ingurumen Jardunaldiei. Natur Eskolak antolatuta, hitzaldiak, irteerak, zuhaitz landaketak eta azokak ere egongo dira

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Urtero bezain betea eta gaurkotasanari lotua da Natur Eskolak otsailerako antolatu dituen Ingurumen Jardunaldien egitaraua. Trantsizio energetikoa, baso-ustiaketa ereduak, klima aldaketa zein geologia izango dituzte hizpide, besteak beste. Hitzaldiez gain, betiko moduan, gaiei lotutako filmak eskainiko dituzte zineklubeko emanaldietan, zuhaitz landareen azoka zein landaketa ere egingo dituzte. Baita irteera bat eta erakusketa ere. Gorotzei buruzkoa izango da aurtengoa.

Gorotzei buruzko erakusketa

Gorotzak botatzeak naturan eta gizartean duen eginkizuna ezaugarazi gura dute *Excreta: Nazkagarria bezain interesgarria* izeneko erakusketarekin. Baita gorotzek kultura ezberdinetan duten eginkizuna eta komunontziaren eta komuneko paperaren bilakaera. Kultura etxeko erakusketa gelan atonduko dute erakusketa deigarri hau eta, beti egin ohi duten moduan, bisita gidatu berezia egingo dute inaugurazio egunean. Datorren astelehenean izango da hori, hilak 13, 18:30ean. Erakusketa martxoaren 5era arte ikus ahal izango da, egunero, 18:00etik 20:00etara.

Hitzaldien artean, berriz, Oñatiko adibide bat ekarriko dute baso-ustiaketari buruz berba egingo dutenean. Julen Astigarraga eta Asier Herrero ekologoek, Artia mendiko pagadietako laginak hartuta, dendrokronologia teknikaren bidez baso-ustiaketa modu ezberdinek klima aldaketaren aurrean duten erresilientzia maila aztertzeke egindako lanaren emaitza azalduko dute. Horri lotuta, gainera, irteera ere egingo dute, Artasora. Egingo duten bigarren irteera sendabellarrei lotutakoa izango da, Garbiñe Larrea gidari



Baso-ustiaketa izango da jardunaldietan landuko den gaietako bat. J.U.

durte. Martxoaren 4an izango da hori, Natur Eskolatik abiatuta.

Urteroko lagunekin

Natur Eskolak antolatu ditu Ingurumen Jardunaldiak, baina

aurreko urteetan moduan, herri beste elkarte batzuen kolaborazioa ere izan du, hala nola zineklub edo Aloñako Lagunak taldeena. Bigarren horrekin egingo dute aurten ere zuhaitz landaketa, Aloñako mendizerran.

Antolatu dituzten hitzaldiak

Otsailak 14

- **'Geologia, materialen krisia eta ondorioak industria gizartean'**. Hizlaria: Antonio Aretxabala, geologoa eta ikerlaria.

Otsailak 15

- **'Trantsizio energetikoaren iritzi kritikoa'**. Hizlaria: Alvaro Campos, Ingeniaritza Termikoan doktorea..

Otsailak 17

- **'Ekofascismoa'**. Hizlaria: Carlos Taibo, idazlea eta politika zientzietako irakasle ohia..

Otsailak 22

- **'Dendrokronologia: zuhaitzen bizitza ezkututik klima aldaketara'**. Hizlariak: Julen Astigarraga eta Asier Herrero, ekologoak. Hilaren 24an irteera egingo dute Artasora.

Oharra: Hitzaldi guztiak kultura etxean izango dira, 19:00etan.

Botikak hartzea erraztuko duen hitzarmena onartu du Udalak

Botiken tratamendua jarraitzeko zailtasuna duten herritarrei laguntzea da helburua, Gizarte Zerbitzuetatik

O.E.G. OÑATI

Gipuzkoako Botikarien Elkargoarekin lankidetzahitzarmena egitea onartu du, aho batez, udalbatzak, botiken tratamendua jarraitzeko zailtasuna duten herritarrei laguntzeko. Farmazia asistentzia modu egokian egitea da Botikarien Elkargoaren helburua, pertsonak botikak modu egokian jaso ditzaten; Oñatiko Udalarena, herritarrei bideratutako laguntza jarduerak, ahal dela, etxeraino bideratzea. Lankidetzahitzarmen honekin helburu biak uztartu gura izan

dituzte. "Hartzen dituzten botikak zer diren eta nola hartu erakutsiko diete eurei edo zainzaileei farmazialariek programa honekin", azaldu du alkateak.

Euren etxean bizi eta etxez etxeko laguntza zerbitzua jaso behar edo familia-ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoa jasotzen duten herritarrek erabil dezakete zerbitzu hau. Egun, hamabi lagunek erabiltzen dute zerbitzua eta beharra duenak Udaleko Gizarte Zerbitzuetan eska dezake. Herriko lau farmaziak atxikitu dira programara.

Astelehenean bertan hasiko da lanean Nagusien Mahaia

Hilean behin batuko da, Euskaldun Berria gelan, adinekoen beharrak ezagutzeko asmoz

O.E.G. OÑATI

Oñatiko Udalak pertsona nagusien mahaia sortu du, herriko adinekoen beharrak lehen pertsonan jaso ahal izateko. Behar horiek identifikatu eta Udaletik martxan jartzen dituzten proiektuak eragin handiagoa izatea da Udalaren nahia. Udalaren eta adineko herritarren arteko zubi-lanak egingo ditu foro horrek. Helburu nagusien artean daude: adineko pertsonen hitza eman eta beharrak ezagutzea, eurei eragiten dieten herri mailako egoerak aztertzea, elkargune bat

izatea beraien esperientziak eta ekintzak partekatzeke eta hausnarketa eta eztabaidarako gune ere izatea.

Diagnosi bat egin dute aurretik, irailean hasita, eta egindako elkarrizketetan ondorioztatu du Udalak adinekoendako gune honen beharra zutela. Egun, hamasei herritar daude taldean, baina interesa duen edonork parte har dezake. Astelehenetan batzen dira, hilean behin, 10:00etan, Euskaldun Berria gelan. Izena emateko: ongizate@onati.eus edo 943 03 77 00.

Oñatin bizi diren bergarrek bazkaria dute martxoan

Oñatin bizi diren bergarrek elkarrekin bazkaltzeko plana egin dute datorren hilabeterako. Bazkaria martxoaren 25ean izango da, baina izena otsailaren 15a aurretik ematea eskatu dute, "ondo antolatzeke". Joan gura duenak 30 euro sartu behar ditu egun horretarako, izen-abizenekin, Laboral Kutxan: ES88 3035 0005 30 0050086072.

Agintaldiaren balorazioa 'Harira' saioan martitzenean

Izaro Elorza alkateak eta Ainhoa Galdos EAJko udal bozeramaileak azken agintaldiaren gaineko balorazioa egingo dute Goiena telebistako *Harira* saioan; Goiatz Arana kazetariaren galdarak erantzungo dituzte. Martitzenean izango da, 21:00etan eta 23:00etan. Onaro, energia plana, kiroldegia eta gai gehiago izango dituzte hizpide.



San Martinetik Murgiara bidean dagoen bihurtzea zabaltzeko lanetan. I.B.

Auzo-bideen egoera hobetzeko lanetan

Errepideen segurtasuna bermatzea da lehentasunak zehazteko erabilitako irizpide nagusia. Herriko zortzi auzoetan ari dira egiten udazkenetik, auzo-alkateen foroan horrela adostuta, eta planak jarraipena izango du datozen urteetan ere

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Herri barruko asfaltatze lanekin batera ari dira auzo-bideetan ere lurzorua berdintzen eta egon daitezkeen arriskuak saihesteko lanak egiten. 275.000 euroko kostua izango dute aurtengo lan horiek eta lau urterako egindako planaren baitan sartzen dira; milioi bat eurokoa izango da diru kopuru osoa.

Hiru lehentasun

Auzo-alkateen foroan errepideen arazoa konpontzeko beharraz hitz eginda, zortzi auzo edo baserri bide konpontzen ari dira. Azaroan hasi zen Injelan enpresa obra horiek egiten. Barrenekte eta Arregi baserrietarako

bideak konponduta daude dagoeneko eta San Martinen eta Errekalde-Torretxebarri bidean ari dira orain lanak egiten. Horiek bukatzean, Pollangua baserri inguruan, Larraina auzoan, dagoen bidegurutze bat zabalduko dute, bertan dagoen zuhaitza kenduz. Modu horretara, autoendako pasabidea zabaldu egingo dute, egungoa oso estua delako. Torretxebarri-Guridi arteko bidean eta Askontegi eta Iruatz baserrietako bideetan ere egingo dituzte lanak.

Hiru irizpide izan dituzte auzo-bideetako lanak egiteko orduan: "Lehentasuna jausten ari diren zatiak konpontzea izan da, segurtasuna bermatzeko.

Asfaltatze lanetan, berriz, aldapa hartu dira kontuan; elurte eta izozte garaian arriskua sor daiteke eta errepidea egoera txarrean dagoen aldapa handietan egingo dira konpontze lanak. Errepidea laua bada eta hor zuloen bat edo beste baldin badago, hori azken lanetara pasako da", Oñatiko Udaleko Zerbitzuak eta Landa Garapeneko batzordeburu Xabier Igartuak azaldu duenez.

Berezaora doana, asteburuan

Berezaorako errepidea asteburuan asfaltatuko dute. Zapatuan industrialderako sarbidea San Martin auzotik izango da eta Eroskikoa, Arantzazuko Amatik.

Gauzak "txukun" egin dituztela eta "lasai" daudela dio Otegi

Gaurkotasuneko nazioarteko eta herriko gaiak jorratu ditu astean egindako solasaldian; hauteskundeak ere bai

O.E.G. OÑATI

Nazioarteko zein Euskal Herriko hainbat gairen irakurketa politikoa egin zuen EH Bilduko koordinatzaile nagusi Arnaldo Otegi martitzenean Santa Ana antzokian egindako solasaldian. Ukrainako gerrako erabakiak, trantsizio energetikoa, Hezkuntza Legea eta lurraldetasuna izan zituen hizpide eta, gaien irakurketa politikoa egiteaz gain, hainbat gako ere eman zituen. Hain zuzen ere, haren esanetan, euren ekinbide politikoaren parte da hausnarketak eta pentsamenduak herritarrekin partekatzea: "Garai hauetan pausa gutxi hartzen dugu gauzez patxadaz berba egiteko eta uste dut gurea ere bada herriarekin, eta nahi dutenekin, guk bezala pentsatzen dutenekin eta ez dutenekin, argi hitz egitea; abertzale bezala, ezkertiar bezala, independentista



Otegi, martitzeneko saioan. T.M.

bezala, gure iritzia ematea eta besteena entzutea".

Udal eta foru hauteskondeei eta geroko Espainiakoei begira "lasai" daudela dio Otegi, eta gauzak "txukun" egin dituztela eta euren "zintzotasuna" argi dagoela azpimarratu zuen.

Formakuntza-saioa etxeko zaintzan dihardutenendako

Etxeko zainketen sektorean lan egiten duten pertsonendako formakuntza-saioa egingo dute, otsailean hasita. Zubillagako Olaburu zentroan emango dira aurrez aurreko eskolak, 23 zapatutan, 15:00etatik 19:00etara. Doan da, baina aurretik eman behar da izena, plazak mugatuak dira-eta, telefono-zenbaki honetara deituta: 688 82 54 52.

Ricardo Guisado-Balanzategui, PPko alkategaia

Astelehenean kultura etxean aurkeztuko du PPk Oñatiko alkatezarako Ricardo Guisado-Balanzateguiaren hautagaitza. Zientzia Politikotetan eta Albaitaritzan lizentziaduna da eta MBA masterra egin du. Aurkezpenean izango dira Gipuzkoako diputatugai nagusi Mikel Lezama eta Euskadiko PPko idazkari nagusi Laura Garrido.



Gualbi
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com



Sara Txintxurreta eta Esteban Irusta, parrokiako organoan. IÑIGO BARRENA

Etorkizuneko organo jotzaileen errelebo bila

Parrokiako organoa jotzeko jende berriaren beharra dago Oñatin eta belaunaldi berrietan erreleboa hartuko duen jenderik ez dago egun. Etorkizunera begira, irtenbide bila, hasi dira gutxi batzuk organoa jotzen ikasten musika eskolan

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI

40 urtetik gora daramatza Esteban Irustak Oñatiko parrokiako organoa jotzen, hiletetan, mezetan eta jaiegunetan. Musikazalea izan da betidanik, eta, haren hitzetan, "gustura" egiten duen lana da, baina etorkizunera begira errelebo beharra ikusten du. "Gu ez gara betirako eta ea norbait berria etortzen den", dio.

Denbora darama eskatzen Oñatin organoa ikasteko aukera izateko eta halaxe ari dira egiten musika eskolan. Sara Txintxurreta gazteak urtebete darama organoa ikasten eta gustura dago orain arte ikusitakoarekin, nahiz eta erraza ez izan: "Txikitatik gustatzen zitzaidan instrumentua da, baina ez zegoen ikasteko aukerarik. Probatzeko aukera eman zidatenean kuriositatea piztu zitzaidan eta urtebete daramat musika eskolan ikasten. Hasieran, kosta egin zitzaidan, baina ohitzen noa, gutxinaka. Oso pozik nago".

Instrumentu berezia

Biek ala biek instrumentu "polita bezain berezia" dela diote eta aurreiritziak ere aldatu nahi dituzte organoaren inguruan, askotan "elizako" instrumentu bezala soilik ikusten delako; euren ustez, berriz, ez da horrela. "Ez da soilik elizako instrumentu bat eta jotzen hasten zarenean konturatzen zara nolako sakonera duen instrumentuak berak. Esaterako, elizako kantuez gain, nire gustukoak direnak ere jotzen ari naiz" dio Txintxurretak.

Esteban Irustak, berriz, organoa ezagutu beharra dagoe-la azpimarratu du: "Jende gazteak ez du organoa ezagutzen eta ziur nago ezagutuz gero

**"JENDE GAZTEAK
ORGANOA EZAGUTUKO
BALU, ZIUR NAGO
AFIZIOA HARTUKO
LUKEELA"**

afizioa hartuko lukeela. Gainera, tonu ezberdin asko ditu eta horrekin jolasteko aukera asko ematen du".

Etorkizun ziurgabea

Irustaren kezka nagusia etorkizuna irudikatzean dago, ez baitu batere garbi ikusten, eta irtenbidea ordainsaria izatean edo txandakatzean ikusten du: "Nahiko etorkizun beltza ikusten dut. Askotan aipatu dut ona datorrenari bide bat eman behar zaiola, gaur egun afizioagatik soilik egitea zaila delako". Sara Txintxurretak ere lan horrek sakrifizio handia eskatzen duela dio: "Azkenaldian geroz eta ekintza gehiago ditugu, neuk ere bai; eta, gainera, denbora eskaini behar zaion zerbait da organoa, konpromiso handia eskatzen du". Nahiz eta ikasten jarraitzeko asmoa duen: "Prest egongo nintzateke jotzeko, nahiz eta aurretik gehiago ikasi beharra dudana".

Inauterietara begira azken entseguak egiten ari dira Eltzian

300 herritar baino gehiagok kolorez jantziko dituzte herriko kaleak hurrengo zapatuan, hilaren 18an, goizean hasi eta iluntzera bitartean inauterietako dantzekin. Aurten gainera inauteriak iragartzeko bideoak ateratu dute, jendeari jaia osparazera gonbita eginez. Zabal-kundea handia izan du bideoak sare sozialen bitartez.

Azken astean murgilduta, biharko entsegua (12:00) eta datorren martitzenekoa (20:00) izango dira azken egunak, inauteri egunera begira prestatu beharrekoak fintzeko. Pandemia pasata, aurten, goizean eta arratsaldean arituko dira kaleetan zehar dantzan eta tartean bazkaria ere egingo dute kiroldegian. Bazkarirako sarrerak entsegu egunetan erosi beharko dira, hau da, biharko eta martitzeneko entsegetan; prezioa 25 eurokoa da.

Perearen omenezko kontzertuetarako sarrerak, agortuta

Gaztelekua jendez lepo egongo da zapatu iluntzean Mikel Perearen omenezko kontzertuetan, sarrera guztiak saldu baitaude duela hilabete eta erditik hona. Punk-oi! doinuen zaleek gozatu ederra hartuko dute. Arratsaldeko zazpitan hasiko dira kontzertuak: Never Surrender, Enboskada, Dirty Brothers, Nealta Fola eta Agressive Com-

bat taldeak 21:00ak bitartean arituko dira eta ondoren, GBH, Arkada Social eta Bladders taldeen txanda izango da.

Antolakuntzakoak gustura daude jasotako erantzunarekin: "Oso pozik gaude, sarrera guztiak saldu dira eta erantzuna ikaragarria izan da; giro bikaina izango dugu, seguru. Hala ere, pena ematen digu edukiera kontuagatik jendea kanpoan geldituko delako". Barrako irabazi guztiak Aspanogi elkartera bideratuko dituzte.

'Intxaurra' antzezlanaren ikusteko aukera Santa Ana antzokian

Mairu antzerki taldearen eskutik dator *Intxaurra* izeneko antzezlanaren eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (Uema), Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak elkarrekin abiarazitako Arnasa Gara kanpainaren baitan, Arnasguneak antzerki sorkuntzarako beka eskuratu du lan honek. Orain, Oñatin obra honekin gozatzeko

aukera izango dute antzerki-zaleek domekan, arratsaldeko zazpitan, Santa Ana Antzokian egingo duten emanaldian. Sarrerak dagoeneko salgai daude Udalaren webgunean, bost euroren truke.

Manex Fuchs-ek zuzentzen duen lanak gaixorik dagoen intxaurrondo baten iruditik abiatuta enborra biziberritzearen beharra islatzen du, euskararen arnasguneek duten garrantzia irudikatzen intenzioarekin.

Eskola magistralen bigarren saioa zapatuan egingo dute

Zunbaday izan zen kiroldegian egin zuten lehenengo eskola magistrala saioa eta zapatu honetan izango da bigarrena, otsailaren 11n: *fitebike* saioa egingo dute eta 09:30etatik 11:30era bitartean izango da, kiroldegian. Izena kiroldegian bertan eman beharko da. Doan da, baina plazak, ordea, mugatuak dira.

Jose Antonio Mur ziklista ohi eta entrenatzailea hil da

80ko hamarkadako KAS ziklismo talde ezaguneko entrenatzaile Jose Antonio Mur hil da, 78 urterekin. Arabarra jaiotzez, gaztetan Oñatin bizi izan zen eta harreman estua izan du Oñatiko txirrindularitza taldearekin. Bertako zenbait ziklistaren entrenatzaile izan da eta Arantzazuko Igoera irabazi duen etxeko azken lasterkaria, 1969an.

WUT

GAZTEK
GAZTEENTZAT

BERRITUA
OTSAILAREN 16TIK AURRERA

DESKARGATU
ALDIZKARI
DIGITALA DOAN!



Xabier Urzelai Atxa ARRASATE

Hamarkadak dira Arrasaten boxeoa jaialdirik antolatuta ez dela, baina askok izango dute oraindik gogoan 90eko hamarkadan Musakolako kiroldegian antolatzen zituzten jaialdiak. Eta, horrekin batera, herrian boxeolari handiak egon dira: Galan anaiak eta Antonio Caballero, erreferenteak. Orain, Arrasate Box kirol klubeko Ixa Rodriguez buru-belarri dabil lanean otsailaren 25eko boxeoa jaialdia borobila izan dadin.

Zelan sortu da Arrasaten boxeoa jaialdia antolatzeko ideia?

Iazko udan Bergarako pilotalekuan antolatuta genuen halako jaialdi bat eta oso gustura geratu ginen, jende asko etorri zen eta arrakastatsua izan zen. Eta espero dugu otsailaren 25erako Uarkapeko harmailetan ere giro ona egotea [sarrerak salgai daude Iluntz tabernan edota 676 86 69 22 telefono zenbakian]. Debagoienean sumatzen dut boxeoa gogoz dagoela jendea.

Soraluzen duzue Sorabox taldea eta Arrasate Box sortu duzue, Erguingo Herri Eskolan ematen dituzu eskolak.

Halaxe da. Arrasatera etorri nintzen duela urte batzuk, Emakume Txokoaren bitartez, emakumezkoekin boxeoa eskolak ematera, eta, egun, Soraboxekin batera Arrasate Box ere zabaldu dugu. Boxeoa ikastaroak ematen ditut bertan eta jendea Soraluzera ere etortzen da entrenatzera.

Uarkapeko jaialdirako sarrera erosten duenak zer ikusiko du?

Jaialdia 18:00etan hasiko da eta pisaketa Iluntz tabernan egingo dugu, 15:00etan. Guztira, hamar borrokaldi egingo ditugu eta horietako sei Gipuzkoako Txapelketako finalak izango dira. Bergaran boxeolariak oso maila polita erakutsi zuten eta jendea gustura geratu zen.

Tartean egongo dira, baita ere, Debagoieneko boxeolariak...

Halaxe da. Arrasateko Yassine Bouchaar, Aretxabaletako Xabier Zugasti eta Bergarako Josu Zalakin eta Andoni Kortabarria ringera igoko dira.

Zurekin entrenatzen dabilta denak?

Bai. Bakoitzak bide propioa egin du. Euretako batzuk boxeoa hasi ziren kirol jarduera berri bat probatzeko; eskoletan parte hartzen hasi ziren eta ondoren erabaki dute txapelketetan hasia. Yassineren kasuan, esate-

"Sarrera ona espero dut Uarkapen, boxeoa gosea dago"

IXA RODRIGUEZ BOXEOLARI OHIA ETA ARRASATE BOX TALDEKO ARDURADUNA

BOXEOA Otsailaren 25erako jaialdia antolatu dute Arrasateko Uarkape pilotalekuan eta ringera igoko dira lau boxeolari debagoiendar; Gipuzkoako txapela dago jokoan



Ixa Rodriguez, Arrasate Boxen. IMANOL BELOKI

rako, hasieratik oso garbi zeukan lehiatu gura zuela.

Alde handia egongo da eskolak hartzearen eta ring batera igotzearen artean...

Alde handiena dago, bereziki, boxeolari ematen diotuz lehentasunean. Hau da, eskolak hartzeraz datorrena kirola egitera dator, ondo pasatzera, ikastera eta egunerokoa tartez batez ahoztera. Baina ring batera igo nahi duenak lehentasun handia eman behar dio boxeolari, ondo prestatu behar du gauzak behar den moduan egiteko, eta horrek denbora eskatzen du.

Min hartzeko prest ere egon behar duzu...

Emakumezkoen kasuan, oso zaila da boxeoa borrokaldi batean min hartzea. Nik sekula ez dut minik hartu eta 80 borrokaldi

egingo nituen. Baina Josu Lopategi entrenatzaileak oso ondo zaindu ninduen eta nik ere nire boxeolariak ondo zaintzen ditut. Egia da, nire kasuan, 48 kiloko emakumezkoen borrokaldietan boxeolariok ez dugula indar handirik izaten eta zaila izaten dela min hartzea. 54 kiloko emakumezkoen kategorian, berriz, boxeolariak indar handiagoa izaten du eta hor posible da min handiagoa hartzea, bai. Eta bai, gizezkoen kasua bestelakoa da; hori boxeolarien min egiteko adinako indarra izaten dute.

Boxeoa jaialdian ez dago Arrasate Box taldeko neskarik?

Ez; emakumezkoen borrokak izango dira, baina ez dago taldekiderik. Arrasate Boxen gehiengo emakumezkoak gara, baina... Jendeak gehiago hartzen du kirol jarduera moduan, boxeoa praktikatzera oso osasuntsua delako. Ringera igotzeko beste jauzi bat eman behar da.

Zuk eman zenuen jauzia duela hamarkada bat pasatxo, Espainiako txapelketa ere izan zinen...

Bai; 2015ean izan nintzen Espainiako txapelketa eta urtebete lehenago zilarra jantzi nuen. Eta Euskadiko Txapelketa lautan irabazi nuen.

Pandemian erabaki zenuen boxeoa uztea... Sumatzen duzu hutsunea?

Ez, bat ere ez. Tira, *duelua* pasa behar izan dut, hori ere halaxe da, baina ez ditut boxeoa borrokaldiak faltan igartzen. Utzi aurretik entrenatzailea poli-poli ni prestatzen joan zen, ikusten zuelako azken borrokaldiak geratzen zitzaizkidala. Eta pandemia etorri zenean derrigor utzi behar izan nuen; etena egin genuen hori eta ikusi nuen ez nintzela gehiago borrokatuko. Beti diot pandemiagatik boxeolari on asko galdu ditugula.



Iazko uztailean Bergarako pilotalekuan antolatutako jaialdiaren une bat. GOIENA

Talde asko daude atzerako ispiluari begira

FUTBOLA Jaitsiera postuetan dagoen Bergararen erreakzioaren ondoren, atzealdeko postuak izugarri estutu dira; izan ere, sailkapenaren erdian dagoen Zumaiakok lau puntura ditu jaitsiera postuak. Hamalau jardunaldi geratzen zaizkio ligari

Xabier Urzelai Atxa ARRASATE

Azken jardunaldietako emaitzak ikusita bistan da Bergarak ez duela amore emateko asmorik. Eta mahoneroena da jaitsiera postuetan dagoen lehen taldea, beherago daude eta Vasconia eta Mondra, oraindik eta egoera zailagoan. Bada, Bergarak erresistentziarako erakutsi duen jarrerak –azken hiru partiduak jarraian irabazi dituzte– are eta gehiago estutu ditu atzealdeko postuak, eta orain momentuan asko dira atzerako ispiluari begira dauden taldeak. Hala, datozen jardunaldietan bi partidu jarraian irabazteak sekulako saria izan dezake, eta, kontrara, bi emaitza txar pilatzeak zigor galanta. Eta presio horrekin egingo dute salto asteburuan bailarako taldeek berdegunera.

UDA eta Mondra, etxean

Etxean jokatu duten Mondrak eta Aretxabaletak sailkapenean lasai dauden bi talde izango dituzte aurrean. Arrasatekoek hirugarren dagoen Eibarren bisita izango dute Mojategin (zapatua, 16:30), eta, mailari eustea oso zail daukaten arren, azkenera arte lehiakor izan nahi dute zuri-moreek. Aretxabaletak, berriz, seigarren postuan dagoen Debako Amaiak Bat taldea



UDA eta Elgoibar aurrez aurre, urtarri hasieran, Ibarran. GOIENA

mendean hartu nahi du Ibarran domekan (16:30).

Bergara, liderraren etxera

Etxetik kanpora jokatu dute Bergarak eta Aloña Mendik, eta, mahoneroen kasuan, plaza zailan egin beharko dute dantzan: Hernani kategoriako liderra da eta orain arte etxean partidu bakarra galdu du. Zapatuan jokatu dute, 16:00etan. Joan den astean irabazita arnasa hartu duen Aloña Mendik, azkenik, Urolaren zelaian jokatu du bihar, 16:00etan.

Ohorezko erregionala

SAILKAPENA (AZKEN POSTUAK)		
	P	J
08 Tolosa	29	20
09 Zarautz	29	20
10 Zumaiako	26	20
11 Beti Gazte	26	20
12 Lagun Onak	25	20
13 Mutriku	25	20
14 Aloña Mendi	24	20
15 Aretxabaleta UDA	23	20
16 Bergara	22	20
17 Vasconia	18	20
18 Mondragon	11	20

Tolosaren zelaira garaipen bila

Emakumezkoen ohorezko erregional mailan bai Bergarak eta bai Leintz Arizmendik etxetik kanpora jokatu dute, eta biek ala biek nahi dute joan den asteko jardunaldia ahaztu, nahiz eta etxean jokatu galdutako gutxi. Bergarak kontrario zuzena den Tolosaren zelaian jokatu du domekan (11:45) eta Leintz Arizmendik Lasarte Orián (Domeka, 16:55).



Zumaiakoren kontra iaz Ipintzan jokatu dute partidua. GOIENA

Iberdrola Kopan lehiatuko dira Ruiz de Azua eta Axpe bihar

ATLETISMOA Arrasateko pertika-jauzilariak pista estaliko denboraldiko hitzordu nagusien atarian daude

X.U. ARRASATE

Ganean daude pista estaliko urteko hitzordu nagusiak. Otsailaren 18an jokatu dute, Madrilen, Espainiako Txapelketa maila absolutuan, eta, dena ondo bidean, bertan egongo dira Maialen Axpe (Arrasate, 1993) eta Malen Ruiz de Azua (Arrasate, 1995). Oraingo asteburuan, baina, beste hitzordu garrantzitsu bat izango dute, Ourensean jokatu dute eta Espainiako Kluben Arteko Kopa, edo, beste modu batera esanda, Iberdrola Kopa.



Axpe, artiboko irudi baten. FELIX SANCHEZ

Ruiz de Azuak du urteko marka

Hala, Malen Ruiz de Azua pista estaliko marka pertsonala egin da aurkeztuko da Ourenseko hitzordura. Bada, Valentziako kluba –iazko irabazlea– ordezkatu duen atleta arrasatearrak 4,43ko marka egin zuen urtarriaren 14an Bordelen –oraingoz,

urteko marka onena da–. Maialen Axpek, berriz, Atletico San Sebastian klubarendako batuko ditu puntuak; Bedoñakoak 4,30eko marka egin zuen urtarriaren 7an, Zaragozan. Bihar, zapatua, 16:00etan izango da pertika-jauzilarien txanda.

Urrezko aizkorako finalerdiak jokatu dituzte Oñatin etzi

HERRI KIROLAK Harri-jasotzaile azkarren txapelketako finalerdia jokatu dute Telleriak eta Olaizolak

X.U. OÑATI

Herri kirolak izango dira domeka eguerdian Oñatiko plazan –eguraldi txarra bada, Zubikoara eramango dute hitzordua–. Baina ez da erakustaldi hutsa izango, hainbat txapelketetako kanporaketak egongo dira eta jokoan Foruen plazan.

Hasteko, hitzordu nagusia Urrezko Aizkorakoa izango da, txapelketa horretako finalerdia Oñatin erabakiko da eta. Guztira, hiru bikote izango dira zein baino zein gehiago eta aizkorako sei modalitate ezberdinetan jardungo dute.

Harri-jasotzaileak ere bai

Aizkolarien saioaren ondoren etorriko dira harri-jasotzaileak. Eta hor, harri-jasotzaile azkarren arteko lehia izango da,



Aizkolariak, iaz, Oñatin. GOIENA

Telleriak eta Olaizolak hiru harri ezberdinekin jardungo dute eta, finalerako txartel bila.

Eta saioa borobiltzeko, emakumezko harri-jasotzaileek erakustaldia egingo dute. Saioa 12:00etan hasiko dute eta sarre-ra doan izango da.

Gaurkotasuneko gaiak, bihotzarekin idatzita

Otsailaren 14an, 19:30ean, Irizar jauregian egingo duten eta guztiontzako zabalik dagoen sari-banaketa ekitaldian banatuko dituzte Jardun Euskara Elkartek antolatzen duen 31. Amodiozko Gutunen eta Esaldien Lehiaketako bost sariak

Aitziber Aranburuzabala Juldain
BERGARA

40 gutun eta 70 esaldi jaso dituzte eta pozik daude izan duten harrerarekin; hauxe dio Jardun Euskara Elkarteko dinamizatzaile den Iker Muruamendiarazek: "Gipuzkoatik, Arabatik, eta Bizkaitik jaso ditugu; aurtan Iparraldetik ez. Emakumezkoek idatzitakoak dira gehienak, eta, adinari begiratuta, 17 urtetik ia 60 urtera bitartekoak".

Iazko irabazle Iñaki Serranok, Yune Nogueiras Bergarako aktoreak eta Anje Duhalde eta Esti Markez abeslariak osatu dute helduen epaimahaia. "Orokorrean balorazio oso positiboa egin dute idatzien kalitatea eta ekarritako gaiak aintzat hartuta. Egunerokotasuneko gai asko azaldu dira, sentimenduz idatzitakoak eta gordinak".

Irabazle "errepikatzaileak"

Gutunen arloan lau sari banatuko dituzte. "Iñigo Legorburu hernaniarrak jasoko du sari nagusia, 500 euro. Aurrez gure sariketan hainbat sari irabazitakoa da. Nigeriako Hassa arrantzale euskaldunduaren rolean idatzi du oraingoan. Ez zuen irabaztea espero eta oso pozik etorriko da sari-banaketa ekitaldira". Helduen bigarren saria



Izar Odriozola eta Iker Muruamendiaraz, Errotalde jauregian, eguaztenean. A.A.

Belauntzako Amaia Artolak irabazi du, *Barkaidazu* lanarekin. "Sentimenduzko gutun polita eta gordina, dementzia duen amari idatzitakoa. Aurrez saria irabazitakoa da Artola ere".

Bi sari Bergaran geratu dira

Aranzadi Ikastolako eta Ipintza Institutuko ikasleek osatu duten gazte-epaimahaiak Izar Odriozola bergararrari eman dio Gaztea-saria eta Bergarako Onenarena Aroa Elortzak jasoko du, esklerosi anizkoitzari buruzko *Laztana* lanarengatik.

Ibon Segura eskoriatzarrak jasoko du esaldi onenaren saria: *Zure inperfekzioetan aurkitu dut zugan sekula bilatu ez dudan perfekzioa; zure zalantzek eman didate besteengan aurkitu ezin izan dudun segurtasuna; laburbilduz: maitasuna.*

Martitzenean sari-banaketa

Irabazleak, Jarduneko antzerki taldea eta Eider Elortza musikaria izango dira otsailaren 14an 19:30ean hasiko den ekitaldian. "19:00etan zabalduko ditugu atek eta gonbidatuta zaudete guztiak".

"Oso gutun pertsonala aurkeztu dut"

IZAR ODRIOZOLA GAZTEA SARIAREN IRABAZLEA

Lau alditan aurkeztu da Izar Odriozola bergararra Jardun sariketara eta lau sari irabazi ditu.

Zeini idatzi diozu?

Gaixotasun luze baten ostean irailan hil zen nire aitari idatzi diot, oso modu pertsonalean, Izar moduan sinatuta. Aurrez aurkeztu izan ditudan lanak fikziozkoak ziren; honako hau, berriz, barrutik sortutakoa da.

Samur idatzi zenuen?

Idea batzuk jasotzen joan nintzen eta arratsalde baten segidan idatzi nuen gero. Bukatutakoan amari erakutsi nion eta, gustatu zitzaiola esan zidanez, bidali egin nuen.

Ez zara sari-banaketa ekitaldian izango.

Kanpoan izango naiz, baina lasai, ondo lotuta dut nork hartuko duen saria.

Baduzu gehiagotan aurkezteko asmorik?

Ez dakit; oraingoan, lau sari irabazi ditut dagoeneko eta zapora gozo hori ez nuke kendu gura...

Animatuko zenuke parte hartzera?

Bai, horixe; lehiaketa oso polita da! Maitasun mota askori buruz idazteko aukera zabaldu eskaintzen du, gainera.

Bulego taldea izango da kartzela zaharrean gaur

Txapa Irratiak antolatuta, 22:30ean hasiko da; 18:00etan hasita salduko dituzte sarrerak

A. Aranburuzabala BERGARA

Bergarako gaztetxean dagoen irratiak gonbidatu du 2019an sortutako Azkoitiko Bulego bostkotea. "Pozik hartu dugu gonbidapena; aurrez beste formazio batzuekin izandakoak gara han eta oso gozo hartu gintuzten. Agertoki handietan gustura jarduten dugu, baina gaztetxeak ere plaza oso estimatuak dira guretzako, lan handia egiten dute eta horietan", azaldu du Bulegoko abeslari Tomas Lizarazuk.

Pandemiatik "indartuta" atera zen pop estiloa oinarri duen taldeak dagoeneko hiru lan ditu argitaratuta; 2021ean sortutako *Erdian oraina* izenekoa da azkena. Horietan guztietan daude askotariko profiletako eta adinetako publikoak harrapatu duten kantuak. "Bilduma horien nahasketak bat izango da, nolabait esanda, eskainiko duguna. Doinu dantzagarriekin, beti saiatzen garen moduan, ondo pasatzea da gure asmoa".

Bihar, beste bi talde

Kartzela zaharreko asanbladak antolatuta, Hilbera eta Orhi taldeen kontzertuak izango dira agertoki berean bihar, zapatua, 22:30ean hasita. Sarrerak lau eurotan izango dira eskuragarri.

HARIRA OÑATI

AGINTALDIARI ERREPASOA UDAL ORDEZKARIEKIN

GOIENA TELEBISTA, 'HARIRA' SAIOA

OTSAILAREN 14AN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN

IZARO ELORZA (OÑATIKO ALKATEA) ETA

AINHOA GALDOS (EAJ-REN BOZERAMAILEA OÑATIKO UDALBATZAN)

GOIATZ ARANAK AURKEZTUTA.



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.





Mondra&Roll jaialdiaren antolakuntzako Iker Arroniz, Igortz Iturbe eta Cesar Beato Nako, Monterron parkean, martitzenean. J.B.

Mondra&Roll jaialdia, bigarrenenez, distiratsu

Uztailaren 7an eta 8an egingo dute, Monterron parkean; punk, oi! eta hardcore estiloetako nazioarteko eta Euskal Herriko sei talde "esanguratsu" izango dira agertokian egun bakoitzean; oraingoz, bi eguneko bonuak bakarrik eros daitezke, 65 eurotan

Aitziber Aranburuzabala Juldain

ARRASATE

Zapore gozoa utzi zuen iaz, estreinakoz, Arrasateko Mauka Musikagintzak, Gasteizko Jimmy Jazz aretoak eta Kataluniako HFMN Crewk elkarlanean antolatu zuten Mondra&Roll jaialdiak; bada, uztailaren 7an eta 8an egingo duten bigarren jaialdiko kartelak "aurreikuspen politik" iragartzen ditu. Bi egunetan banatuta, hamabi talde izango dira Monterron parkeko agertokian; sei egun bakoitzean.

Izen "handi" asko

"Aldaketa txikiren bat salbu, iazkoaren egitura bera izango du. Iaz ondo funtzionatu zuela

ikusita", dio Mondra&Roll jaialdiko antolakuntzako kide Igortz Iturbek. Oraingoz egitarau osoa iragartzeke, Euskal Herriko eta nazioarteko banda ezagunak gonbidatu dituzte: karteleko talde nagusia, Los Angelesko The Interrupters; Britainia Handitik datozen UK Subs, Bad Manners eta Maid Of Ace; Suediako Perkele eta Errusiako Svetlanas. Talde gehiago izango dira agertokian: hardcore estiloan aitzindari izan ziren Bartzelonako Subteranean Kids eta Euskal Herriko Rotten XIII, Arkada Social eta Agur taldeak.

Gaur egungo eta garai bateko taldeen arteko nahasketa eskaintzea da aurten ere antola-

tzaileen asmoa. "Aspalditik ari ginen Interrupters Euskal Herrira ekartzeko lanean eta lortu dugu; emakume batek gidatzen duen talde oso berezia da. Las-ter iragarriko dugu beste talde oso ezagun bat", dio antolakuntzako kide Iker Arronizek.

Arrasateko hotelak, beteta

Guztientzako aterpea eskaintzea da duten erronka. "Kezkatuta gaude eta udal ordezkariekin bilerak egin ditugu; furgonetentzako akanpalekua jartzea izan daiteke aukera bat".

Eguaztena ezkerre daude bi eguneko bonuak eskuragarri eta eguneko sarrerak aurrerago izango direla adierazi dute.

Abian da II. Aitor Sarasua bertso-paper lehiaketa

'Sarasua.lehiaketa@gmail.com' helbidera bidali behar dira lanak eta otsailaren 28a da azken eguna

A. A. ARETXABALETA

2018an hil zen Itsasun (Lapurdi) errotuta zegoen Aitor Sarasua bertsolari aretxabaletarra, eta haren omenez antolatu zuen Bertsularien Lagunak Elkarteak estreinakoz, iaz, lehiaketa.

Iazkoaren bidetik, bertsoak idazteko gaia, neurria eta doinua libreak dira eta bi sail izango dira: 16 urtetik beherakoek gutxienez lau bertso eta gehienez zortzi aurkeztu behar dituzte eta 16 urtetik gorakoek, gutxie-

nez sei bertso eta gehienez hamar. Otsailaren 28an amaitzen da parte hartzeko epea.

Hiru sari sail bakoitzean

Helduen saileko irabazleak 300 euro jasoko ditu, 200 euro bigarrenak eta 100 euro hirugarrenak. Gazteetan ere hiru irabazle izango dira eta taldekako Xilabako finalerako sarrera lortuko dute hirurek; horrez gain, jertse bat ere jasoko du lehenengo irabazleak eta elastikoa, berriz, gazteen saileko bigarren irabazleak.

Goienakideen txokoa

OTSAILEKO SARIAK

Tableta InnJoo tableta

Parte hartzeko sariaren izena: tableta



Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE

"sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzelearen artean egingo da zozketa.

Indarrezko 07/23/2020 legearen arabera, jirarekintza dugu, zuzendutako zerbitzuak Goiena foruakiko Zerbitzuaren bidezkoak izan behar dituzte. Datu biltzei haren helburu bakarra da indarrezko legearen arabera gaitortasunak. Ekialdeko gogoratu dituztenak, leku zentratuak edo ez, eta helburu bakoitzak, goienakide@goiena.eus

Realaren eta Celtaren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean



GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Real-Celta norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeraturako beste lagun batek.

Real Arena futbol zelaiko premium guretik. Partida otsailaren 18an 14:00tan izango da.

Parte hartzeko azken eguna: otsailak 14



Irabazi bi lagunendako otordua

TARTUFO JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntuak aldizkariako Otorduan atala eta hartu partel!

Parte hartzeko azken eguna: otsailak 14



GOIENAKIDE Jotetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntuak aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



GOIENAKIDE KUOTA: 65€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!


goiena"
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

URTEURRENA

Eder Pagaldai Perea

2020ko otsailaren 14an hil zen, 29 urte zituela.



Hirugarren urteurreneko meza domekan izango da, otsailaren 12an, 11:30ean, Eskoriatzako San Pedro parrokian.

*Beti izango zara gure bihotzean, Eder.
Asko maite zaitugu.*

Zure familia.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Eskoriatzan, 2023ko otsailaren 10ean.

URTEURRENA

Maria Angeles Arriaran Etxeberria

2022ko otsailaren 15ean hil zen.



*Urtebete pasa da joan zinenetik,
baina oraindik hor zaude gure amets eta oroitzapen guztietan.
Beti bezala alai, beti bezain irrifartsu.
Jarraitu hor goian gu zaintzen,
hemen behean zaintzen gintuzun bezala.
Betirako gure bihotzetan.*

Urteurreneko meza zapatuan, otsailaren 11n, izango da, 19:00etan, Oñatiko Mikel Deunaren Eliza Nagusian.


Aurrez esker on, bertaratuko zareten guztioi. Oñatin, 2023ko otsailaren 10ean.

OROIGARRIA

Palmira Rodriguez Meiriño

'Bakero'

2023ko otsailaren 9ean hil zen.



*Zerurik bada, han izango zara
zure indarra eta kemena eredu izan dadila,
beti gure bihotzean.
Gero arte, Palmira.*

Koste familikoaren partetik. Oñatin, 2023ko otsailaren 10ean.

ESKER ONA

Angelita Larrañaga Susperregui

Jose Mari Lazkanoren alarguna


2023ko otsailaren 7an hil zen, 90 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.


Bergaran, 2023ko otsailaren 10ean.

ESKER ONA



Antonio Bragado Villarejo

2023ko otsailaren 6an hil zen, 76 urte zituela.



Lerro hauen bidez Antonio Bragado Villarejoren sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartzasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Arrasaten, 2023ko otsailaren 10ean.

BADESLEA

Oroilore

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

*Gari deita zuzenean eda, nahingo
badutse, jakinarazi zuten asaguru-
kopainari gurekin nahi ditzuela agurtu
maite ditzuen.*

*Marioven, Ibanen eta Maribiren
partetik, besarkada magikoak
zuzentzeko, bihotz sendatzeko balio
duten horietakoak. Guk badingu gordetu
zuzentzeko, gure beharra ditzuenetako.*

Mario, Iban eta Maribi



Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

GUARDIAKO FARMAZIAK

- ARRASATE EGUNEZ**
- Egubakoitza, 10 ESPAÑOL: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
- Zapatua, 11 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
- Domeka, 12 ETXEBERRIA: Zarugalde 38 / 943 77 16 30
- Astelehena, 13 AZKOAGA-AZKOAGA: Ferrerías 1 / 943 79 15 15
- Martitzena, 14 JUNCAY: Kontzeziño 12 / 943 79 79 99
- Eguaztena, 15 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
- Eguena, 16 IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39
- BERGARA EGUNEZ**
- Egubakoitza, 10 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74
- Zapatua, 11 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 79 16 87
- Domeka, 12 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 79 16 87
- Astelehena, 13 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
- Martitzena, 14 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
- Eguaztena, 15 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
- Eguena, 16 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74
- OÑATI EGUNEZ BAKARRIK**
- Egubakoitza, 10 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
- Zapatua, 11 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
- Domeka, 12 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
- Astelehena, 13 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
- Martitzena, 14 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
- Eguaztena, 15 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
- Eguena, 16 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
- ARRASATE GAUEZ EGUNERO**
(22:00etatik 09:00etara)
- 2023 osoan: JUNCAY: Kontzeziño 12 / 943 79 79 99
- BERGARA GAUEZ EGUNERO**
(22:00etatik 09:00etara)
- 2023 osoan: MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

BERRI-ZAKUA



Santa Ageda eskean, lehenengoz
Alaiak abesbatza izan zen hartatik sortutako taldea kalerik kale ibili zen Bergarako kaleetan. Mizpirualde egoitzan ere egin zuten geldialdia.




Eskalatzaile gazteak
44k parte hartu zuten Aretxabaletako Ibarren jokaturako boulder txapelketa mistoan. Alebin, infantil eta kadete mailetan lehiatu ziren.




Kopla kantari
Otsailaren 4an, Aretxabaletako Almen eta Basabeazpi guneeetako ikasleek, familiek eta langileek kalez kale jardun zuten kantuan.

ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN

**'INOIZ EZ DA BERANDU'**

Lesioen gainean egingo dute berba Malen Ruiz de Azuak eta Iñigo Barrenak. Garazi Abasolo nutrizionistarekin egongo dira.

'BiziOn!' Egubakoitza, 21:30 eta 23:30

**ARTXIBOTIK TIRAKA: ARATUSTEAK**

2023ko Aratusteak ate-joka daude –urteko jai koloretsuenak–; bailarako herrietan emandakoa errepasatuko dute.

'Bereziak' Zapateria, 16:30 eta domeka, 09:30

**ARRASATEKO OSOKO BILKURA**

2023ko bigarren osoko bilkurak emandakoa oso-osorik ikusteko aukera. Bitan errepikatuko dute.

'Osoko bilkura' Zapateria, 15:30 eta domeka, 22:00

**ZER EMAN DU AGINTALDIAK OÑATIN?**

Udalean ordezkatuta dauden EH Bilduren eta EAJren ordezkariekin egingo du berba Goiatz Aranak; agintaldiaren errepasoa egingo dute.

'Harira' Martitzena, 21:00 eta 23:00

**'GOMIZTEGIKO AHOTSAK' ERREPORTAJEA**

Artzain Eskolaren 25. urteurrenaren harira egindako erreportajea. Bertatik pasa direnen adierazpenak jaso dituzte.

'Bereziak' Eguaztena, 21:00 eta 23:00



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 10**BERGARA Emakume Zientzialarien Lehiaketaren bideo aurkezpena**

Emakume Zientzialarien Nazioarteko Egunaren harira. *Laboratoriumen*, 09:45ean.

ESKORIATZA Talde-jolasak

Gaztetxoendako. Probak gainditu eta erronkak asmatu beharko dituzte parte-hartzaileek. *Ludotekan*, 16:45ean.

ELGETA 'Ipuinen ordua'

17:30ean, HHko 3. eta 4. mailetakoa; 18:00etan, HHko 5. eta LHko lehenengo eta 2. mailetakoa; eta 18:30ean, LHko 3., 4., eta 5. mailetakoa. *Liburutegian*, 17:30ean.

OÑATI 'Nafar estatua defendatzen, Gipuzkoatik Amaiurrera' hitzaldia

Nabarralderen Oñatiko sustatzaileek antolatuta. *Zinema aretoan*, 19:00etan.

BERGARA Harri taldearen kontzertua

Hil edo bizi tour diskoa aurkeztuko dute. Sarrerak, zortzi euro. *Seminarixoan*, 20:00etan.

ARRASATE Conflict Noise, Hex eta Balmog taldeak

Agur eta ohore, *Behold the unlighted* eta *Eve* diskoak aurkeztuko dituzte, hurrenez hurren. Muturreko metal emanaldia. Sarrerak, bost euro. *Gaztetxean*, 21:30ean.

ELGETA Ipuin erotikoak

Bego Alabazanan eskutik *Oihu goxuak* saioa, helduendako. *Liburutegian*, 22:30ean.

BERGARA Bulego taldea

Azkoitiko boskotearren kontzertua. *Kartzela zaharrea*, 22:30ean.

ZAPATUA 11**OÑATI Fitbike saio magistrala**

Ordu eta erdikoa. *Zubikoan*, 09:30ean.

ELGETA Koko-batzea

Hartzarekin eta beste pertsonaia batzuekin eske-erronda. *Elgetan*, 09:30ean.

ARRASATE 'Askatasuna eta giza eskubideak' hitzaldia

Erizain eta abokatu Luis de Miguel Ortégak egingo du berba. Eserleku mugatuak. *Kulturaten*, 10:30ean.

ARRASATE Ludoteka ibiltaria

3 eta 12 urte artekoendako. Orduetgia: 11:30-13:30. *Musakolan*.

ARETXABALETA Txapel Txin eguna

12:00etan, kalejira; 13:00etan, Txapel Txinen pregoia; 19:00etan, Elektroxorongo elektroxorangarekin kalejira eta Txapel Txinekin parranda, eta, 21:00etan, Bixentak taldearen kontzertua. *Aretxabaletan*.

ARRASATE 'Lucha contra el capacitismo' liburuaren aurkezpena

Ekintzaile antikapazitista eta liburuaren egile Itxi Guerra egongo da ekitaldian. *Gaztetxean*, 12:30ean.

ARRASATE 'Zeuk in, zeuk jantzi'

Aratusteetako mozorroak prestatzen hasiko dira gaztetxoak. *Tren geltokiko gaztelekuan*, 18:00etan.

BERGARA Dantza-gidatu saioa

Alboka folk taldearekin eta Patxi Monterorekin. *Seminarixoan*, 18:00etan.

OÑATI 'Lobo feroz' filma

'Lobo feroz' filma (Espainia, 2023). Zuzendaria: Gustavo Hernandez. Iraupena: 106 minutu. Sarrera da bost euro. *Zinema aretoa, Oñati* 22:00etan

OÑATI Arkada Social eta Bladders taldeak (sarrerak agortuta)

Mikelen omenezko jaialdia. Barrako irabaziak Aspanogi elkartearendako izango dira. *Gaztelekuan*, 21:00etan.

DOMEKA 12**OÑATI Urrezko Aizkora**

Binakako eta aizkolari azkarren finalerdiak jokatuko dira. Emakume harri-jasotzaileen erakustaldia ere egongo da.

Foruen plaza, 12:00etan.

ESKORIATZA Martxoaren 8ra begirako batzarra

Emakumeen Nazioarteko Eguna antolatzen hasteko deia. *Kultura etxean*, 17:30etan.

ARRASATE 'Familian jolasean'

0-8 urte arteko haurrendako eta euren familiendako askotariko jolasak. *Okendoko ludotekan*, 17:30etan.

ARRASATE Puzgarri 'challenge'-a

Gaztetxoendako. *Tren geltokiko gaztelekuan* 18:00etan.

ESKORIATZA Santa Ageda neska-mutilen dantzak

2005. urtean jaiotako neska-mutilek egingo dute dantza. *Fernando Eskoriatza plazan*, 19:00etan.

ARETXABALETA Santa Ageda neska-mutilen dantzak

2004an jaiotako kintoek egingo dute dantza. *Herriko Plazan*, 19:00etan.

OÑATI 'Intxaurra' antzezlan

Mairu antzerki taldearen eskutik. Manex Fuchsek zuzenduta, besteak beste, Ainara Ribera, Gaizka Sarasola eta Iban Garro oholztan. Sarrerak, 5,50 euro. *Santa Anan*, 19:00etan.

ASTELEHENA 13**ARETXABALETA Odola emateko autobusa**

Herritar guztiendako. *Huhezki fakultatean*, 09:45ean.

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio publiko eskatzeko. *Foruen plazan*, 12:00etan.

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio publiko eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio publiko eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

ARETXABALETA Oleo lanen erakusketa

Marta Larrañagaren lanak ikusgai hilaren 28ra arte.
Arkupan, 17:00etan.

OÑATI 'Excreta. Nazkagarria bezain interesgarria' erakusketa

Gorotzak botatzeak naturan eta gizartean duen eginkizuna ezagutarazi gura duen bilduma, Ingurumen Jardunaldien baitan.
Kultura etxean, 18:30ean.

MARTITZENA 14

ARRASATE 'Habitat' erakusketa
Hilaren 17ra arte ikusgai.
Kulturaten, 17:00etan.

ESKORIATZA 'Pobrezia energetikoa' hitzaldia

Goienerek antolatuta.
Ibarraundi museoan, 18:30ean.

OÑATI 'Geologia, materialen krisia eta ondorioak gizarte industrialean' hitzaldia

Geologian lizentziadun Antonio Atxabalak egingo du berba, Ingurumen Jardunaldien baitan.
Kultura etxean, 19:00etan.

BERGARA 'Bi arnas' dokumentala

Dokumentalaren ekoizle Imanol Arzuagak eta atxiloaldian Guardia Zibilak borxatu egin zuela salatu zuen eta erbestean 15 urte bizi izan den Nekane Txapartegik egingo dute berba.
Seminarixoan, 19:00etan.

ARRASATE 'El techo amarillo' pelikula

Isabel Coixeten dokumentala emango dute, martitzenetako emanaldian.
Amaia antzokian, 19:30ean.



MAIRU TALDEA

OÑATI 'Intxaurrak' antzezlan

Gaixorik dagoen intxaurrondo baten iruditik abiatuta, enborra biziberritzearen beharra islatzen du Mairu taldearen lanak. Ainara Ribera, Gaizka Sarasola eta Iban Garro dira aktoreetako batzuk. Sarrerak: 5,50 euro.
Etzi, domeka, Santa Anan, 19:00etan.

EGUAZTENA 15

OÑATI Felix Zubiaren hitzaldia
Minbiziaz egingo du berba, Esperientzia Gelak gonbidatuta.
Santa Anan, 10:00etan.

ARRASATE Sasoibide, mendira
Elkartzen direnen artean erabakiko dute nora joan.
Biterin, 15:00etan.

ARETXABALETA Onintze Goitizekin ipuin kontaketa
3 eta 6 urte artekoendako.
Liburutegiko Txiki Txokoan, 18:00etan.

ARRASATE 'Autokontsumoa eta energia komunitateak' hitzaldia
Goienerek antolatuta.
Ereindajan gunean, 18:30ean.

BERGARA 'Ecofascismo. Una introducción' liburua aurkezpena
Carlos Taibo egilearekin.
Kartzela zaharrean, 18:30ean.

ARRASATE 'Arrasate Musikal: hastapenak' hitzaldia
Irakasle eta ikasle ohiek egingo dute berba, Imanol Gallegok gidatuta.
Kulturaten, 18:30ean.

OÑATI Trantsizio energetikoari buruzko analisi kritikoa
Alvaro Campos Celador izango da, Ingurumen Jardunaldien barruan.
Kultura etxean, 19:00etan.

BERGARA 'Decision to leave' pelikula zineklubean
Sarrerak, hiru euro.
Seminarixoan, 20:00etan.

EGUENA 16

ARRASATE Sasoibide
Elorrion joango dira.
Zalduspe geralekuan, 09:30ean.

ESKORIATZA Urdelardero
Egun osoko festa.
Eskoriatzan, 10:30ean.

OÑATI Eguen Gizen eguna
Txistor-jana eta bingo-jokoa.
Pake Lekun, 17:00etan.

OÑATI Oñatiko Emakumion Kontseiluaren eratze-batzarra
Irekia.
Osoko bilkuren aretoan, 17:30ean.

BERGARA Sorgin dantza
Aratustek.
San Martin plazan, 19:00etan.

ARRASATE 'Vuelta al país de Elcano' hitzaldia
Ander Izagirrek egingo du berba.
Kulturaten, 19:00etan.

ANTZUOLA Basotik-en aurkezpena
Jon Ander Ostolazarekin.
Olaran etxea, 19:00etan.

ARRASATE Kristonak taldea
Kooltur Ostegunak.
Gaztetxean, 22:00etan.

ZINEMA**ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA**

La ballena
Zapatua, domeka eta astelehena: 19:30.

El asombroso Mauricio
Zapatua eta domeka: 17:00.

BERGARA**SEMINARIXOA**

La ballena
Domeka eta astelehena: 19:30.

El sombrero Mauricio
Domeka: 17:00.

OÑATI**KULTURA ETXEA**

Lobo feroz
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:30.

Yuku eta Himalaiako lorea
Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABALETA**ARKUPE**

Babylon
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua eta domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

Hopper oilasko-erbia
Domeka: 17:00.

EIBAR**COLISEO**

Asterix y Obelix
Zapatua eta domeka: 17:00.

Decision to leave
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

Llaman a la puerta
Zapatua: 17:00, 19:45.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

Una herencia de muerte
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ**FLORIDA**

As bestas
Egubakoitzetik domekara, eguaztena eta eguena: 19:15.

Babylon
Egubakoitzetik eguenera: 20:00.

Decision to leave
Egubakoitzetik domekara: 21:30.
Astelehena: 21:00.

El asombroso Mauricio
Zapatua eta domeka: 11:45.
El gato con botas
Zapatua eta domeka: 11:45.

La ballena
Egubakoitza, zapatua eta domeka: 19:00, 21:30.
Astelehena eta eguena: 17:30
Martitzena eta eguaztena: 19:30.

Almas en pena en Inisherin
Egubakoitza eta zapatua: 19:45, 22:00.
Domeka: 19:15, 21:30.
Astelehena: 19:00,

21:15.
Martitzena: 19:30.
Eguena: 20:00.

Asterix y Obelix
Egubakoitza eta eguaztena: 17:00.
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00.

Bidean jarraituz
Egubakoitzetik domekara: 17:00.
Astelehena eta eguena: 20:00.
Martitzena eta eguaztena: 17:30.

Llaman a la puerta
Egubakoitzetik domekara: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:30, 21:30.
Martitzena: 17:00, 19:15.
Eguaztena: 19:30.
Eguena: 17:30.

Los hijos de otros
Egubakoitzetik domekara: 19:30.
Astelehena: 20:00.

El piloto
Egubakoitza: 17:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 11:30, 17:00, 22:30.

KRITIKA

Almas en pena en Inisherin ★★★★★
Zuz.: Martin McDonagh. **Herr.:** Erresuma Batua (2022). **Aktoreak:** Colin Farrel, Brendan Gleeson. **Iraupena:** 114 minutu.

Bizitzaren ukitu absurdoa**ANTONIO ZABALA**

Almas en pena en Inisherin filma istorio labur batetik abiatzen da: bi lagun, arratsaldero, pubera joaten dira garagardo batzuk hartzera. Bat-batean, Colmek erabakitzen du ez duela Padraicez ezer gehiago jakin nahi. Padraicek, harrিতuta, horren zergatia jakin eta adiskidetasuna berreskuratzen nahiko du. Biak burugogorak dira eta horrek norgehiagoka geroz eta latzago bihurtuko du. Padraic konforme dago bere bizimodu lasaiarekin eta arruntarekin. Colm, aldiz, mugatuta eta atsekabetuta sentitzen da. Martin McDonaghek ezin hobeto jokatzen du egoera, elkarriketa errepikakorrekin bizitzaren kutsu absurdoa harrapatzeko. Badaki trama

nagusiak bigarren mailako pertsonaiekin hornitzen. Adibidez, Padraicen arreba Shiobanek eta Padraicen lagun Dominiccek bizi diren uharte txiki giro itogarria azpimarratzen laguntzen dute.

Uharte txiki horretatik, Irlandan gertatzen ari den 1923ko gerra zibileko oihartzunak entzuten dira. Baliteke borroka horrek bertako biztanleei eragiten dien giro goibela areagotzen laguntzea.

Martin McDonagheren filmetan, umorearekin eta samurtasunarekin batera, indarkeriak, lizunkeriak eta tristurak ere badute lekua. Haren pertsonaietako asko bizitzaren zirkunstantziak kolpatutako gizakiak izaten dira.



AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

Salve Pelele

13 urte nituen La Polla Records taldeak *Salve* diskoa atera zuenean. Punk-rock doinuez kantatutako letra zorrotz haiek gizartea astindu zuten. Baita nerabezaroan geunden lagun askoren ikuspegia ere. Abestiek transmititzen zuten inkonformismoa eta salaketa soziala haize freskoa izan zen guretzat gaur baino tradizionalagoa zen gizarte hartan.

Asko dira letra gogoangarriak; adibidez: *Ya vale de pringar, los enanitos buenos al patrón han de matar; En mi tumba hay latas de cerveza; Come mierda*; edo diskoari izena ematen dion abestian esaten direnak.

13 urte ditu alaba nagusiak. Lagunen artean gustuko duten konposizioetako bat *Pelele* izenekoa da, Morad rapero eta musikariarena –hau ere gaztelaraz–. Behin eta berriz entzun badut ere, zaila egiten zait esaldi zirraragarriak bilatzea. Honelakoak jasotzen ditu kantuak: *Pe pe pelele, te crees que es muy fácil nombrar a la L*.

Salve-ren garaian guraso zirenek pentsatuko zuten gazteria galduta zegoela. Hala ere, iruditzen zait gure munduak bide onetik egin duela. Horregatik, ez dut arduratu beharko *Pelele* moduko abestiengatik...

BUKATZEKO

Lian Monserrat-en mural bat Osintxun dago

2022ko munduko hirugarren muralik onena izendatu dute Lian Monserratek Ondarroan egindako saregileen murala eta artista berak beste mural bat margotu zuen Osintxun; auzotarrak gustura dira, saritutako muralgilearen obra bat bertan dutelako

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
Street Art Cities webguneak 2022ko munduko hirugarren muralik onenaren saria eman dio Lian Monserratek –Murales Lian– Ondarroan egindakoari. Gustura hartu du aitortza, baina garbi du jasotako saria harrentzat nahiz bere aurretik egon diren guztientzat dela, bidea egin dutela iritzita.

2022an, ordea, Ondarroako murala margotu ostean, Osintxun egin zuen beste bat uztailean, astebetean, Soraluez Kooperatibak Osintxu biziberritzeko emandako dirulaguntzari esker. Leo Argote Osintxuko auzo-elkarteko kidea da, eta, adierazi duenez "harro-harro" daude mundu mailan hirugarren saria eskuratu duen muralgile baten artelana auzoan dutelako.

Antzekotasunak

Leitzan eta Soraluez egindako muralengatik ezagutzen zuten artista osintxuarrek. Auzoan zegoen ehungintza-enpresa zuen oinarri artistari egin zioten proposamenak, auzotar askok egin baitzuen lan bertan, eta josten ari ziren esku batzuen zirriborroa aukeratu zuten auzotarrek lan-gileei eginiko omenaldi gisa.



Lian Monserratek uztailean Osintxun egindako murala. I.A.A.

Osintxuren iragana eta etorkizun koloretsu eta plurala erakutsi nahi zuten, aldi berean, muralen, eta Monserratek eman ditu horren gakoak: "Zati batzuk zuri-beltzean daude muralen; hariak, berriz, koloretan".

Ondarroako muralarekin antzekotasunak baditu Osintxukoak eta egileak ere gaineratu du zentzu bera dutela bi lanek. "Hari solte bat daukazu, eta haustea erraza da. Baina elkartu eta tela josten duzunean, guztia sendo geratzen da", dio. Osintxuarrek ez diote izenik jarri lanari, ezta artistak ere; baina, izen bat jarzketotan, *Batasunak egiten du indarra* jarriko lioke.

Osintxun beste proiektu bat

Lianek Osintxun muralak egiteko beste proposamen bat dauka; kasu horretan, pilotalekuan egingo lirateke, fabrika zegoen leku berean, baina mitologia izango litzateke gaia: "Pertsonaia mitologikoak, inguru horietako sorginak eta mitologia jaso nahi ditut". Proiektu hori gauzatzeke, baina, Osintxuko auzo-elkartetik adierazi dute Bergarako Udalaren laguntza eskertuko luketela.



Ondarroako saregileen murala. M.L.



Realaren eta Celtaren arteko partidarako sarrerak
futbol zelaiko tokirik onenean

ERREGE KOPA

Reala-Celta norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeratutako beste lagun batek.
Real Arena futbol zelaiko premium gasetik.
Partida otsailaren 18an 14:00tan izango da.

Parte hartzeko azken eguna: otsailak 14

Ezin errazagoa da
zozketan
parte hartzea!



1.
Aplikazioa
deskargatu.

2.
Zozketak atalean sartu
eta parte hartu.

Gertu.
Zorte on!



Egin
bazkide
eta Real
ikusteko aukera
izango duzue!

goiena
kide

Okm:
batzen gaituen
distantzia